



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea

SOZIOLOGIA GRADUA
2019-2020 IKASTURTEA

**LISABÖ ETA EZLEKUAK: DISKOAN ZEHAR ESAN
ETA EGINDAKOAREN GERTURAPEN ESPAZIAL
BAT.**

EGILEA: Jon Iriarte Mendiola
ZUZENDARIA: Iñaki Martínez de Albeniz

Data, 2020ko maiatzaren 23a

“Gradu Amaierako Lanaren egileak adierazten du lan original eta propio honetako datuak benetakoak direla, eta hala izan ezean bere gain hartzen duela jokabide ezegokien (plagioen, irudien erabilera bidegabeen eta abarren) erantzukizuna. Irudien copyrighta haien jabeena edo lizentziadunena da. Dibulgazio helburuekin baino ez dira erabili hemen, lanaren marko teorikoa edo analisia ilustratze aldera”

LABURPENA

Ikerketa lan honek Lisabö talde irundarrak 2007. urtean argitaratutako *ezlekuak* lana du aztergai. Espazioarekin lotzen dugun termino soziologiko-antropologiko hau ardatz duen disko kontzeptual honetan, espazioren inguruan esandakoa eta espazioan egindakoaren ondorio diren dimentsio espazial ezberdinen inguruan arituko gara. Lan artistikoan letren bitartez esaten den horren maila diskurtsiboa analizatuko dugun era berean, egiten denari erreparatzeko, musika eta honen ekoizpenean jarriko dugu arreta.

Bide honetan, metodo kualitatibo eta artekaritza metodoak konbinatuz, diskoan zehar diren espazioaren dimentsio sinboliko, material eta imaginarioetara iritsiko gara. Horretarako, hitzen diskurtso analisi, taldekideekin elkarrizketa ireki eta ikus-entzunezko etnografiak baliatuz, *ezlekuak* lana harreman dialektiko ezberdinek osatzen dutela azaleratuko da.

Hitz gakoak: espazioa, ezlekuak, Lisabö, Sare-Aktoreen Teoria

ABSTRACT

This research study focuses on the 2007 album *ezlekuak* by Lisabö band, native to Irun. In this conceptual album that focuses on the social-antropological term of space, we will delve in what this record tells us about space and the spacial dimensions that result with what is done with that space. We will also analyze the "discourse level" that's established thru the lyrics in this artistic work, as well as the music and it's production.

This way, combining qualitative and mediation methods of study, we will reach the symbolic, material and imaginary dimensions of space that are present throughout the disc. To this end, and using analysis of word discourse, open interviews with group members and audio-visual ethnographies, we will uncover how different dialectic relations form the album *ezlekuak*.

Key words: space, non-places, Lisabö, Actor-Network Theory

Aurkibidea

SARRERA.....	6
MARKO TEORIKOA	8
HELBURUAK.....	15
METODOLOGIA.....	16
ANALISIA	19
Hitzen diskurtso analisia	19
Espazioaz eta espazioarekin egin.....	29
ONDORIOAK.....	40
BIBLIOGRAFIA	43
ERANSKINAK	45
Lisabö taldearen biografia	45
Diskoko hitzak	48
Hazi eskukada I.....	48
Aukerak, Ankerrak.....	48
Bi minutu	48
Alderantzizko magia	48
Sekulan etxean izan ez	48
Hazi eskukada II.....	49
1215. katean.....	49
Nekearen Teoria.....	49
Gidoiak.....	50
Transkribapenak.....	53
Martxel Mariskal.....	53
Karlos Osinaga.....	66

SARRERA

Esku artean duzun idazki hau soziologiako Gradu Amaierako Lanari dagokio, 2019-2020 ikasturtean *Kultura garaikidea eta bere adierazpenak* gaiaren esleipenaren ondotik Iñaki Martinez de Albeniz irakaslea tutoretza lanetan aritu dela. Hau honela, ikerketaren markoa ikaskuntza arloko unibertsitate-eremuan kokatzen da.

Lan honek disko baten analisi soziologikoa burutzeko asmoa du, 2007. urtean Lisabö taldeak argitaratutako *ezlekuak* lana aztertuaz.

Gertukoak zaizkigun kultur arloko ikerketa ildoek bestelako norabide batzuk izan dituzte diziplinaren garapenean zehar. Era honetan, biztanlegoaren kultur kontsumoa eta honen inguruan diren determinante sozialen txostenak gertukoagoak egin daitezkeen arren, nekez aurkituko dugu disko baten azterketa egiten duen ekarpenik. Gure ikergaia ekoizpen kulturalaren ondorio den objektu batean zentratuko da, disko batean hain zuzen. Hau honela, obra artistiko bera izango da gure lanaren aztergai, eta kulturaren soziologiara beste mota bateko gerturapen batez hurbilduko gara.

Hau esanda, disko baten analisi soziologikoa ohikoa ez den bezala, berritzailea da eta orain arte soziologia arloan pelikula, irudi eta bestelako ikus-entzunezko edukien analisiak egin diren arren, formatu auditiboak oinarri dituzten lanik apenas ez dugu aurkituko. Gainera, analisis burutzeko aukeraturiko diskoa ez da nolana hikoia. Termino soziologiko baten inguruan dabilen disko kontzeptual baten dugu hizpide, lan honetarako hitzak soziologo batek idatziak izanik. Anonimatozko espazio bezala izendatu ohi diren ezleku kontzeptuaren inguruan biltzen diren abestiek bilduma oso bat osatzen dute, eta disko formatuan kaleratutako lan hau izango da aztergai ondorengo lerroetan.

Espazioko bizipenetatik gertuko dagoen kontzeptu batetaz ari den proposamen artistiko honetan, espazioaren dimentsio anitzak arakatzea izango da gure jomuga. Honela, ezlekuen bueltan ari den diskoan, espazioaren inguruan esaten den eta musika egiteko garaian egindako espazioaren erabilera hartuko dira kontuan. Batetik, lanari dagokion alderdi lirikoaren bitartez espazio jakin hauen inguruan den ulerkera ikusteko aukera izango dugun bezala, bestetik, musika eta honen ekoizpenaren bitartez, espazioan eta espazioarekin egiten dena hausnartuko dugu.

Hau gauzatzeko, taldea entzun eta ikusi osteko behaketak ez ezik, diskoko hitzak diskurtsiboki analizatu eta sormen honen protagonista diren letragile zein musikari eta grabaketaren arduradunarekin elkarrizketa irekiak gauzatzeko aukera izango dugu. Honela, Martxel Mariskal idazle eta soziologo eta Karlos Osinaga musikari eta ekoizlearekin mintzatzeko aukera probestuz, ezlekuak diskoak egindako espazioaren ulerkera eta honen sorreran den espazioaren erabilera ezagutzen lagunduko digute.

Gainera, lan musikal batez ari garenez, musika egiterako garaian musikariez gain prozesu honetan parte hartzen duten elementuak eta taldearen ezaugarri diren praktiketan hauek duten garrantzia kontuan hartuta, gizatiarrak ez diren gailu teknologikoak analisi sozialaren baitan txertatuko dira, Sare-Aktoreen Teoriaz baliaturik. Bereziki espazioaren erabileran egiten dena kontuan izanda, elementu ezberdinek duten artekaritza gaitasuna

eta haien artean sortutako konexioak sakonduko dira metodo honi esker. Hortaz, analisisa egiterako garaian, teknika eta metodo kualitatiboak erabilgarri egingo zaizkigun bezala, taldearen behaketaz egindako deskripzioetatik abiatu eta Sare-Aktoreen Teoriaren aterkipean egindako azterketak konbinatuko ditugu.

Halaber, aipatzekoa da lan osoan zehar presente izango ditugula Marc Augé eta Henri Lefebvre autore frantsesek hurrenez hurren ezleku eta espazioaren ekoizpenari buruz garatutako lan teorikoak.

Kazetaritzara hurbildu daitezkeen kritika musikalez haratago, ezlekuen inguruan ari den disko hau gauzatzeko espazioaren praktika zehatz batzuk egiten direla ikusiko dugu. Hitzak eta musika espazio ezberdinetan sortzen diren heinean, lana osagarri egiten duten eta aldi berean bereizita dauden prozesuak izango dira biak. Identitatearen aldarriekin aurkitu ditugun bezala, izatea eskuratzeko identifikazio ezberdinen aukerak luzatzen zaizkigu, hitzen gainean egindako interpretazioen bidez eskuratutako izatea edo musika egiterako garaian egindako praktikek izate bat ematen duten bezala. Gauzak honela, sormen artistiko hau aurrera eramateko garaian sortzen diren harreman dikotomikoak azpimarratzekoak izango dira. Musika industriak dakarren logika gainditu, diskoa jendartera eramateko garaian ikuskizunaren logikak dakarren eredu alboratu eta espazio abstraktuan ohikoa den espazioaren errepresentazioak gaindituz, Lisabören musikak espazio diferentziala lehenetsiko du.

Espazioak garrantzi handia hartuko du musika egiterako garaian, berau probestu eta dimentsio fisikoek eskaintzen duten estetika sonoro bat bilatuaz. Hala ere, ikusiko dugun bezala, **espazioaren inguruan esandakoak eta musika egiteko garaian hautatzen den espazioaren erabilera ez dira zertan bat etorriko, baina aldi berean diskoaren lan bateratua ahalbidetuko duten prozesuak izango dira.**

Hortaz, Lisabören lanari izena ematen dion termino soziologiko honetaz gain, disko honek soziologiatik asko duela esan dezakegu, eta hau ez da hitzek osatzen duten alderdi lirikoan bakarrik aurkitzen, musikan ere soziologia asko baitago.

Bereziki taldea ezagutu ez eta honen testuingurua ulertzeko asmotan, gure ikerketa objektuaren ekoizle den musika proiektuaren biografia¹ labur bat bildu dugu eranskinetan.

¹ Taldearen ibilbidea erreparatzeko Berria egunkariko Badok euskal musikaren atari digitala, lafonoteca eta Bidehuts proiektuaren webgunea erabilgarri izan dira.

MARKO TEORIKOA

Salbuespen bat den arren, Lisabö taldearen inguruko artikulu akademikoak argitaratu dituenik izan da. Benjamin Fraserek, Estatu Batuetako Arizona unibertsitatearen eskutik doktorea denak, taldearen inguruan bi argitalpen ditu: *Re-scaling emotional approaches to music: Basque band Lisabö and the soundscapes of urban alienation* (2010) eta *The Bergsonian link between emotion, music and place: from the “motion of emotion” to the sonic immediacy of the basque band Lisabö* (2009).

Gure ikergaiari hurbil dakizkiokeen aurrekari hauek soinuaren dimentsio eta praktika materialen artean den harreman dialektikoa azpimarratzen digute, musika eta hitzen ekoizpenek entzungarria den formatu batean alienazio hiritarrari dagozkion dimentsioak eskainiz. Soinuak geografikoki duen garrantzia azpimarratzean, musika entzute soila izan baino, kokatua den gorputz baten beharra duela aurkeztuko digu. Hau honela, lanean zehar taldearen soinuak alienazio urbanoaren gerturapen teorikoan duen garrantzia azpimarratu nahi izan du, emozioen ikuspuntu batetik eta emozio hauek esanahietara mugatu baino, duten eragiteko ahalmena azaleratuaz.

Gainera, musika herrikoiaren ikerketa akademikoak egin izan direnetan, soinuak jendea ordeztan duenaren ideari mugatu direla aipatzen zaigu (Frith, 1996a: 269; hemen aipatua: Fraser, 2010: 10). Honen aurrean, Fraserek taldearen inguruan egindako lanak pertsonen islada baino, musikaren bitartez ezlekuek dakarten errealitate espazialaren isla dakartela adieraziko digu.

Lisabö taldeak 2007. urtean argitaratutako *Ezlekuak* lanaren inguruan arituko garen honetan, ezinbestekoa dugu termino soziologiko-antropologiko honen inguruan idatzitakoa bildu eta kontzeptua bera definitzea. Disko honetan, gasolindegia, ospitale, autopista, garraiobidea etorri bitarteko itxaronaldia, pasaporte argazkiak edota hotelak bezalako gune eta egoerak aipatzen dira, norbanakoen erabilerak identitate eta erlazio galerak dakartzan heinean. Tartean, idatzizko lan hau soinu indartsu eta tentsiodunek musikatuko dute, atmosferak, ezkutuko melodiak eta ahots urratuak hitzekin uztartuaz. Hitzak eta soinua emaitza bakar batean argitaratu baziren ere, espazio ezberdinetan ekoizitako bi esparruen arteko harreman dialektikoa kontuan hartu beharko dugu. Hitz eta soinuak lan osoak dakarren lotura bat bezala ulertu daitekeen bezala, guztiz bereizitako bi eremu izan baitaitezke.

Hau honela, Marc Augé antropologo frantsesaren *Los no lugares* lana disko kontzeptual honen tematikaren eta esaten den horren oinarri teorikoak zehazteko erabilgarri egingo zaigu. Liburua gertaeren gehiegizko pilatzeak, espazioen pilatzeak eta erreferentzien indibidualizazioak osatzen dituzten hiru ardatz nagusiek osatzen dute. Hau honela, autoreak anonimatozko espazio hauek testuinguru jakin batean kokatzen ditu, gertaerek gainezka egiten duten gainmodernitate testuinguruan. Aurreikusiak ez diren gertakarien pilatzeak abiadura handitzea ekarriko luke, honek denbora pentsatzearen zailtasunak dakartzan era berean, eta historiaren azkartzeak, historialariei zailtasunak ekarri ez ezik, gertakarien abiadurak identitate bat garatzeko zailtasun egoerak ahalbidetuko ditu. Autorearen esaldi honek ondo adierazten digu gertaeren pilatzeak dakarren abiadura: “...se vuelven historia tan pronto como hicieron su aparición”(Augé, 2017: 33).

Denboraren ardatzean kokatzen den abiadurarekin batera, espazioari dagozkion eskalak aldaketa handiak jasoko dituzte garraibide azkar eta berrien ondotik. Gugandik oso urrun diren paisaiak identifikatzeko gaitasuna izango dugu, bertan ez bagara ere. Munduko eremu ezberdinetan kokatzen diren Eiffel dorrea, askatasunaren estatua edota Keops piramidearen paisaia irudikatzeko erraztasunak izango ditugu, honek norbanakoaren mundu ikuskera eta bertan kokatzeko zentzuaren sorreran eragiten duen bitartean.

Ezlekuen ezaugarritze bat garatu baino lehen, autoreak leku antropologikoaren oinarriak zehazten ditu, biak kontrastatu eta espazioarekin den harreman ezberdina azaleratu nahian. Hala ere, honek ez du esan nahi lekuak eta ezlekuak kontrakoak diren muturretan kokatzen direnik. Bi termino hauek ez dira baztertzailak izango, eta hortaz ez dira bere osotasunean inoiz beteko. Hau argituta, lekua identitatea, historia eta harremana ezaugarritzat duen espazioa izango genuke. Espazioak berak identitate kolektibo bat adieraziko liguke kasu honetan, eta aldi berean, taldeak kanpo mehatxuen aurrean haien identitatea babesteko gaitasuna du. Barnekoa eta kanpoko denaren mugak ondo bereizita daude, eta leku antropologikotik mugitzean, lurraldetasunak ematen duen kokapena galtzarekin batera, identitatea ere galduko da. Kolektibitate zein norbanakoek identitatea eta harremana pentsatzea beharrezko dute, eta leku antropologikoan identitatearen sorrera norbanakoen arteko interakzioaren esku dagoen bitartean, ezlekuek partekatutako identitatea norbanakoen gain sortzen dutela ikusiko dugu. Hala ere, lekuei dagokienez, autorearen esanetan kontraesanak badira. Bertako biztanleek, historia egin baino, historia bizi dute eta horren adierazgarri izango genuke aurrez bizi ziren senideek egindakoa erritual bitartez irudikatzen dituzten ospakizunak. Leku antropologikoan geometriak eta arkitekturak behar eta funtzionamendu ezberdinei egingo die aurre, herri tradizionalen eliza eta merkatua bezalako guneek bizitzeko era jakin baterako baldintzak eskainiz. Heine batean kontraesankorra dela esan daiteke, herritarren harreman eta interakzio bat bideratzen bada ere, askotan herri tradizional bateko gune hauek funtzio jakin batera bideratutako guneak ere badira, ezlekuetan bezala.

Ezlekua beraz, identitaterik, historiarik eta norbanakoen arteko harremanik ez duen espazioa litzateke. Garrantziazko ibilbide historikorik ez badute ere, historia maiz aldarrikatuko da, hau ikuskizun bilakatuz. Hiria kanpo kokatzen diren errepide sareetan, erdigunean kokatzen diren eta esanahia duten lekuen afixak aurkitu daitezke. Honela, distantziak testuen bitartez adieraziko dira, era deigarri batean eta tartean leku garrantzitsuen aipamena eginaz. Gauzak horrela, garraioen zirkulaziorako funtzionalitatea betetzen den bitartean, garrantzia duten lekuak irudi grafiko eta distantzien bitartez aipatuko dira, eta aldi berean hauek ekidin. Beste zenbaitetan historikoki garrantzia izan duten pertsonaiek kaleen izenak hartuko dituzte eta erreferentzialtasun historiko honekin lekuaren autentikotasuna demostratu nahi da. Hau da, jatorrizko espazio horretatik kanpo, baina aldi berean, jatorrizko espazioaren erreferentziak guneetan islatuz. Jarraian dugun esaldiak aipatutakoa ondo laburbilduko liguke:

“Contraste: a la entrada de las ciudades, en el espacio triste de los grandes complejos, de las zonas industrializadas y de los supermercados, están plantados los anuncios que nos invitan a visitar los monumentos antiguos. A lo largo de las autopistas se multiplican las referencias a las curiosidades locales

que deberían retenemos aun cuando estamos de paso, como si la alusión al tiempo y a los lugares antiguos no fuese hoy sino una manera de mentar el espacio presente.” (Augé: 2017: 78-79)

Funtzionalitatea aipatuko bagenu, ezlekuak helburu eta ekintza jakinetarako espazioak direla esan beharra dugu, garraio, merkataritza edota aisialdian zentratzen diren guneak. Gainera, bertan aurkitzen diren karteak erabiltzaileei hitz, testu edo ideograma kodifikatuak eskaintzen dizkiete. Honek gune hauetako erabiltzaileak haien artean komunikatzera eramaten baina, testuekin komunikatzera eramaten ditu eta pertsonekin harremanak diren kasu horietan ohikoa izan ohi da elkarrizketak erakunde jakinetako kideekin izatea (aireportuko langile, polizia...). Espazio hauetako erabiltzaileak diren kide guztiek tratatu beretsua jasoko dute, batez ere makina, kartel edota irudietako mezuak barneratzen diren unean. Pertsonen arteko elkarrizketa ekiditen den moduan, isiltasuna nagusituko litzateke egoteko baina, trantsiziorako diren ezlekuetan.

Bestetik, identitateak ez duten espazioak direla aipatu badugu ere, erabiltzaileek identitatea adierazten duten ziurtagiri gabe ezingo dute gune jakinetarako sarrerarik izan. Lehendabizi, nor garen demostratu beharko genuke eta behin gure inozentzia baieztatu denean, orduan galduko genuke identitatea, anonimotasuna eskuratuz. Hortaz, subjektuaren galera eskuratu baina lehen gure identifikazioa ahalbidetzen duten kontrol mekanismoen beharra izango da. Honela dio Augék, “...el pasajero sólo adquiere su derecho al anonimato después de haber aportado la prueba de su identidad, (...) No hay individualización (derecho al anonimato) sin control de la identidad” (Augé, 2017: 105-106).

Alabaina, identitate galerek bestelako identifikazioak ahalbidetu ditzakete. Augék terminoaren inguruan egindako irakurketa ezkorren aurrean, ezlekuek komunikazio berriak ahalbidetzeko baliabideak eskaini ditzakete, leku antropologiko eta gizakiaz haratago diren objektuekin. Tartean, autobus geltokian bidaiaren ordutegia adierazten digun pantailarekin binkulazioak sor daitezkeen bezala, musikan ere badira gizatiarrak ez diren instrumentuekin identifikazio eta loturak. Identitate galerek identifikazio berriak sortzeko aukera izanik, Stuart Hallek bi terminoen inguruan aipatutako zenbait gako bildu ditugu jarraian.

Autore jamaikarraren arabera (2003), identitateak praktika diskurtsiboen (narratiba edo kontaketen) bitartez izango luke bere euskarria, eta hortaz, diskurtsuaren baitan ematen dira hauek. Prozesuak bere horretan, ezberdintasun baten beharra izango luke, honi esker osatzen baita bere izatea, eta esentzialista izan baina, estrategiko eta posizional bezala ulertzen du Hallek (Hall, 2003: 17). Aipatzekoa da autoreak identitatearen osaketa bazterketa bati esker sortzen dela dioenean, Derrida filosofo frantsesari eginiko erreferentzia.

Identifikazio prozesua aldiz, subjektu eta praktika diskurtsiboen arteko lotura gisa ulertzen du eta partekatzen diren ezaugarri komun horien jakitun izatean emango litzateke etengabeko eraikuntzan den prozesu hau. Funtsean, partekatzen den horrekiko artikulazio prozesu bat da identifikazioa. Oraingoan ere, partekatzen den horretatik kanpo geratzen diren ezberdintasunek garrantzia hartuko dute prozesua ahalbidetzeko garaian.

Bi kontzeptu hauek interesgarriak egin dakizkiguke, izatearen sorrerak zer nolako norantza hartzen duen hausnartzeko. Batetik, identitate zurrunetik abiatu, jada finkoa den eta aurrez eraikia dagoen hori islatzen duenak, izatea egite baten aurretik lehenesten duen norabidea izango luke. Baina, identitatea osatzeko beste modu alternatibo batzuk badira, identifikazioari hurbiltzen zaizkionak. Osaketa hau oso aldakorra izango da egiten denak identitate bat badakar, eta bigarren aukera honetan egite batetik abiatuta izatea eskuratzen dela esan genezake.

Ezlekua kontzeptuaz gain, aztertuko dugun disko honetan gertatzen dena ezagutzeko, espazioaren inguruan garatutako teoriak lan honen zenbait dimentsio aztertze erabilgarriak egingo zaizkigulakoan gaude. Izan ere, lan honen ekoizpena espazio jakin batean izan da grabatua, estudio batean. Azken emaitza entzuteko euskarrian kaleratu aurretik, grabazio lanetan espazioaren erabilerak garrantzia hartu izan ohi du ekoizpen musikalean. Honela, gelako erreberberazio, soinu-ingurugiroa bildu nahi eta distantziara ezberdinetara kokaturiko mikrofonoek azken emaitza hau baldintzatuko dute, beti ere grabaketa egiten den gela eta honen erabileraren arabera. Hau honela, Henri Lefebvre filosofo eta soziologo frantsesak espazioaren inguruan landutako teoriaren zenbait gako bilduko ditugu jarraian.

Autoreak 1974. urtean *La producción del espacio* lana argitaratu zuen, espazioa ekoizpen sozial bat denaren hipotesitik abiatuta. Bere esanetan, hau produktu bat izango da eta hortaz, espazioaz den ezagutza eta interesak ekoizpen prozesu hau baldintzatuko luke, espazioan kokatzen diren eta espazioaren inguruko diskurtsoen ekoizpena baldintzatuz. Honela, espazioa paper aktibo bat hartzen duen errealtatetzat hartu beharko genuke, beste era bateko produktuek ez bezela, espazioak ekoizpena ahalbidetzen baitu produktu eta produktore den heinean. Prozesua eta objektua banaezinak diren harreman dialektiko baten ondorioz sortutakoa da, biek ekoiztutako espazio soziala osatuz. Beraz, espazioaren ekoizpenaren emaitza den produktua eta ekoizpen prozesua bera bereizi ezinak lirateke. Ekoizpen hau ez da fabrika batean eman daitekeen bera, unean uneko harreman eta prozesu historiko baten ondorioz garatutakoa materializatu egiten baita. Halaber, denboraren igaroak espazioan arrastoak izaten baditu ere, espazioa beti izango da orainaldiko espazio bat, unean uneko harreman eta konexioak direla eta.

Lefebvrek ohiko espazioaren analisiak gainditu eta teoria bateratzaile baten beharra ikusi zuen, dialektika hirukoitz edo trialektika delakoaren baitan espazio fisiko, mentala eta soziala uztartu nahian. Hau honela, espazio fisiko bezala, natura eta eremu praktikosentsiblea ulertuko ditu. Espazio mentala, abstrakzio literario, ideologiko, oniriko eta honelako iruditeriak barne biltzen dituen izango da. Eta espazio soziala berriz, lengoaia praktika bilakatzen den espazioa litzateke, bizitza sozial eta giza harremanek ondo bereziak dituzten erreproduktzio eta produktzio harremanen espazioa (Lefebvre, 2013; Baringo, 2013). Gainera, autoreak ohiko tradizio marxista gainditu eta espazio soziala gainestrukturan baino, azpiestrukturan kokatuko luke, harreman sozial eta ekonomikoen ekoizkin eta ekoizle den bezala (Lefebvre, 2013: 47).

Teoria bateratzaile honetan, denboraren ardatz sinkroniko eta diakronikoan kokatuko liratekeen trialektika eta espazioaren faseak aipatzea beharrezkoa da. Batetik, maila sinkronikoan, espazio sozialaren auzia ulertzeko, Lefebvre, ekoizkin eta ekoizle dialektikatik haratago doa, jarraian ditugun hiru kontzeptuk osatzen duten triada erabiliaz (hautemandakoa-sortutakoa-bizitakoa; gazteleraz percibido-concebido-vivido bezala ezagutzen direnak) (Lefebvre, 2013; Delgado, 2015 eta Baringo, 2013):

- **Praktika espaziala:** Hautemandako espazioari egiten dio erreferentzia. Eguneroko bizitzan egindakoa barne biltzen du kategoria honek, gizabanako bakoitzak espazio eta denbora jakin batean egiten dituen ekintzak, interakzio dialektikoak, hain zuzen. Hiri bateko testuingurua hartuta, adibide gisa biztanle batek kaleetan zehar egiten duen ibilbidea izango genuke. Praktiken bitartez espazioak berezi eta hauetatik abiatuta espazio sozialak sortuko dira eta autorearen esanetan, gizarte bateko praktika espaziala bere espazioa deszifratzean aurkitzen da (Lefebvre, 2013: 97).
- **Espazioaren errepresentazioak:** Bigarren kontzeptu hau sortutako espazioari dagokio. Ekoizpen botereek ordena ezartzeko erabiltzen dituzten kode, ezagutza eta zeinu bitarteko harremanak kokatuko dira bertan. Era berean, teknokrata, urbanista edo zientzialarien espazioa litzateke hau, garaiko botere harreman eta ideologia dominantearen isla. Espazio dominantea da eta garaiko ekoizpen harremanen arabera ordena ezartzeko gaitasuna izatearekin batera, hauteman eta bizitako espazioen gain hegemonia bat ezarri nahi du.
- **Errepresentaziozko espazioak:** Hirugarren eta azken kontzeptu honek bizitako espazioari egiten dio erreferentzia. Honek espazio fisikoko objektuak esanahi, iruditeria eta sinboloz beteko lituzke. Espazio fisikoaz haratago, pertsonak bertan diren objektu sinbolikoen erabilera egingo dute, honek zeinu ez berbal eta sinboloen sistema bat dakarrela. Biztanle eta erabiltzaileen espazioa den era berean, artista, idazle edota filosofoen espazioa ere bada, giza iruditeriaren bitartez hau aldatzeko nahia izanik.

Bestetik, historian zehar izandako ekoizpen forma ezberdinen ibilbidea hiru fase ezberdinetan bilduko da: espazio absolutua, historikoa eta abstraktua. David Baringo (2013) hiri soziologiako irakasle eta ikertzaile denak, zinez erabilgarri egin zaigun artikulu batean, Lefebvrearen espazioaren ekoizpenaren inguruko lan teorikoa biltzen du, tartean, maila diakroniko honetan kokatuko liratekeen espazioen hiru etapa ezberdinak bilduz.

Aipamen hau eginik, lehen etapa. espazio absolutua, giza eragina iritsi eta natura bere egin aurrekoa da, eta hortik aurrera historiko bilakatuko litzateke hau. Etapa honen hastapenetan giza eragina intentsitate gutxikoa da eta batik bat bizi-irauteko beharrezkoak diren elikagaiak eskuratzeko lanetan oinarritzen da. Ekintza hauek sineste erlijiosoen bitartez naturari balio sinboliko eta politiko bat emango diote, ingurua moldatuz eta sinesmen hauek aurrera eramateko, gurtze eraikinak, errepresentaziozko espazioaren euskarri izatera iritsiko dira.

Espazio historikoari erreparatzen badiogu aldiz, Grezia eta Erromako hiri klasikoetatik hasi eta errenazimenduarekin batera lehen hiri-estatuak sortu bitarteko prozesuari aipamena egin beharko genioke. Espazioa politikoki antolatzen hastearekin batera landa eremua kontrolatu eta kapitalismo aurreko hiriek metaketarako oinarriak ahalbidetuko dituzte. Historikotzat dugun espazio hau ez litzateke guztiz desagertuko, errepresentaziozko espazioa osatzen duten sinbolismo guztien gain pisu handia baitu, baina aldi berean, denboraren igaroaren menpeko da.

Hirugarren espazioa, espazio abstraktua, fase kapitalistaren espazio gorena litzateke. Kapital metaketarako aproposa den eta produkzio eta erreprodukzio prozesuak bereiztearekin, espazioak erabilera zehatz bat hartuko du, espazioaren errepresentazio bezala ulertzen diren boterea eta urbanismotzat hartzen den ideologia berria klase dominaziorako tresna aproposa izanik. Gainera, zenbait autoreren esanetan (Gregory, 1994; Merrifield, 2006: 111; hemen aipatua: Baringo, 2013: 128), Lefebvrek Marxek erabilera balioa sortzen duen lan konkretu eta aldaketa balioa sortzen duen lan abstraktua termino espazialekara eraman nahi izango ditu.

Lan diskografikoa askotan musika zuzeneko emanaldi edo ikuskizunetara eramateko aitzakia izanik, ondorengo esaldi honek ikuskizunaren dimentsioa espazioaren analisisian kokatzeko aukera eman diezaguke:

“Dominados por las representaciones del espacio y por los modelos conceptuales, el espacio abstracto ejemplifica la famosa proclama del asociado de Lefebvre, Guy Debord (1971), en su “La société du spectacle”, cuando señala que “todo lo que en su día fue vivido, se ha convertido en mera representación”. Dicho en otras palabras, el espacio abstracto, característico de la ciudad capitalista según Lefebvre, está excesivamente mediatizado por las representaciones del espacio, pero insuficientemente permeado por los espacios de representación y la práctica espacial” (Baringo, 2013: 128).

Lefebvre analisi sozialera mugatu ez ezik, errealitate soziala aldatzeko proposamen sendo batekin azaldu izan da lan honetan zehar eta espazio abstraktuak dakarren sistema kapitalista gainditzeko asmoz, eraldaketarako espazioari bere tartea eskainiko dio. Transdukzio espazio hau espazio diferentzial bezala ulertuko du, eta hiri kapitalistak dakarren espazio abstraktuaren aurka izango genuke. Espazio abstraktuak dakartzan kontraesanen eraginez sortuko litzateke hau, honek dakarren homogeneotasunaren aurrean, aniztasuna gailenduz.

“De tal modo que el espacio abstracto, a pesar de su negatividad (o más bien precisamente en razón de esa negatividad) engendra un nuevo espacio que portara el nombre de «espacio diferencial». La razón por la cual podemos llamarlo así estriba en que el espacio abstracto tiende hacia la homogeneidad, reduce las diferencias o particularidades existentes mientras que el nuevo espacio no puede surgir (o producirse) sino acentuando las diferencias. Lo que ese espacio abstracto separa resulta unido en virtud del nuevo espacio diferencial: las funciones, los elementos y momentos de la práctica social” (Lefebvre, 2013: 110-111).

Henri Lefebvre autoreak landutako espazioaren ekoizpenerako erabilgarri egingo zaizkigun kategoria analitiko hauek ezagututa, diskoaren ekoizpena gauzatu den espazio horretan hurbiltzeko oinarri aproposak ditugula esan daiteke.

Batetik, diskoaren tematikak espazio jakin batzuetako iruditeria, bizitako esperientzien gainean idatzitako kezkak edota sinbolismoak aurkezten dizkigu. Proposamen artistiko baten bitartez biltzen da hau, eta ezlekuen espazio fisikoak hartzen duten esanahi guztiarekin batera, ziurrenik ezlekuen inguruko gogoeta piztu eta giza iruditeria aldatzeko proposamen bat ere bada. Bestetik, estudioko lanean espazioarekin jolasean sortutako

soinuek, musikari dimentsio ezberdinak eman diezaizkiokete. Hau honela, distantzia ezberdinetan grabatutako soinuak, gela bereko erreberberazioak, intentsitate eta dinamika ezberdinak... biltzen ditu diskoak. Espazioan egindako praktika espazial hauek espazioarekin harreman bat ekarriko luke, eta ezlekuen ikuskera ezkorra bada ere, grabaketa espazioa ezingo dugu ohiko leku antropologiko soil gisa ulertu. Leku gisa ezaugarri ugari izan ditzakeen arren, honelako gune batean badira gailu elektronikoa, analogikoa eta instrumentuekiko loturak, eta beraz, leku antropologikoari loturiko giza harremanen dimentsioaz harago joatea interesgarria litzateke.

Hau honela bada, azterketari ekiteko interesgarria zaigu diskoko tematika eta estudioan ekoiztutako lan musikala espazioaren teoria honekin bat ote datorren ikertzea. Lan artistikoak osatzen duen dimentsio sinbolikoa (edo sinbolikoa baino diskurtsiboa?) eta dimentsio materiala bat ote datozen ezagutzeko harremanetan dauden espazioaren kategoria hauen erabilpenak espazioaren ekoizpenaren inguruko teoriaren erabilera justifikatuko luke. Espazioaz ari den lan honetan, soinu-estudioko espazio jakin baten erabilpena egiten da, eta teoria honek diskoan espazioaren erabilerari dagokion alderdi praktikoa (musika eta honen grabaketa) eta bizitako espaziotik abiatutako sinbolismoa diskoko hitzetan islatzen ote denaren kezka piztu zaigu.

Gainera, Michel Lussault geografo frantsesaren ekarpenak gehituz (2015), espazioan kokatzen diren objektuek ezingo dute eremu bera aldi berean okupatu, eta hortaz distanteak izango dira. Objektuen kokapenez harago, funtzionamendu eta estrategia espazialak ditugu, eta elementu bakoitzaren kokapena besteekiko harremanen arabera ulertuko genuke. Musikaren egiterako garaian, distanteak diren elementuak baditugu ere, espazio guztietan bezala, badira distantzia hauen konexioak. Baina zer gertatuko litzateke espazioaren ekoizpenen eta erabileran diren elementu ez gizatiarrak soziala den egitate honetan txertatuko bagenu?

Hau esanda, ikergaldera gisa ondorengo hauek formula genitzake:

Espazioaz esaten dena eta espazioarekin/espazioaz egiten dena bat datoz Lisabören *Ezlekuak* lanean?

Nola ulertuko genituzke gizatiarrak ez diren instrumentu, anplifikagailu eta grabaketa gelak analisi sozialaren baitan?

HELBURUAK

Lan honen asmoa ezlekuak termino soziologiko-antropologikoaren inguruan ari den obra artistiko bat aztertzea da, Lisabö talderaren *ezlekuak* diskoa bera gure ikerketa objektu izanik. Hau honela, gure behaketa unitatea disko hau sortu, ekoitzi eta plazaratzen den prozesura mugatzen da. Bertan parte-hartzen duten kideek sormen honetan aurrera eramanean zitu zirela zeregin horietan zentratuko da lan hau, eta bereziki espazioaren aldagaia izango dugu kontuan.

Teorian definitu bezala, harremanak zaildu, identitaterik eta historiarik ez dituzten anonimatazko espazioei izena ematen dien ezleku kontzeptuak diskoari ere izena ematen dio. Hau da lanean zehar espazioari enfasi berezi bat ematearen arrazoia, espazio zehatz batzuen inguruan ari baita diskoa.

Azken emaitza bezala, musikak eta ezlekuak ardatz dituzten disko bakar bat iristen da publikora, baina tartean izandako prozesu osoa da guri interesatzen zaiguna. Hortaz, lan honetan musikak eta hitzek jendartean duten eragina baino, hauek nondik abiatzen diren izango da gure intereskoa. Diskoa espazio batzuen inguruan ari da, ezlekuen inguruan, baina era berean, diskoa sortzeak espazioaren erabilera bat dakar. Diskoaren dimentsio espazial ezberdinak topatzeko asmoz, *ezlekuak* diskoan espazioaz esaten dena, eta espazioan egiten denaren inguruan hausnartzea da lan honen helburu nagusia. Hau honela, ezlekuen inguruan ari diren hitzak eta musika erregistraturik geratu den gelaren erabileraren artean zer motako lotura dagoen hausnartzea da asmoa. Funtsean, lan musikalean espazioaz diren dimentsio diskurtsibo, sinboliko eta materialak alderatzeko aukera izango dugu.

Gai honekiko interesa disko hau entzun eta zenbait unetan espazio entzuten denaren sentsazioetik abiatzen da. Hitzen bitartez adierazten dena eta soinuak iradokitzen duena bat ote datozen ulertu nahian, letren bitartez espazioaren inguruan esandakoa eta musika egiteko garaian egiten den espazioaren erabileraren arteko loturan sakontzea da gure helburu nagusia. Hortaz, diskoko alderdi lirikoak eta musikala espazioaren esangura eta erabileran non kokatzen diren aztertuko dugu lan honetan.

Helburu nagusi hau argitzeko, hitzak idatzi eta musika sortzen den prozesua ezagutu beharko dugu, baita ere bien artean sortzen den hartu-emanen hausnartu. Horretarako, beharrezkoak izango ditugu sormenaz gain, letragile eta musikarien artean den harremana, lan egiteko modua, proposamen artistikoa eta ekoizpenean erabiltzen diren teknikak ezagutzea.

Espazioaz den ulerkera, honen erabilera eta azkenik hau ezlekuen inguruko diskoan nola islatzen den zehaztea izango da lan honen asmoa.

Era berean, musika egiterako garaian eta hortaz, espazioaren erabileran, musikariek gain, hainbat elementu hartzen dute parte. Instrumentu, amplifikagailu, mikrofonía edota grabaketa burutzen den gelako dimentsioak ezinbesteko elementuak dira musika garaikidea egiterako garian. Hau honela, espazioan egiten den erabilera horren baitan, musikariek batera, gizatiarrak ez diren bestelako aktoreak analisi sozialean txertatu eta hauek Lisabören musikan duten agentzia gaitasunean sakontzea da asmoa.

Hitz gutxitan, espazioaren inguruko arlo ezberdinak nola ekoizten eta zerk ekoizten dituen ikertuko dugu.

METODOLOGIA

Ikerketa honen helburua disko baten analisi soziologiko bat egitea den honetan, lan artistikoan espazioaren inguruan esaten eta egiten denaren arteko talka ikertzea da asmoa. Espazioaren inguruko diskurtsoak eta espazioan egindako praktikek dimentsio ezberdinak dituztela agerikoa den zerbait izan daiteke, eta hau honela, ikuskera epistemologiko ezberdinak erabiliko dira lan honetan. Ezagutza sortu eta errealitatea ulertzeko eran talkak izan daitezkeen arren, probestuko ditugun bi ikuspegiek espazioaren inguruko alor diskurtsibo, sinboliko eta praktikoenera eramango gaituztelakoan gaude. Hau honela, ikuspegi estrukturalen kokatuko genituzkeen metodoak erabilgarri egingo zaizkigun bezala, Sare Aktore Teoriaren aterkipean eginiko azterketak helburuak lotzeko osagarriak diren tresnak eskainiko dizkigu.

Ikuspegi estrukturala baino ezezagunagoa zaigun proposamen honek, soziala homogeneoa den errealitate gisa ulertu baino, elementuen artean diren asoziazio heterogeneoak hartuko lituzke kontuan. Ekarpen hauetatik gertu kokatzen diren proposamenek ohiko soziologiak soziala dena askotan errealitate egonkor gisa ulertu duela salatzen du eta soziala den hori definitu eta ordenatzea aktoreei utzi beharko geniekeen auzia litzateke. Hau honela, marko egonkor bat erabili baino, harreman esanguratsuagoak eskuratuko genituzke aldakorak diren konexioak aztertuz. Gainera, gizatiarrak ez diren aktoreak kontuan hartuko ditu proposamen honek, gure kasuan musika egiterako garaian erabiltzen diren objektuen agentzia aztertzeko erabilgarri izanik. Hortaz, maila diskurtsiboko helburuei begira, ikuspegi estrukturala aplikatuko da, eta musikaren inguruan den maila praktikoena aldiz, artekaritzaren ikuspegi batekin landuko da.

Espazioaren inguruan den ulerkerari begira, bi ikuspegietako lehena erabiliko dugu, esaten den horren inguruko diskurtsoa metodo kualitatiboaren bidez aztertuz, hain zuzen. Espazioaren erabilera eta diskoan zehar eginikoari berriz, soziologia pragmatiko batekin erantzungo diogu, mediazio edo artekaritza metodoaren bitartez. Mediazio edo artekaritza metodo gisa erabiliz, soziologo gisa ezingo genuke aktorea ordeztu, horrela egitekotan, errealitatea eraikuntza ez litzateke modu objektiboan egingo. Artekari bezala, gu ere presente egon beharko gineteke, behatzen dugun horren maila berean, eta horretarako, etnometodologia aproposa litzateke.

Beste era batera esanda, *ezelekuak* diskoko hitzak metodo kualitatiboaren bitartez, eta musika eta ekoizpena artekaritza metodoaren bidez landuko dira.

Hau esanda, lan honetan erabiliko ditugun teknikak diskurtso analisia, elkarrizketa irekiak eta ikus-entzunezko etnografiak izango dira.

Batetik, diskoko hitzetan esandakoan sakontzeko, diskoari dagokion alor lirikoaren diskurtso analisi bat egingo dugu. Letra hauek diskoan bertan aurkitzen dira, abestiei hitzak jartzen dizkieten berak baitira eta hortaz, bigarren mailako datu bezala hartu ditzakegu. Hitzen gainean egindako diskurtso analisiaren bitartez, lan artistikoan

espazioaz esaten dena eta honen ulerkera ikertuko da. Honekin batera, lehen mailakoak diren datuak ere ekoitziko ditugu. Diskoaren sorkuntzan aritutako bi kideri egindako elkarrizketa irekien bitartez, espazioaren eta ezlekuen inguruan den iruditeria ezagutzea da asmoa.

Bestetik, ikus-entzunezko etnografiaren baitan, diskoan gertatzen den eta taldeak espazioan egiten duen horretara gerturatuko ginateke. Ikus-entzunezko etnografiaren baitan, diskoaren entzunaldiak, topatutako irudi eta bideoak eta 2019. urtean zehar ikusiriko bi kontzertu izango genituzke. Aipatzekoa da Covid-19 koronabirus berriak eraginiko pandemiak aurrez aurreko etnografia mugatu egin duela, estudioko lan erritmo eta taldearen zuzeneko berririk behatzeko aukerarik gabe. Hala ere, osasun krisiaren bete betean aurrez aurreko etnografia baztertuta, elkarrizketa irekiaren bitartez eskuratutako informazioak diskoaren ekoizpen eta jotzeko eraren argibideak eskainiko dizkigu. Eta teknika kualitatibo bidez eskuratutako datu gisa hartu daitezkeen bezala, ikus-entzunezko etnografia argitzeko osagarria izango da kontaketa hau.

Ikuspegi estrukturalaren ondotik datorren metodo kualitatiboaren baitako diskurtso analisi eta elkarrizketa irekiak eta Sare Aktore Teorian oinarriturik, artekaritzaren metodoaren bitartez eginiko ikus-entzunezko etnografiak izango dira lan honen helburuetara iristeko euskarriak.

Aukeratutako metodo eta teknikak azalduta, hauen justifikazioari ekingo diogu. Batetik, diskoan zehar esandakoa hitzetan jasotzen denez, metodo kualitatiboaren baitan hitz hauen diskurtso analisia burutzeak ezlekuen inguruan adierazitakoa barneratzeke tresna egokiak eskainiko dizkigu. Diskoan ezlekuetan inguruan esaten dena, eta hortik abiatuta honek osatzen duen diskurtsoa aztertzeke *ezlekuak* laneko hitzak ditugu. Hitz hauen azterketa soziologikoak diskoan egiten den espazioaren ulerkerara hurbilduko gaitu, baina hitzetara mugatu baino, guk hauen inguruan eginiko irakurketa autore berarekin kontrastatzeko aukera izango dugu, eta hau elkarrizketa ireki bitartez egingo da. Hau honela, ikuspegi estrukturalak ezlekuen inguruan esandakoa eta espazio honen ulerkera aztertzeke aproposak lirateke.

Hala ere, elkarrizketen helburua ez da soilik espazioaren inguruan diren iruditegiak jasotzea, lan egiteko, musika bizi, jotzeko eta ekoizteko edota poesia sortzeko moduen kontaktak bilduko baitira. Era honetan, bi ikuspegi osagarritasuna agerian geratuko litzateke, elkarrizketek espazioaz esaten dena eta honek dakarren diskurtsoa biltzearekin batera, diskoa sortzeko eran egiten den espazioaren erabileraren inguruan aritzeko aukera emango baitute.

Hau honela, esan daiteke, hitzen diskurtso analisia eta etnografia bi ikuspegi bereizten dituztela. Baina elkarrizketen kasuan, diskurtso bat jasotzen den bezala, praktikak eta lan egiteko erak kontatuko dizkigute elkarrizketatuek, hau etnografia argitzeko erabilgarri izanik. Bi ikuspegi bereizketak, funtsean diskoaren inguruan diren bi eremuetan sakondu nahi izango du. Espazioaz esaten dena ikuspegi estrukturalaren bitartez aztertzea eta espazioan edo espazioaz egiten dena Sare Aktoreen Teoriak eskainitako baliabideen bidez arakatuko da, gerora bi arloen artean den tentsioa ulertu nahian. Azken batean, lengoailaren bitartez adierazitakoa ulertzeko metodo kualitatiboa erabiltzea bide egokitzat hartu dugun era berean, musika egiterako garaian tramankulu ezberdinen erabilerak garrantzia handia duela kontuan hartuta, artekaritza metodoa onetsi dugu. Gainera, musikaren inguruan dena baino, musika bera aztertzea da asmoa eta beraz,

prozesu honetan gizatiarrak ez diren instrumentu eta anplifikagailuen erabileran sakontzeko, Sare Aktoreen Teoriatik abiatutako analisi bat litzateke egokiena.

Diseinu teknikoari erreparatuz, aztertu nahi den kasu zehatza ezlekuak diskoa denez, lan honen ekoizpenean izandako kideak eta diskoa bera izango dira gure erreferentziazko gune sozial eta euskarri etnografiko nagusia.

Diskoan zehar ezlekuen inguruan esaten dena aztertzeko diskoko hitzak erabili diren bezala, elkarrizketetako bat disko honetako hitzen arduradun izandako Martxel Mariskal idazle eta soziologoari egin zaio, ezlekuen inguruan idatzitakoaz den ulerkera ikuspegi poetiko zein soziologikoa ezagutu nahian. Taldearen biografian aipatu bezala, Martxelek urteak daramatza Lisabö taldearekin elkarlanean hitzak idazten. Aipatzekoa da taldeko letragile den bezala, soziologoa ere badela, honek dakarren meta-elkarrizketa soziologiko baterako aukerarekin.

Bigarren elkarrizketa Lisaböko Karlos Osinagarekin egin da, taldeko musikari izateaz gain (gitarra eta ahotsa) disko honen soinua teknikari eta ekoizpenaren arduraduna izandakoari. Diskoa ekoizten den espazioaren ulerkerarekin batera, honen erabilerak soinuan hartzen duen garrantzia, taldeak instrumentuekin duen harremana eta taldearen bestelako jardunak izango dira bigarren solasaldi honen ardatzak.

Bi profil ezberdin hauek diskoari dagozkion lanari bideratuta daude. Gauzak horrela, bata espazioaren inguruko hitz eta esaten den horri bideratuta dagoen bezala, bigarren profila musika eta ekoizpenaren bitartez egiten den espazioaren erabilerari zuzenduko zaio. Honela, diskoa osatzen duten lan poetiko eta musikalaren ordezkari bana dugu, biek sorkuntza prozesuan ardura ezberdinak bete zituztela. Gainera, elkarrizketak burutu aurretik diskoko hitzen gaineko diskurtso analisia burutu da.

Aldagai gisa hartu daitezkeen hitzek zein musika eta honen ekoizpenak elkarrizketa bana izango dute, diskoan arduradun izan ziren protagonista horiekin adierazgarritasun estrukturala eskuratu nahian. Diskoko hitzen aldagaia kontuan izanik, soziologikoki eta poetikoki esaten denaren arteko taldak izango ditugu kontuan. Musika eta honen ekoizpenaren kasuan berriz, estudioko gelaren erabilera, musikariek instrumentuarekiko-anplifikagailuarekiko duten kokapen zein harremana eta artistikoki erabili daitezkeen distantziamendu teknikak izango dira bigarren aldagai honen kategoriak. Elkarrizketetako profilak definitzeko bi aldagai hauek erabilgarri izan diren bezala, erabilitako beste bi tekniketara hauen garrantzia aipatzekoa da. Hau honela, diskurtso analisia hitzen aldagaiari bideratuta dago eta ikus-entzunezko etnografia ordea, musika eta honen ekoizpenean oinarrituko da.

Kontaktazioa lan honen zuzendari den Iñaki Martinez de Albeniz tutorearen bidez erraztu da, aurrez talde honetako kideak ezagutu eta lan honen proposamena luzatuaz. Gerora, e-mail eta telefono bitartezko komunikazioa mantendu da. Testuinguruak behartuta, online bidezko bideo-dei bitartez egin dira elkarrizketak, norbera bere etxean zela, 2020ko apirila eta maiatza bitartean. Elkarrizketak audio bitartez grabatu eta ondoren transkribatu egin dira.

Elkarrizketa irekiak izan badira ere, aurrez prestatuturiko gidoiek solasaldiaren nondik norakoa bideratzen lagundu digute eranskinetan aurkitu daitezkeen gai-zerrendei esker.

ANALISIA

Hitzen diskurtso analisia

Lisabö taldearen *ezlekuak* (2007) diskoan espazioaz esaten dena eta espazioaz egiten dena harremandu nahi ditugun honetan, musikarekin batera lana osatzen duten hitzen diskurtsoaren analisi soziologiko baten beharra dugu. Subjektu batek praktika baten bitartez errealitateari zentzia ematea diskurtso bezala ezagutzen dugu soziologian (Ruiz, 2009: 2). Hau esanda, aipatzekoa da talde honek bere ibilbidean zehar abestien hitzetako asko taldeko musikaria ez den, baina hauekin etengabeko kolaborazioan aritu den Martxel Mariskal idazle eta soziologoaren esku utzi dituela. Aztergai dugun lan honetako hitzak ere bere esku joan ziren *ezlekuak* diskoan, eta izenak aurreratzen duen bezala, hitzak aurrez definitu ditugun espazio jakin hauen inguruan arituko zaizkigu. Baliteke diskurtso analisi hau Augéren lanaren irakurketa osteko interpretaziora mugatuta egotea, eta beraz, ukalezina da aurrez landutako teoriak analisi honetan eragina ez duenik. Baina era berean, badira beste era batera identifikatuko ez genituzkeen edukiak.

Jorge Ruiz-ek (2009) diskurtsoaren analisi soziologikorako proposatzen dituen analisi mailak kontuan izango bagenu, hiru bereiziko genituzke: testuinguruaren analisia, analisi testuala eta analisi soziologikoa. Lehena, diskurtsoa sortu, zentzia hartzen duen eremu eta honen ekoizpenean esku hartzen duen horren inguruan kokatuko litzateke. Bigarrenak, diskurtsoa objektu bezala hartuko luke, honek biltzen dituen edukiak egituratu eta agerikoak ez diren esanahiak semiotikaren bidez ikusaraziz. Analisi soziologikoarekin berriz, diskurtsoa plano soziologiko batean kokatzen da, ideologia edo produktu sozialaren dimentsioa aintzat hartuz.

Ohiko transkribapenetik aldentzen diren disko bateko hitzak ditugunez, aipatzekoa da testuinguru analisi mugatu batekin aurkitu garela. Izan ere, hitz hauek poeta eta soziologoa den idazle batek musika lan baterako eginikoak dira, bakarka eta elkarrizketa baten testuingurutik at idatzitakoak. Ez dugu subjektu ezberdinen arteko elkarrizketarik topatuko, eta diskurtso bakar bat dugunez, ez da posizio ezberdinen arteko talkarik izango. Hau honela, diskurtsoa abiatzen den kokapena nahiko zehatza da, analisi situazionala disko baterako hitzak egiten dituen idazle batetik abiatzen baita. Gainera, bere kokapenarekin batera, soziologo bezala dituen ezagutzak bere diskurtsoa osatzeko erabilgarriak izango dira. Honetarako, arlo akademikoan garatutako edukiak erabiliko ditu idazleak, berak jada landuta dituen teoria eta diskurtsoak bere hitzetan baliatuz. Nolabait, Marc Augé ezlekuen inguruan egiten duen teorizazio eta irakurketa ezkorra diskoko hitzetan agerian da. Hau, Ruizek brikolaje diskurtsibo moduan (Ruiz, 2009: 15) analisi intertestualaren baitan kokatzen duen ezaugarri gisa ulertu dezakegu, ukalezina baita beste diskurtsoetatik hartutako osagaiak biltzen ez dituenik.

Bestetik, hitzek monologo eta diskurtso bakar bat osatzen badute ere, berarena ez den diskurtsoarekin solasteko gonbita luzatzen da, ezlekuetan egiten diren praktika jakinekin desadostasuna erakutsiaz. Baliteke entzuleak erantzun beharreko, edo idazleak hitzen bitartez sortutako mundu imaginarioan kokatzen den norbaiten bitartez kontrajarria den diskurtso bati erreferentzia egitea. Hala dio Aukera Ankerrak abestian:

“Esan, zer dela ta jarraitzen duzu hor, ez bada hori zure lekua?”

Diskurtsoen arteko kontraste edo adostasun hauek bilatzeko, testuinguruaren analisiaren baitan, analisi konparatiboa erabili ohi da.

Análisis de tipo comparativo: el sentido del discurso está referido a otros discursos con los que dialoga, ya sea explícita o implícitamente. Se trata de preguntar "a cada fragmento de un discurso analizado sobre sus presuposiciones, con qué otro discurso se encuentra dialogando y, por tanto, con qué otro discurso o discursos se encuentra en una relación asociativa o conflictiva" (Alonso eta Callejo, 1999: 49; hemen aipatua: Ruiz, 2009)

Esaldi honen bitartez, idazleak duen bestelako diskurtso bat agerian utzi nahi da, inplizituki diskurtsoen arteko talkarik ez badago ere. Konziente da badirela bere diskurtsoaz kanpo diren kokapenak, eta lanean zehar besteei zuzendutakoak esaldiak badira.

Beraz, hitz hauek soziologo eta idazle den pertsona batetik abiatuak direla esango dugu, disko baterako egindako lan lirikoan kokatzen dira eta termino soziologiko-antropologikoak landu dituztenen horien ideiak bere diskurtsoan islatzen direla esan daiteke. Pentsa daiteke soziologo eta idazle posiziotik abiatutako hitzak izateaz gain, anonimatozko espazioetan bizitako esperientzietatik abiatutako hitzak izan daitezkeela. Esperientzia edo fikziozko gertakizun hauek, balorazio bat dakarte erosoak, egokia edo egin beharrekoa zehaztuz eta aurkakoa ikusaraziz. Hitz hauek ezlekuak desoresoak eta arrotzak direla iradokitzen digute, horregatik diogu espazio hauen inguruko ikuskera ezkorra duela idazleak.

Behin testuinguruaren analisi labur bat egin ostean, aipatzekoa da gure helburuei begira, diskurtsoaren azalpen soziologikoan jarriko dugula enfasi nagusia, hitzei dagokien atal honetan espazioari buruz den iruditeria ulertzeko asmoz. Diskoko hitzek dakarten proposamen ideologikoa ez ezik, adierazi nahi den hori zein modutan egiten den aztertzeak, hizkuntzaren erabileran agerikoak ez diren mezuak ulertzea ekarriko luke. Edukiak berak ere garrantzia hartuko du lan honetan, eta hau komunikatzeko erabiltzen diren formek diskurtsoaren alor ideologikoetara eramango gaituzte. Eduki analisiari erreparatuz gero, disko monografiko bat izanik, aztergai dugun lan honetako tematika beretsu eta orokorra izango da. Hala ere, espazio ezberdinetan bizitako egoerak eta sentrazioak islatzen dira bertan, espazioaren dimentsioak garrantzia duen bezala, denborak eta honen erabilera jakinak lan osoan zehar presentzia du. Bestetik, analisi semiotikoak esandako horren barne logika eta enuntziatio maila ezagutzen lagunduko digu, adierazpen moduek diskurtsoaren oinarriak ezagutzeko beharrezkoa den hizkeraren erabilera aztertuz.

Poesia hauek, testuinguru hiritar batean kokatzen diren espazio ezberdinetan bizitako esperientzia pertsonalak kontatzen dituzte. Hiritarrak direla diogun arren, gehienetan

erdigunetik urrun kokatzen diren lekuetako bizipenak dira, leku galdu eta urrutian kokatzen diren espazioak. Abesti bakoitzeko hitzek, ezlekuen ezaugarriak dituzten espazio ezberdinei egiten diete erreferentzia, baina espazio ezberdinak baditugu ere, badira ezaugarri komunak.

Partekatuak diren ezaugarri horietako hainbat, denbora ulertzeko era eta honen erabileraren inguruan ari dira. Autoen behin eta berrizko igaroa, atsedetik eza, itxaronaldiak, gaua eta eguna bereizteko zailtasunak edota etenik ez duen erritmo urbanoak denboraren jarraikortasun eta geldiezinkortasunaren ideia bainan kokatu ditugu. Gertaerak errepikatu egiten dira denboran zehar, ospitaleko jaiotzak edo autopistako zirkulazioa geldiezinak diren eta jarraikortasunez gertatzen diren prozesuak ditugu, eta gertaeren errepikatze eta pilaketa honen ondorioak agerian uzten direla esan daiteke. Atsedetik hartzen ez duen erritmo honek ez dio gertaera hauen protagonistei garrantzirik emango, bat gehiago dira, ohikoa den erritmoa osatu eta funtzionamendua ahalbidetzen dutenak.

Ospitalean, jaiotza bat esaterako, egunerokotasunaren parte da, despertsonifikatua den ohiko jardura bat, eta honela dio Aukera Ankerrak abestiak jaiotza baten ondoko testuinguruan:

“Dataren beharrik ez edonor zinela, dataren beharrik ez edonor zarela”

Denbora ulertzeko eran talka bat bada, ospitalearentzat behin eta berriz, etengabean gertatzen den jaiotzak instante honi garrantzirik ematen ez badio ere, norbera eta bere inguruarentzat instante bera hori data gogoangarri eta ospakizunerako aitzakia izan daiteke. Etengabeko funtzionamenduan dagoen ospitaleak ez du data konkretu baten beharrik, denborak ez baitu etenik eta orainaldiak ez du iraganeko edo etorkizunekoak baino balio gehiagorik, erritmoaren parte baita. Akaso, dataren garrantzi bakarra erregistro eta etorkizuneko identifikaziorako izango da. Jaiotza izan daitekeen bezala, atsedetik hartu eta ostaturatuak gauden hotel azpian izandako auto istripua izan daiteke, errepideko egunerokotasunaren parte den gertakizun anonimoa.

Beste zenbait esaldien bitartez ere, denbora bizi eta ulertzeko ikuskera jakin bat adierazten zaigula esan genezake. Jarraian ditugun bi esaldietan adibidez, bizipenak jazotzen diren espaziotan denbora igarotzeak konnotazio negatibo bat hartuko du:

“Zer dela eta jarraitzen duzu hor?” (Aukerak Ankerrak) ; “Ezlekuak oraindik, orain.” (Nekearen teoria)

Oraindik bezalako denbora adberbioek, ezlekuan emandako unea luze egiten dela adierazten dute, ahalik eta azkarren espazioak sortzen duen deserosotasunetik alde egiteko nahia adierazten dela interpretatu dezakegu. Bestetik, espazio hauek batere atseginak ez direla, beldurra, ziurtasun eza eta denboraren kontrol galera dakartela aipatzen dira lanean zehar eta honek ezlekuan jarraitzen duen horrekiko kezka adierazten du aurreko galdera horren bitartez. Jarraitzen aditzaren bidez, behar beste baina denbora gehiago igarotzen ari dela adierazi nahi da, eta espaziotan denbora igarotzeak konnotazio negatiboa duela esan daiteke. Denborari erreferentzia egiten dioten hitzekin jarraituz, “azkar sendatu” edo “azkarregi” bezalako hitzek abiadura eta etenik eza iradokitzen

dizkigute. Baina ez hori bakarrik, azkarregi hitzak erritmoaren inguruko esangura garrantzitsu bat du, gehiegizkoa dela adierazten da.

“Ortzia gurutzatzen ta billeteak hamarnaka irensten. Denbora gure jabe dela garrasika, ta hala espazioa, edozein urte-sasoietan” (Sekula etxean izan ez)

Espazioan zehar ematen diren desplazamenduek, denbora antolatzeko dugun markoa hankaz gora jarri dezakela erakuts diezaguke. Hegazkin bat hartu, zerua zeharkatu eta beste lurralde batean urteko sasoi ezberdin batean lurreratzeak, espazio batetik bestera mugitzea ez ezik, denbora menperatu dezake. Baina gu denboraren jabe izan baino, denbora gure jabe denaren aldarrak presentzia handia du lanean zehar. Egoera hauekiko beldurra, bertigoa eta deserosotasunetik gertu dauden bizipenak ditugu, baina, autoreak erritmo bizi honetan barne irrika garbitzen dela dio aldi berean. Deseroso sentitu, baina bizipenen pilaketa etengabe eta azkarrak bete egiten gaituela dio aldi berean, nolabait gure nahiak menpekoak direla adieraziaz.

Edukiaz gain, diskoko hitzetan metaforen garrantzia aipatzekoa da. Adierazi nahi den hori aurrera eramateko hitzen desplazamendu bat ematen da esaldi askotan, eta hau honela, analisi semiotiko baten beharra ere badugu. Metaforak ez ezik, pertsona gramatikalaren erabilera, aditz formak eta jarrerak adierazten dituzten moduak identifikatzea erabilgarri egingo zaigu. Metaforek bere baitan fikziozko eta errealitateko terminoak uztartzen dituzte, eta batak bestea ordeztzen duela esan daiteke.

Atsedetik hartzen ez duen hori irudikatu nahian esaterako, sonanbulu hitza ageri zaigu. Batetik, atsedetik hartzeko unean mugimenduan eta aktibo dagoen pertsona bat izango genuke, baina bestetik, aktibo egotearen jarraikortasun horretan bere buruaren jabe ez den pertsona lokartua da sonanbulua. Aurkezten zaigun egun eta gauaren arteko muga lauso honetan, denbora luzatu, oheratu nahi ez eta giltzaperatuak diren pertsonak ere aipatzen dira, eta noski, pertsona hauek ez dira ohiko ziega batean aurkitzen. Denbora gure jabe denaren ideia lan osoan aurkitu daitekeen zerbait da. Gainera, bi metafora hauek hiritarren denbora dependentzia islatu dezaketen bezala, alienatuak dauden pertsonen ezaugarriak biltzen dituela esan daiteke. Sonanbulua, lo ez dagoen automata bat izan zitekeen, eta oheratu nahi ez duen giltzaperatua berriz, denbora eskasia erritmoari gainjartzean sorturiko lo falta. Bestalde, distantzia askotan espazioa neurtzeko irizpide gisa erabiltzen bada ere, 1215. katean abestian distantzia denbora mugatzeko erabiltzen dela ikus dezakegu. Denbora forma espazial batean adierazi ez ezik, bizitzako azken pasartearen kontaketa hotz bat egiten da, bakardadean eta ospitaleko pantaila baten aurrean.

“Bizirik darraien distantzia heriotza da”

Gertakizun hauetako asko leku batetik besterako desplazamenduan ematen dira, garraio bide ezberdinen bitartez bidaiatuz. Autopista gaineko zubia, pasaporte argazkiak eskatze bitarteko itxaronaldia, kamioien arteko unean...Horietako bat, hegazti itxura bidez ageri zaigun hegazkina da. Honela dio Aukerak, Ankerrak abestiak:

“Hegaztien tunela zeharkatu genuenean bezala, lumez betetako denbora atzean utziaz”

Espazio batetik bestera mugimenduak direnean, denbora eta bizitakoa lausotu daitekeela ikusenez, hegazkina hartu osteko urtaro aldaketak esaterako. Norberaren jatorrizko lekutik alde egin eta beste nonbaitera lekualdatzeak, hainbat lehentasun uztea dakartza. Kasu honetan, hegazkinera igo eta lumentz betetako denbora atzean uzteak, denboran zehar lurralde jakin batean bizitako gertaeren pilatzeak sortutako loturetatik urruntzea dakar. Luma horiek bizipen, historia jakin eta harremanak adierazi nahi dituela interpretatu dezakegu, atzean uzten diren senide eta herria, besteak beste.

Gainean den eta denboran zehar bizitakoaren metaketa, alde batera uzten da hegazkinera igo eta lurraldetik alde egitean. Era honetan, jatorrizko lurraldeak edo leku antropologikoak bere horretan identitate baten oinarriak izango lituzke eta agerian geratzen da espazioak eta identitateak duten lotura, autoreak aipaturiko lumetan metatu den denbora hori beti espazio baten baitan pilatzen baita. Lumaren metafora honek bidaiatu aurretik bizitakoaren pilatzea adieraziko liguke, eta hegaztiaren metaforarekin batera, bien arteko talka bat dugu. Hegazkina adierazi nahi duen hegazti horrek, lumaren bitartez adierazten den denbora uzten du bere jatorrizko espazioan. Honela, denbora hegaztiaren parte balitz bezala ageriko litzaziguke, Ramón Ramosek (2009) gorputzutako denboratzat ulertzen duen hori bezalaxe. Era honetan, subjektua bera izango genuke denbora adierazlea eta esaldia literalki ulertuko bagenu, hegaztiaren gorputzean izango genuke denbora. Gerora talka etorriko litzateke, hegaztia espazioz lekualdatu eta bere gorputzaren parte bat jatorrizko leku horretan utziaz. Metafora hau gizaki baten esperientziara itzuliko bagenu, ez luke bere gorputzaren atal konkretu bat bidaiako abiapuntuan utziko, jakina. Baina ulertu daitekeena da, hegazkinera igo eta atzean uzten duena, denboran zehar pilatutako senide, herri eta komunitate oso baten babes eta bizipenak direla. Bidaiariari sorrerako espazioak ematen dio identitatea, eta bere lurraldetasunak eskaintzen dion kokapenarekin batera, bere ondotik datozen identitate, harreman eta historia galdu egiten dira urrun kokatzen den espazio batera lekualdatzean. Hau teoriarik ondo islatzen da, espazio jakin batean emandako denbora eten egiten da, eta hortaz, jatorrizko leku honetako identitate, historia, eta harremanak ziurrenik leku aldaketarekin eten egiten dira.

Denboraren dimentsioarekin batera, hitzetan espazioaren presentziak garrantzia handia du, eta denboraren ulerkeran hainbat ezaugarri komun diren bezala, espazioarekin ere hala izango da. Mugikortasuna, joan-etorria, igarora, gertu edo urrun dagoen lekua edota espazioaren egokitasuna adierazten denean espazioaren erabilera eta ulerkera batetaz ari da idazlea. Espazioak egoteko baino, igarorako guneak dira lanean zehar, eta hau adierazten duten hainbat aipu bildu ditzakegu. Gainera, igarotzeko guneak badira, espazioarekin batera, bertan ematen den denborak zeresan handia izango du aurrez aipatu bezala, tarte labur eta etengabeak baitira. Honela, bai espazioa, eta bai denbora elkarrekin ulertu beharreko dimentsioak izango dira ezlekuetan.

“Zu ere aldagelen barnean jaiotzen zinen, edozein goiz zela, belarriak ta azala ohituaz.”
(Aukera Ankerrak)

Aldagelak, arropaz aldatzeko guneak izan ohi dira, kiroldegian edota arropa dendetan aurki daitezkeenak. Esaldi honetan duen esanahiak berriz, ez dio zuzenean arropari erreferentzia egiten, baina bai ordea gela hauek duten erabilera aldakorrari. Idazlea zuzentzen zaion horri, bere jaiotzaz ari zaion unean, aldagela batean jaiotzen baino,

etengabeko joan-etorrian eta pertsona ezberdinen igaro eta erabilera duen gune batean jaio izana gogorarazten dio. Bertatik igarotako beste haur bat besterik ez zen izan, espazio horren egunerokotasunaren parte eta jaiotza data konkretuak etengabeko funtzionamenduan lausotuta. Adibide honek espazioak duen joan etorria adierazten digu, konstantea den gertakari bat. Aldagelak, norberaren ikuspegitik eremu intimoztat jotzen ditugun bezala, pertsona askoren erabilerarako prestatuak diren espazioak dira, joan-etorri eta janztekoak ez diren aldaketetarako. Eremuaren intimotasunean geratu baino, beste edozein pertsonak duen erabilera bezala, ospitaleko gela hotz bateko igaroa azpimarratzen du honek.

Igarozko espazioen ideiarekin jarraituz, Bi minutu abestiak garraio publikoaren itxaronaldia iradoki dezakeen pasarte biltzen du, geltokian diren erabiltzaileen egoera arrotza gogora ekarriz. Gertaera hau galdutzat den leku batean aurkezten zaigu, baina era berean iraganari erreferentzia egin diezaiokeen gertaeraren bat. Urrun kokatzen den espazioz ari bazaigu ere, jada pasatako une baten gogora ekartzea historiaren aldarrikapenarekin lotu genezake, eta dakigunez, Augék garrantzia emango dio ezlekuetan jatorrizko espazio horietako pasarte historikoi egiten zaien aipuari. Ondorengo esaldi honek ondo adierazi dezake egoera hau:

“Leku galduak. Garai bateko une bat, nahiz eta jendetza arrotzari begira, gogora ekarri nahi.” (Bi minutu)

Kontraesankorra izan daiteke espazio berean historiako pasarte batek ekar dezakeen identitate kolektiboa eta aldi berean erabiltzaileak lekuz kanpo direla sentitzea partekatzea, bi minutuz bada ere. Gertaera historikoak eta ezlekuak pasarte honetan bat egin dezaketela ondoriozta daiteke esaldi horren bitartez.

Abesti berean aurki dezakegun beste hitz aipagarri bat hiri zeharrargia da. Zeharrargi izenondoa argiak objektu bat gurutzatzen duen baina bere atzean dagoen hori lausotuta ikusten den kalitate definitzeko erabili ohi da. Metafora hau hirira eramango bagenu, alde batetik bestera zeharkatu dezakegun espazio bat izango genuke, batetik bestera doan argia bezala. Baina zeharkaldi honetan ikusten dena lausoa da, hirian egon baino, igarotzearen ideia da oraingoan ere nagusitzen dena. Hiriaren atzean dagoen horren inguruko ezjakintasuna isla dezake metafora honek, espazioak duen transitorako erabilerarekin batera. Gainera, biltzen ari garen metafora guzti hauek modernitate osteko hiriaren ulerkerak kritikoa eta jakin bat eskaintzen ari zaizkigula ikus dezakegu, hitzen alor ideologikoa zehazte aldera.

Abesti berarekin jarraituz, eta lanean ohikoa den bezala, espazioaren dimentsioarekin batera, denborari eginiko aipuak anitzak dira Bi minutu abestian. Pasarte honetako bi minutuak amaitzeko desioarekin batera, abiadurarekiko menpekotasuna adierazi nahi duen egoera dugu. Aldi berean, goiz huts bati aurrean hartu nahiak denborarekiko menpekotasunarekiko den talkaren isla dezake. Espazio galdu honetan kokatzen den istorioa ulertzeko asmoz, oraingoan ere denboraren metafora sozialetara joko dugu.

“Si en el caso del tiempo-recurso el actor hace uso de su tiempo y es reconocido como un agente, en éste, en el del tiempo-entorno, el actor se encuentra con un tiempo que está ya predecido o conformado y al que sólo le cabe adecuarse, amoldarse, adaptarse. Ya no es un agente del tiempo, sino un paciente de sus

determinaciones que, dictadas con independencia de él y a modo de entorno estructurado de su acción, se imponen sobre sus deseos y limitan sus posibilidades de acción. En el marco de esta metáfora, el tiempo no es, pues, algo que se tenga, sino algo en lo que se está; una especie de molde, casillero, entorno o criba en el que la acción ha de encajar.” (Ramos, 2009: 60).

Batetik, denborarekiko dependentzia, eta bestetik, goiz bati aurre nahi hartzea izango genituzke bi minutuko tarte honetan. Denborarekiko dependentzia aitortzetik, denboraren jabe nahi izatera igarotzeak honen ulerkera ezberdinerara garamatza. Ramón Ramosen irizpideak kontuan hartuta (2009), goiz bati aurre hartzeak denbora baliabide gisa ulertzea ekarriko luke, protagonista bera ekintzaren subjektua izan eta denbora horrekin zer egin erabakitzeke autonomia izanik. Bi minutuak abiadurekiko menpe ematen direla adieraztean berriz, denbora ingurune gisa uler dezakegu. Kasu honetan, denbora protagonistatik kanpo dago, subjektu pasibo bat izanik eta denborak bere jarduna determinatuz. Bere ekintza ordutegi batek mugatu dezake, baina era berean metroa garaiz hartzea ahalbidetu diezaioke. Denboraren baitan erritmo bat dela ondoriozta dezakegu eta hau kontrajarri egingo litzateke denbora baliabide bezala ulertzeak dakarren autonomiarekin. Hau honela, denbora-ingurunearen metafora denbora-baliabideari nagusitzen zaiola ondoriozta dezakegu, bai pasarte honetan eta bai lan osoan zehar, denbora gure jabe denaren ideia askotan ageri zaigun elementu bat baita.

“Abiaduraren menpe bi minutu dira, bi minutu baino ez dira, nigandik mundu ertzera, goiz huts bati aurrea hartzen” (Bi minutu)

Testuinguru berean, pasaguneetan eskatu ohi diren pasaporte argazkien aipamena dugu, identifikazio eta identitatearen artean sortzen den talka bat. Lan osoan zehar identitatearen galera azpimarratzen den bezala, zenbait gunetan eta Augéren lanean aipatu bezala, identitate eza lotu ahal izateko, lehendabizi identifikazioa ezinbestekoa izango da. Idazleak beste abesti batean dioen bezala, nortasunak labain egiten du, baina leku batetik bestera mugitzeko identitate formal baten froga denbora gutxiren baitan aurkeztu beharra izango da.

“Zugandik ezer espero ez denean zara kasik aske” (Hazi eskukada II)

Anonimotasuna identitatea frogatu eta arriskurik ez denean lortzen den ideiarekin lotu daiteke. Idazlea zuzentzen zaio hori “aske” da anonimotasuna eskuratzean, anonimotasuna eskuratzeak mehatxu ez zarela frogatzea dakarren heinean.

Tartean hizkuntza berririk asmatzeko zailtasunak dira itxaronaldi honetan. Hizkuntzarik ez ezean erabiltzaileen arteko, harremanik ere ez da izango, denbora tarte labur honetan. Isiltasunaren ideiak duen aipamena beste abesti batzuetan identifikatu daitekeen zerbait da. Esaterako, hitz jolas bat egiten da ospitaleko erditze gela batetik igaro eta jarraian datorren pasartearekin, erditzeko ezpain, eta hizketarik ezak dakarren ezpainak jostearen ideiarekin.

Gaixo bati bisita lez, erditzeko leku bat iragaten duzu. Ezpainak josi ondoren, kartetan aritu ginen butano-kamioi hartan... (Alderantzizko Magia)

Bestalde, espazioaren dimentsioak ondo identifikaturik dira gertukoak eta deserosoak diren espazio horiek. Hurbil aurkitzen dena urrun dagoen horri nagusituko zaio

autorearen diskurtsoan, jatorrizkoa den horrekiko erroak aldarrikatzen baitira. Hurbilekoa nagusitzen dela diogu, leku antropologikoa den horrekiko lehentasuna adierazten delako hitz hauetan. Bizipenez gain, pasarte ezberdinen kontaktak balorazioen ondotik datoz behin baina gehiagotan. Espazio egokia denaren eta ez denaren adierazpenek ezlekuen inguruan den ikuskera negatiboa indartuko lukete, bi aukeren artean espaziorik egokiena gertukoa baita, eta ezlekuak berriz, tentsioak eta segurtasun eza dakartzaten guneak. Lanean zehar beldurra, garrasiak, adia, intziria edota inon gustura ez egotearen aipuekin batera, honelakoak ageri zaizkigu:

Agian horrexegatik gaude urrun hurbil egon behar genukeen guztiarengandik (Hazi Eskukada II); Nik jakin badakit hau ez dela hotelik aproposena. (Nekearen Teoria)

Sorterri, identitate edo jatorrizko "ekosistema" baten espazioa aldarrikatzeko erabiltzen den metaforetako bat hazi eskukada da.

Eztago iruzurrik, goroldioa haziko da nire poltsikotan; gure begiek etengabe hazi-
eskukada eskatuz (Hazi eskukada I eta II abestietan)

Goroldioa errorik eta hazirik ez duen landare briofitoa da. Itzaletan igarotako denbora beharrezkoa du ahazteko eta ez dute hodi eroalerik. Protagonistaren poltsikoan hazirik ez duen goroldioa hazten da. Landare honi eginiko erreferentzia ezlekuen arlora eramango bagenu, goroldioa haztearen metafora ezlekuak ekarritako ondorioa balitz bezala ulertu dezakegu. Sustrairik gabeko errotze bat dakar honek, itzaletan denboraren igaroarekin sortu den goroldioa bezala, iluntasun edo anonimatoan emandako denbora honek protagonistarengan jatorriarekiko lotura eza garatu du. Gerora, hazi-eskukada baten eskariaren beharraz ari zaigu eta pentsa daiteke, goroldioak ez dituen hazi horien beharraz jatorrizko lurraldearen errotzeari egin diezaiokela erreferentzia. Hau honela, hiriko bizitzak ondorio negatiboak ekarri eta norbere jatorriaren aldarria egiten dela ikusi dugu.

Desio den errealitatea eta ezlekuak dakarten distantzia ez datoz bat. Pasarteko protagonistak urrun kokatzen diren egoeran, hurbil egoteko nahia ageri zaigu, hazi eskukadaren eskariarekin batera, ondo dagoenaren eta ez dagoenaren arteko iruditeria argi identifikatu daiteke. Oraingoan ere, leku antropologikotik gertu egongo litzatekeen espazioa hartzen da ontzat, eta distantzia negatiboki hartzen dela esan daiteke.

Espazio eta denboraren dimentsioez gain, gizatiarra den dimentsio batek ere pisu esanguratsu du lan honetan zehar. Lanean zehar gorputzeko atalek biltzen dituzten ezaugarrien bitartez, identitate, denboran pilatutako bizipen eta istorioak adierazi nahi direla esan daiteke. Gorputzari erreferentzia egiten dioten aipu horien artean, hauek izan daitezke esanguratsuenak:

Ezlekuak, eskuko marren bitartean.(...) Nork lapurtu dizkizu hatz-markak?
(Alderantzizko magia)

Eskuko marrak erabat pertsonalak diren ezaugarriak ditugu, norberak bere propioak dituen ezaugarriak. Metafora honen bitartez, hatz-markek norbere identitateari erreferentzia egiten diotela pentsa daiteke, eta ezlekuak norbere izate horretan duten

irismenaz. Gainera, lapurtu aditzak duen zentzu negatibo guztia kontuan hartzekoa da, gugandik kanpo kokatzen den lapur bat identifikatzen baita galdera horren atzean, hatz-markak edo identitate galera baten erantzule dena. Ezlekuak arazo exogeno bat dira idazlearentzat, eta gure esparrurik intimoenean eragiteko gai direla aditzera ematen da. Beste pasarte batek, ospitalean, gaixorik azken egunak ematen ari den gizon baten errealitatea dakar gogora. Bere gorputza eta bizkarra orbainez beteak dituen pertsona batenak dira, baina orbain hauek bizitza osatzen duten pasarteetan pilaketak bailiran uler genitzake. Tartean, jasotzen duen tratua nahiko hotza dela esan daiteke, telebista baten ondoan igarotzen baititu bere azken egunak, 1215. katean, eta ez du gutunik jasotzen.

Orbainez betetako gizona, orbainez zeharkatutako bizkarra.(...) Orbainez zeharkatutako bizkarra bere begiak erretzen (1215. katean)

Talka bat izango genuke bizitza oso bat gorputzean daraman historia eta bizitako pilaketak islatzen duten orbain horien eta ospitaleko gaixoaren tratuan. Batetik, bizitako identitate eta historia isla dezaketen bizkarreko orbainak, eta bestetik, orbain hauek gaixo gisa hartzen diren gune ospitalario hotza ditugu. Aurrez aipatutako denboraren metafora sozialak kontuan hartuta, gorputzeko orbainak denbora gorputzu gisa uler genitzake.

Metaforez gain, gramatikalki lehenengo pertsona pluralaren erabilerak kolektibo baten inplikazioa dakar, irakurle/entzuleak edo idazleak sorturiko mundu imaginarioan aurkitzen denak bat egin dezake honekin, eta hein batean bere diskurtsoa bereganatu egiten du. Hortaz, idazleak zuzentzen zaion horren konplizitate bilatze bat egiten duela esan daiteke, eta esaldiak kolektiboki adierazteaz gain, zuzenak diren adierazpenak egiten dira. Adibidez:

Hegaztien tunela zeharkatu genuenean bezala (Aukerak, Ankerrak); Denbora gure jabe dela garrasika (Sekula etxean izan ez);...gure begiek etengabe hazi-eskukada eskatuz (Hazi eskukada II); Zugandik ezer espero ez denean zara kasik askea. (Hazi eskukada II); Bai zuk bai nik, barne irrika garbitu dugu, bai zuk bai nik. (Sekula etxean izan ez); Nork lapurtu dizkizu hatz-markak? (Alderantzizko magia)

Azken adibide honetan bezalaxe, hitzetan zehar norbaiti zuzentzen zaizkion galderak ditugu, eta aurreko kasu honetan kanpo agente negatibo baten identifikazioa nabaria da. Beste zenbaitetan gu-a eta bestearen arteko bereizketa agerikoa dela esan daiteke. Izan ere, kanpo agente bat identifikatzen da, “Euren hortz-haginak salgai, ta euren korbata, koloretsu aberrigabeak.” (Nekearen teoria), esaterako. Kanpo etsai baten identifikazioarekin batera, beste galderek konplizitate bat dakarte, idazleak bere mundu imaginarioan edo irakurlearen senean galdera horien erantzunen inguruko kezka piztu nahi du, beste horrek erantzutea.

“Esan, zer dela ta jarraitzen duzu hor, ez bada hori zure lekua?”

Era honetako esaldiek argi erakusten digute pasarte kontaketa huts batetaz haratago badela hautu ideologiko bat zabaltzeko grina, edo leku egokia dena eta ez dena definitzearekin batera, gainontzekoei pentsarazi eta konbentzitzeko nahia behintzat. Labur esanda, lekua hurbilekoa dela esaten da eta ezlekuak berriz arrotzak direla.

Orain arte bildutako guztian zehar diskurtsoaren analisi soziologikoa presente izan badugu ere, esandakoaren alor ideologikoan ondorioztatuz amaituko dugu diskoko hitzen diskurtso analisia.

Martxel Mariskalek eskainitako diskurtsoa soziala izateaz gain, soziologikoa ere bada. Ezlekuen teoria bere hitzetan islatua ikusten da, eta Marc Augé duen ikuskera ezkorriari beste maila dekadenteago bat ematen diola esan daiteke. Beraz, soziologiatik edaten duen bezala, eremu urbanoak dakartzan hainbat pauta gogor salatzen dira. Erabilitako hizkera guztia kontuan izanda, ezleku baten ezaugarriak beteko lituzkeen eta leku antropologikotik gertu egongo litzatekeen espazioa etengabea talkan daude lanean zehar. Talka honetako bizipenetan ezlekua nagusitzen bada ere, bien artean leku antropologikoa litzateke autorearen nahietatik gertu dagoena. Honela, anonimatozko espazioek dakartzaten ondorio latz guztiak islatzen dira hitzetan, denborak markaturiko erritmo jakin batetik ihes egin ezina, ezezagunak diren espazio eta hiritarrak, komunikatzeko arazoak dakartzan testuingurua, gertaeren subjektuarekiko axolagabetasuna... Denbora, espazioa eta harremanen ulerkerek talka egiten dute etengabea, batera ezinak dira, eta autoreak hau kritikatu du, aurka dagoen eredu horren ondorio diren pasarteak bizi baditu ere. Alienaturiko hiritarrak, burujabe ez direnak eta indibidualizaziora daraman eredu guzti horren aurrean, ezinegona, estutasuna edota inpotentziak eragindako testuinguru dekadenteari garrasiak eta intziriak bildu zaizkio. Lanean zehar aipatzen diren sentimendu eta egoera hauek ezlekutzat hartzen ditugun ereduarekiko aurkakotasun garbi bat dakarte. Eta esan bezala, hitz hauek ez dira esperientzia pertsonaletik edo fikziozko pertsonaia batzuen pasarteetara mugatu behar, bere baitan aldarrikapen bat baitago. Gainera, analisi honen hasieran ikusi dugun diskurtsoaren sorreran den testuinguru analisiari hitz hauen argitarapen testuingurua gehitu beharko genioke. Honela ulertuko dugu diskurtsoak eta bere inguruak zein lotura duten: “La interpretación sociológica del discurso consiste en establecer conexiones entre los discursos analizados y el espacio social en el que han surgido” (Ruiz, 2009: 16).

Diskurtsoaren testuingurua poeta batek post-hardcore talde batentzat egiten dituen hitzak diren bezalaxe, kontuan hartzekoa da Lisabö taldeak duen praktika politikoa. Diskurtso guztia hau, argitaratua izandako lan batean kokatzen da, publikoari zuzentzen den lan bat da hortaz, eta bere baitan ezlekuen inguruari kritika adierazkorrak egiten dira. Jakina da hitzetan bildutako diskurtso hori zalegoak irakurri eta entzungo duela, eta pentsamendu kritikoa ahalbidetzeko tresna bat izan daiteke hortaz. Gainera, diskoa Creative Commons lizentziarekin eta auto-ekoizpen bitartez –bai, ekoizpen musikal eta bai diskografikoki argitaratzea diskoan hitz egiten den eredutik aldentzeko litzateke, burujabetza eta ekoizpena kolektibizatze aldera. Honek erakuts diezaiguke, lanean biltzen den diskurtsoarekin batera, taldeak artelan hau ekoizteko eran duen hautu politikoa.

Espazioaz eta espazioarekin egin

Hitzen inguruan esandakoa ageriko maila batean erraz identifikatu daitekeen zerbait da, ezlekuen ikuskera kritiko eta ezkorra begi-bistan den zerbait baita. Honekin batera, hitzetan zehar diren metafora eta azken orrialde hauetan hauen gain egin dugun irakurketa diskurtso zurrun horretatik gertu dagoen zerbait izan da, hitzen bitartez proposatutako irudiak identitatearen aldeko bailiran ulertu ditugu.

Hala ere, diskurtso zurrun honetatik harago, hizkuntzaren erabilerak aurpegi ezberdinak ditu, eta hau diogu soziologikoki diskurtso mardul eta identitatearen aldeko prestutasun handia adierazten duten hitzek era berean esaten den honen irakurketa zabal bat egiteko aukera ematen digutelako. Oso bideraturik dagoen diskurtsoak baditu irakurlearen interpretazioa eskatzen duten hainbat une, eta hau metafora ezberdinak erabiltzearen ondorio gisa ulertzen dugu. Aurrez egin dugun irakurketa ezlekuen ikuskera ezkorrek metaforen ulerkera baldintzatu badu ere, irakurketa anitzak izan ditzaketen figurak izango genituzke. Diskurtso zurrunaren baitan ulerkera ezberdinak izan ditzaketen iradokizunak ditugu, azken esanahi hori itxi edo murriztu gabe.

Hau honela, batetik anonimatozko espazioen ulerkera ezkorra eta dekadentea aurki dezakegun bezala, badira metaforei esker eskuratutako esanahi zabalak. Hitzaren erabilera honetan zurruntasuna eta malgutasuna elkarrekin datozen bi ezaugarri izango lirateke, honek dakarren tentsio edo talkarekin. Hitzaren proposamen soziologikoak metafora eta bestelako irudien bitartez adierazitakoaren arteko talkan aurkitzen dira disko honetako hitzak, soziologikoki esandako horrek identitatearen aldeko proposamen sendoa defendatzen den bitartean, hitzaren erabilera poetikoak irakurketa zabal baten bitartez irakurleari identifikazio ezberdinak eskainiz.

Hau esanda, interesgarria litzateke Joseba Zulaika (1985) antropologoak bertsolarien hizkeraren inguruan erabilitako joko eta jolas ideiak bereiztea. Jokoak bata bestearen aurka jartzen duen eta marko finko baten baitan ari den adiera bipolarra litzateke. Hau da, ondorio positibo eta negatiboak dituen bezala, irabazle-galtzaile edota egia-gezurra binomioen artean kokatuko da jokoaren emaitza. Antagonikoak diren ereduak behar ditu, batari esker bestea eusteko. Hitzaren adiera, zentzu literalenean ulertu beharko genuke, aurrez ondo zehaztuta dagoen arauen baitan.

Jolasean berriz ez dago arau itxirik, irekia da eta arauak apurtzea jolasaren iturri izan daiteke. Jolasak ez dakar ondorio gisa irabazle edo galtzailerik, bi muturretan kokatuko genituzkeen kategoria hauek ez dira baztertzailerik eta hitzen erreinuan jatorrizko esanahiarekin ulertuko ez genituzkeen eta autorearen esanetan alegiazkoa edo metaforikoa den adiera nagusituko litzateke. Hala ere, Martxelen hizkeran zenbait unetan jolas eta jokoa batera eta haien arteko talkan aurkitu ditzakegula esan daiteke.

Ezlekuek dakarten identitate galeraren aurrean, diskurtso sozial sendo honek praktika diskurtsiboaren bidez eta ezberdina den, urrun dagoen edo kanpo agente baten deskribapen baten beharra izango du bere identitatearen aldeko diskurtso hori defendatzeko (Hall, 2003). Hitzetan ikusi dugunez, ezlekuen aurkako diskurtsoak espazio hauek zalantzan jartzen dutena defendatzeko asmotan, autorearen idealetik kanpo diren ezleku horien deskribapena beharrezkoa izan da identitatearen aldarri bat egiteko. Diskurtsoan zehar identitatearen defentsak ezberdintasunean oinarritzen diren ezaugarri batzuk behar izan dituen bezala, hitzaren erabilera poetikoaren bitartez, irakurleari

emango zaio ulerkeraren aukera. Ulerkera horretan autoreak proposatutako zerbaitekin bat egin eta honekin bat egingo balu, irakurlea bera identifikaturik sentituko litzateke, partekatzen diren zenbait elementuren ustea sortzen baita (Hall, 2003). Beraz, batetik idazleak proposatutako diskurtso soziologikoak izate egonkor batetik abiatzen den identitatea islatzen badu ere, hizkera metaforikoaren ondotik datozen eta irakurleak egiten duen irakurketaren arabera, identifikazio ezberdin eta aldakorrak izango genituzkela ikus daiteke. Guzti honen berezitasuna da esaldi beren bitartez bi erako irakurketak egin daitezkeela. Batetik, idazlearen identitatea jaso eta bestetik, iradokizun batetik abiatzen den metafora edo irudi baten inguruan sortzen den horrekin bat egin eta idazleak esandakoarekin identifikatzea izango genituzke. Identitateak, jokoak bezala, aurkari baten beharra du bere helburura iristeko eta esandako horrek, benetakoa den edo esentzia bat aldarrikatuko du. Metaforen bitartez berriz, hitzek ez dute haien benetako esanahia mantenduko eta hauekin era irekian jolasten dela esan genezake. Letra hauetan bi ezaugarri hauek etengabeko talkan aurkitzen ditugu, konnotazioaren bitartez hitzekin jolas egin eta identifikatzeko aukera ematen diguten esaldiak, eta aldi berean, hizkera denotatibo batez, zurruntasun eta bi aukeren arteko norgehiagokaz identitatea aldarrikatzen dutenak.

- M: “Oinarri denotatibo hori hor dago, baina bestea oso konnotazio zabala da, ez?”

Biek idazle eta irakurlearen arteko harreman bat badakarte ere, mezuaren norantza ezberdinak dituztela esan dezakegu. Lehenaren bitartez idazlearen aldarririk diskurtsiboa irakurleak barneratzen duen bitartean, lengoailaren irakurketa zabalak esandako horrekin identifikazio bat sortu eta idazleak esandakoarekin bat egiteko aukera ekar dezake, idazle eta irakurlearen arteko loturak ezberdinak izanik.

Hau honela, maila diskurtsiboa soilik hartuko bagenu, Martxel Mariskal identitatearen aldeko kokatzen den aldi berean, lengoailaren erabilera poetikoaren bitartez identifikatzeko aukerak sortzen direla esan genezake.

Gainera, orain arte irakurketa egin dugun hitzen gainean autore berari galderak egiteko aukera izan dugu. Ezlekuen irakurketa negatiboaren aurrean, metaforek duten garrantzi handia ikusita, lengoaiari dagokion bere ohiko lekutik desplazatu eta nolabait esaten dena adierazteko erabilera linguistiko ezlekutiarraren inguruan aritu gara. Metaforak lengoailaren ezleku gisa ulertuta, hau da, bere ohiko egoera edo lekuan ez duten adiera kontuan izanda, esanahiaren desplazamendu bat dela ulertu daiteke. Beti ere, esanahia leku batetik bestera mugitzeak irakurketa zabal bat dakarrela esan dezakegu, eta ezlekuen ikuspegi ezkorraz haratago, hau probestuz leku aldaketari bestelako zentzu bat bilatu diezaiokegula pentsa daiteke. Hau honela, ezlekuen kritika zorrotz bat egiten den proposamen artistikoan, hitzen ezlekuaren erabilera egiten dela pentsa daiteke.

Hitzen analisiaren ondoren eginiko elkarrizketari esker, hitzaren leku aldaketa hauek ezleku gisa ulertu daitezke, baina autore beraren esanetan, ezleku alienanteak baino, ezleku elikagarriak lirateke hauek. Behin eta berriro irakur daitezkeen irudiak, irakurtaldia burutzen den egoera edo pertsonaren arabera ezberdinak izango direnak eta eguneroko hizketan bestelako adiera bat duten esaldiak gure egiten ditugu. Honela, esanahiaren desplazamendua izan duten hitz horiek, gure egoeraren arabera irakurriko ditugu, irakurtaldi hau ematen den testuinguruak baldintzatuta eta irakurritako aldi

bakoitzean gauza ezberdinak iradokitzen dizkiguten irudiak izanik. Martxelen esanetan, eta orain arte ezlekuek izan duten zentzu negatiboa gaindituz, metafora eta irudi horiek gure eremura eramaten ditugunean hizkera ezlekutierra leku bihurtuko litzateke. Honek, interpretazioaren bitartez airean zegoen esanahia gure egitea dakar, ezlekuan zegoen hori gure parte egitea, noraezean zegoen esanahia interpretatu, honekin identifikatu eta gure izatearen parte bilakatuko litzateke.

- M: “Hau da, seguraski metafora horiek normalean ez ditugu aurkituko eguneroko elkarrizketetan edo eguneroko mediotan edo eguneroko prentsan, ez? Beste nunbait dauden esaldiak, ez? Baina entzun edo irakurri baditugu, gure izatearen parte bihurtu direnak, ez? Orduan ezleku horiek gure leku bihurtzen dira. Eta pentsatu nahi nuke leku txikitxo horiek pena merezi dutela, ezta?”
- M: “Orduan, hor uzten dut nire irakurketa, eta badakit horrek gauza eder bat baduela, lehen esan dugun hizkuntzaren bigarren alderdi, alderdi mardul hori, dala hizkuntza sugerentea, nahiko sugestiboa dela ere aldi berean, horrek arrantza egingo dula modu ezberdinean, ez?”

Hitzaren erabilerarekin batera, elkarrizketatuak bere bizi esperientziak ezlekuen gaineko ikuskera eta hitz hauek idazterako garaian izan duen eragina aipatzekoa litzateke. Teoria soziologiko batetik abiatutako hitzak baino, Estatu Batuetan emandako urteetan bizitako esperientziaren ondotik datozen irudiak asko lotu baitira ezlekuekin. Kontzeptu soziologikoaren inguruan galdetu eta berehala, bizi esperientziekin lotu dira ezlekuak. Euskal Herrian auzoaren kontzeptua argi dugun bezala, kontraste handia bizi izan zuen idazleak Estatu Batuetan urte batzuk igaroaz. Gurean oraindik ez ziren komertzio gune erraldoiak, Mall-etan bertan ziren hotelak, distantzia erraldoiak, lerro askotako autobideak edota bakardadea sentitzeko erraztasunak aipatu dizkigu.

- M: “Beti irudikatzen nuen helikoptero bat pasa zela, han utzi ninduela, Bostonen erdian, eta nire nortasuna asmatzerik banuela imaginatzen nuen, ez? (...) Eta nire eguneroko bizitzan joko moduan hartzen nuen askotan hori, ez?”

Era berean, ezagutza soziologikoa baztertu gabe, baino honek lan artistiko batean izan dezakeen hizkuntza denotatiboaren erabilerarekiko kritikotasunez, lanaren asmoa ez zen izan ezlekuen inguruko teoria islatzera bideratu. Diskoa kontzeptu soziologiko baten inguruan ari bada ere, artea eta zientzia bereizi beharreko bi esparru izango dira, eta bakoitzak bere hizkera propioa izango luke. Imaginarioa bultzatu nahi duen hizkuntza eta teoriaren zentzu itxia ez lirateke bat etorriko, baina hein batean laneko hitzek bietarako tarte eskaintzen dutela esan daiteke. Hitzaren izaera dialektiko (Voloshinov, 1976) honen bitartez, Martxelen esanetan eguneroko hizkuntzan ez duen edertasuna eskuratzen du hizkuntzak.

- M: Nire asmoaz ez zan izan bueno, nire...bueno, soziologoa naiz prestakuntza aldetik eta... (...) Tratado bat idazteko adibidez, edo teorizazio bat egiteko, badaudela bideak, ez? Estudio, ikerketa zientifiko bat egiteko, hizkuntza guztiz

denotatiboa, dena zehatza ta mehatza izan behar duna eta abar. Sormen munduan, niri sormen munduan ez zait gustatzen papistak izateko nolabait. (...) Niri behintzat, nire kasuan ez zait gustatzen hainbat hitz lapidario erabiltzea eta gutxigo hainbat mezu dogmatiko erabiltzea.”

Hitzen erabileran aurkitzen ditugun barne tentsioez gain, idazle eta taldearen arteko harreman berezi bat dugu Lisabö taldean. Martxelek taldearen entsegu lokala sakristia bezala izendatu du, leku sakratua bailitzan. Musika taldea eta idazlea elkarlanean diren bezala, guztiz berezita egiten dute lan sormen prozesuaren baitako atal berezi eta egoera pertsonalak tarteko. Honela, kideek emaitza sortu aurretik haien artean asko hitz egiten duten bezala, hitzak eta musika sortzen diren espazioak oso berezita daude. Hitzak bakardadean eta etxean sortzen diren heinean, musika taldean eta lokalean sortzen da, biek ere bateratutako azken emaitza eskainiz.

- M: “Orduan, neretzat beraien lokala da...ez dakit nola definitu. Eh, kasi sakristia bat bezala, ez? Non atea jo eta begiratu eta hor zerbait magikoa gertatzen ari da, edo zerbait sakroa, baino itxi behar dut ze neri ez dagokit oraingoz hor egotea, ez? Baino, era berean hor nago.”

Bestetik, lana euskarri batetara eraman eta diskoa grabatzerako garaian, espazioan egindako erabilera ekoizpen arrunt batetik urruntzen dela jakin dugu Karlos Osinagaren bitartez. Prozesu hau ohiko egiten ez duen ezaugarria, estudiotik kanpo den gela handi baten erabilera da, akustika berezi bat probestuz. Hau honela, Lisabök ez zuen diskoaren zati garrantzitsu bat estudio batean grabatu, Bonbereneako skateparkeko zabalerako akustika probestu baitzuten. Eraikuntza bezala, fabrika zahar bat da hau, honek suposatzen duen espazioaren handitasun eta zabalera guztiarekin. Karlosek aitortu duenez, haiek Steve Albini² bezalako ekoizleek egindako diskoen oso zaleak dira, ingurugiro ireki, naturala eta handitasuna soinuan antzematen baita bere lanetan. Ildo beretik, berak behin baino gehiagotan aipatzen du soinua edo musika ikustearen irudiak garrantzia handia duela, eta hau nabaritzea asko miresten duen zerbait da.

- K: “Musika ikusten duzunean, neretzako hori dira...magia, eta hori gertatzen da kasu askotan Albinik egindako diskoekin, ikusten direla. Eta neretzako hori da erreferente bat.”

Entzumenaren bitartez ikusmenara eramaten gaituen soinuak, karga oso indartsua du ekoizpen honetan eta entzumenaren bidez espazioa irudikatze gaitasuna ahalbidetzen du soinuak. Elkarrizketan zehar ekoizleak aipatutako soinuan espazioa bilatzea, handitasuna eta ambientea dimentsio guzti honekin lotuta dago. Espazio fisikoa soinuaren bidez adierazten da, musikaren bitartez ikusten baita espazioaren dimentsioa, edo espazioa entzun egiten dela esan daiteke. Honela soinuak espazioaren iruditeriara

² Steve Albini AEBetako ekoizle eta Shellac taldeko musikaria da egun. Besteak beste, ezaguna da Pixies taldearen *Surfer Rosa* (1988), Nirvanaren *In Utero* (1993) edota Berri Txarrak euskaldunen *Payola* (2009) diskoak grabatzeagatik.

garamatza, bertan ez garen bitartean hau ikusteko baliabideak eskainiz. Oroitu dezagun Lefebvrek (2013) bizitako espazioa horien gainean sortzen diren esanahi eta iruditeriak errepresentaziozko espazio bezala sailkatu zituela. Taldeak gela zabalean egindako grabaketak, bertako akustika probestuz egindako praktika espaziala, espazioaren eta praktika honen bitartez lortu nahi den soinuaren irudi sinboliko batekin guztiz loturik dagoela esan daiteke. Soinuan oinarritzen den espazioaren iruditeria sonoro hau praktika espazial zehatz baten ondorio da, eta espazioaren erabilera honi esker, soinuak lekua ezaugarritzen du, era ez berbal batean. Espazioaz egiten den hori, emaitza auditibo batean bideratzen da, eta honen helburua bada musikari alderdi fisiko bat eskaintzea, musika ikustearen ideia hor baitago. Soinuaren espazialitatea errepresentaziozko espazio bezala ulertuta, non espazio fisikoak iruditeria bat hartuko lukeen, kasu honetan soinuaren bitartez, ezaugarri konkretuak dituen areto zabal eta bizi batean egindako praktika espazialari esker eskuratu da.

Espazio fisiko eta mentalak bat egiten dutela pentsa daiteke, baina hau hitzen bitartez esaten den horrekin alderatuko bagenu, elkarrizketen bidez ondorioztatu dugu espazioaren erabileraz lortzen den lekuaren espazioa eta soinuaren espazioa ez datozela bat ezlekuen irudikapen horretan.

Espazio fisikoaren parte den arkitekturak, distantziak, paretek eta azken batean honen ondorio den akustikak sinbolismo bat hartzen du, musikariaren aukera honek espazioa soinuaren bidez irudikatzen baitu. Soinuak lekuaren informazioa eskaintzen digu, nahiz eta hitzen bitartez ezlekuen inguruan adierazi nahi den horren baliokide ez izan, eta guk entzun ohi dugun azken emaitza musikarena bada ere, grabaketa burutu den gelan diren elementu guztiek azken emaitza honetan garrantzi handia dute.

Era berean, akustikaz hitz eginik, aipatzekoa da gelak berak duen agentzia gaitasuna. Soinuaren azken emaitza espazioko dimentsioek gauzatzen dute eta musikariak bere instrumentuarekin abiatzen duenak, espazioaren erantzun bat jasotzen du. Disko honetan akustika zehatz hau bilatu bazen, inguruko hormek soinua moldatzeko gaitasuna dutelako da. Akustikoki erreberberazio bezala izendatuko genukeen hori, soziologikoki artekaria da. Musikariak abiatutako soinu katea ezaugarri arkitektonikoen bueltatzen dute, uhinak bideratuz, eta hortaz espazioa ere soinuaren erantzule bada. Emandako hori itzuli egiten da, eta horrek musika egiterako garaian paretekin sortzen den agentzia partekatua agerian utziko luke. Egindako musika aretoko dimentsioek baldintzatzen dute, baina aldi berean, areto ezberdinak dituen dimentsioak aukeratzeko gaitasuna izan dute musikari eta ekoizleek, baina hau izan zen aukera, espazioak itzuliko zuen horren jakitun izanik. Eta azken batean, diskoa sortzeko prozesu zabal honen ataletako batean hori da soinuan bilatzen dena, espazio bizi bat, soinuaren dimentsio fisikoa grabaketaren bitartez soinuaren irudikapenean txertatzen duena.

Hein batean, soinua da musika grabatu zen uneko lekuaren informazio eroalea eta espazioa ikusi ezean, honek hartuko du bere dimentsio fisikoa. Era honetan, soinuak artekari zeregina har dezake, grabatutako gela baten informazio espaziala soinuaren bidez jasotzen du entzuleak. Honek ekoizpen espazio eta espazio erakuslearen edo entzulearen espazioaren arteko konexio bat suposatzen du. Gainera, aipatzekoa da elkarrizketuak ekoizpen artistikoan bertan sartzeari garrantzi handia ematen diola, tartean, Ken Loachen zinemari erreferentzia eginez.

- K: “Zuk ikusten badezu Ken Loachen pelikula bat, bere...batez ere bere fotografiarengatik, baita soinuarengatik...Ari zera hori bizitzen. (...) Berriz, Ken Loachen pelikula batean, ostras, zaude hor. Eta hor sartuta sentitzea está guay. Eta azken finean, ez nago bakarrik estetiko kontu bat...Bueno, bai estetika eta etika beti lotuta daudela...lo que sea, baina horrela da. Eta ordun ba guk bai beti egin dugula eta zaindu dugla estetika sonoro hori...ez dakit nola esan, baina (...) Bai, ulertzen da, ezta? Eta bai, batez ere, hori...horregatik ere esan dizut lehen batzuetan, karo, bajua, bi gitarra, bateriak, oihuak eta akopleak daudenean espaziorik ez dago. Ez dago hutsunerik, baina batzuetan, momentu lasaietan, bateriak bakarrik entzuten direnean bat batean zaude hori, hodei batean, eta bat batean ikusten da espazioa. Orduan, neretzako hori...ya me he flipau (barrez), baina zinematografikoki horrek ere badu...ez dakit, como que te. Eta hori adibidez, ba aurkitzen da baterietan, baina baita ere ahotsetan, urrutitik egindako ahotsetan eta batez ere grabaketetan.”

Aurreko aipu honetan, soinuaren espazialitatearekin batera, lanaren parte izateak duen garrantzia azpimarratuko genuke espazio handi baten irudikapena entzuleari iristea. Hau da, nik nire etxean diskoa entzuten badut, espazio zabal hori entzun eta irudikatu dezaket, barruan egoteko aukera dut.

Lanaren parte izatearen inguruan, hainbat adibide jartzen ditu Karlosek, eta taldearen musikan berak esan bezala, batzuetan espaziorik ez badago ere, beste zenbait unetan espazio honen presentziak obrara gerturatzen edo sartzen gaitu. Espazioa ez dago beti hor, etengabeko tentsioan den eta eztanda noiz iritsiko ote denaren esperoan, musikak intentsitatearekin jolasten du, eta espazioa dinamikaren arabera agertuko da. Elkarrizketatuak esan bezala, espazioaren agerpena une lasaietan izango genuke, intentsitate altuak espazioaren gabezia dakarren bezala, intentsitate baxua agertzearekin espazioa entzunaz.

Zentzu honetan, urrutitik edo distantzia batetik eginak dauden ahotsak efektu hau gauzatzeko aproposak dira, bizitzen ari zaren, hor egon edo sartuta egotearen sentsazioa gerturatuko gintuzketen teknikak. Haien lanera barneratzeko tresnak dira, ekoizle eta entzulearen arteko bestelako harreman bat dakarrena eta efektu hau bereziki grabaketan bitartez eskuratzen badute ere, zuzenean badira haien publikoa barne sentitzeko baliabideak.

Bertolt Brechtek antzerkiaren inguruan landutako idatzien ondotik (2004), ikuslegoa ikusten ari zen horren jakitun izatearen garrantzia azpimarratu eta antzerki errealistak zekarren ilusioari aurre eginez, ikuslea fikzio eta ilusioaren mundutik bereizi nahi zituen. Ikuskizun kapitalistak ekoizle eta entzulearen artean diren bitartekoen bidez ikusten ari den horrekin zuzenean identifikatu eta ilusio alienante bat sortuko luke, eta honen aurrean harreman alienante hau apurtzeko, distantziamendu teknikak probestuko ditu. Era honetan, antzerki naturalistan ez bezala, obran bertan ez lirarteke gizarteko arazoak saihestuko, teknika hauen bidez ikusten den hori era gardenean eginez.

Ikusle-entzulearentzat alienanteak izan nahi ez duten praktika hauekin lotuta, eta haien musika zuzeneko emanaldietara eramanez, argien ezohiko erabilera eginez espazio erakuslean taldera gerturatuko gaituzten ezaugarriak badira. Foko finko eta argi zuriek dakarten oholtza gardenak ikuskizun berarekiko nolabaiteko kritikotasuna dakar, eta

erabaki honetan Fugazi eta Shellac bezalako taldeen influentzia garbia dela diote. Ezaugarri estetikoak bada, eszena gaineko aurkezpena eta irudia baldintzatzen dituelako, baina bigarren osagarri garrantzitsua hau da:

- K: “baita ere egia da ez degula asko maitatzen espektakulo luminotekniko hori... (...) Nos gustaba más el rollo, que a veces es más guay, a veces es más difícil eh...porque es como demasiado crudo...nos gustaba más ese rollo. También nos gustaba porque estéticamente es como muy guay, muy limpio... (...) Eta nahi degu, hori, transparenteak izan, hau da dagoena.”

Estetikaz harago, rock kontzertu batean taldea halako gardentasun batekin oholtzara aurkezteak, karga sinboliko eta politiko handia izango luke. Oholtzako espazioan ere bada espazioaren errepresentazio hegemoniko bat, ikuskizunaren eszenografia biltzen duen espazioa. Guy Debordek (1971; hemen aipatua: Baringo, 2013: 128) ikuskizunaren inguruan, iraganean bizi izandako oro, errepresentazio hutsean bilakatu dela dio. Zentzu honetan Lisabök molde finkoetatik ihes egin (jolas egin) eta ikuskizunaren oso lagun ez izateak, espazioaren errepresentaziotik gertu dagoen ikuskizunaren simulakroari aurre egingo dio.

Halaber, Lisabök ez du egiten ez duen zerbait irudikatu nahi, naiz eta publiko zabalaren artean ikuskizunak arrakasta gehiago izan. Ohiko espektakulari aurre egin eta taldearen oholtzako espazioa ikuskizunaren espazio homogeneo eta analisi kategoriko batean espazio abstraktutik gertu egongo litzatekeenari aurre egiten dion erresistentzia bezala ulertu genezake. Ezkutuan ezer geratu ezean, oholtzako espazioan egindakoa agerian da, eta zentzu honetan publiko aurreko lekuak praktika espazialaren garrantzia berreskuratzen du, bertan gertatzen den guztiak. Goffmanen dramaturgiara joko bagenu, egoera honetan front eta backstageak bat egiten dute (Goffman, 1997). Eszenatokian egindakoa eta entsegu-lokal edo estudioan diren praktikak bat egiten dute, ikusgarriak baitira publiko aurrean. Honela, oholtzaren lekua ezleku bilakatzen da, eta askotan honela aurkeztea deserosoa dela badiote ere, ikuskizunaren babesik ez dakarren egoera hautatzen du Lisabök.

Karga sinboliko handia izango du rock talde batek eszenatokian halako gardentasun batekin oholtzara aurkezteak. Ikuskizunak ekarriko lukeen zurruntasun eta diferentziak murriztearen aurrean, oholtza, espazio erakuslea, agerian geratu eta bere ezaugarri berezgarri zein anitzak behagarriak dira. Eta aipatu bezala, estetikaz gain, badu karga politiko esanguratsu bat. Soinuarekin bezala, ikusten duen horretan barneratzen da ikusle/entzulea, ilusio horri aurre eginez eta beste era batean ikusleak antzemango ez lituzkeen oholtza gaineko nondik norako guztiak agerian daude, akatsak barne. Esperimentazioak jolaserako aukerak ematen dituen bezala, ondorio negatiboek pisu gutxi izanik, egiten denetik izatea eskuratzeko aukera izanik, identifikaziotik gertuago dagoen praktika izango genuke. Aurrez zehaztuta dagoen ikuskizun kapitalistari aurre egin eta oholtzaren espazio homogeneoari aurre egitean, espazio diferentzialaren inguruan hitz egin genezake, praktika espazialak protagonismoa berreskuratu eta espazioaren ekoizpena bere elementu anitz eta ezberdinen ondotik sortuko baita.

Agerikoa den espazio erakusle honen inguruan, elkarrizketatuak berak aipatu du, askotan gogorragoa dela horrela aurkeztea, baina era berean gardenagoa eta gordinagoa da. Artekaritza metodora gerturatuz, aipatzekoa da argi zurien papera, honi esker agertzen baita taldea oholtza gainean “biluzik”. Musika ahalbidetzen duen prozesu osoa ikusgarria

da, ez soilik hasiera eta azken emaitza. Sistemen teoriaz ariko bagina, kutxa zuriak beltzak ezkututzen duena erakustearen pareko izan zitekeen jendaurrean hain garden aurkezte hori. Hauek taldearen posea ahalbidetu ez ezik, ikuslegoa ikusten den horrekin identifikatzea argiaren agentziari zor zaio. Egia da argi zuri eta finkoek zeregin egonkor bat dutela, eta zentzu honetan artekari baino, bitartekari lirateke, baina ukaezina da elementu eszeniko honek oholtzako espazioaren dimentsio sinbolikoan duen garrantzia.

Espazioaren teoriatik bi objektuek aldi berean eremu berdina okupatu ezin dutela diogun arren (Lussault, 2015), espazialki distantea dena uhinek konektatzen dute. Musika egiterako orduan elementu bakoitzak kokapen bat du, distantek dira, baina honek ez du esan nahi batera funtzionatzen ez dutenik. Elementu bakoitzaren kokapenarekin batera, funtzionamendu eta estrategia espazialak izango genituzke. Musikaren kasuan esaterako, gitarra bat amplifikagailutik gertu edo urrutiago kokatzeak funtzionalitatea hau guztiz baldintzatuko du, akoplearen intentsitatea ez baita bera, baina beti ere, distantzia hauei zentzua ematen diena uhina da. Distantzia hauek uhinek lotzen dituzte, eta honek ahalbidetzen du soziala den konexioa. Uhinaren artekaritzak azaleko maila batean ikusezina den agentzia islatzen digu eta soziologiaren beste ikuspegi batetik honek ez luke inongo garrantziarik izango, baina kasu honetan uhina, ikusten ez den elementuak, izugarritzko garrantzia du. Koronabirus berria ere ez dugu ikusten, baina begira non gauden...

Ohiko kulturaren soziologia gainditu eta kultur kontsumoaren determinante estrukturalak edota kultur kapitalaren ondotik datozen praktikez haratago, Antoine Hennion bezalako teorikoek (1988) artearen soziologia berri baten proposamena luzatuko dute. Azterketa hauek ekoizpen eta kontsumoan ematen diren ezberdintasunetara mugatu ohi direla salatu eta soziologia pragmatiko baten beharra defendatuko du. Artearen objektua bera tratatzeak garrantzia izango du, honen inguruan diren baldintzak gaindituz. Orain arteko soziologiak artearekiko izan duen gerturapena oso apurtzaile eta negatiboa izan da, eta honen baitan diren artekariak berreskuratzea litzateke funtsa. Era simetrikoan ematen diren arrazionamendu soziologikoak alde batera utzi eta artekarien harreman heterogeneoen bitartez, errealitate musikalean nola islatzen diren ikusi beharko genuke.

Hau honela, eta Bruno Latouren ikuspegi bera partekatuz (2008), ohiko soziologia soziala den horren ezkutuaren atzean gordeko litzateke, finkoak diren etiketa batzuk erabili eta jada ezarritako kategoria batzuetatik abiatu analisiari ekinez. Musikaren kasuan, hau abiapuntu gisa hartuko litzateke, baina artekaritzaren ikuspegiaren ondotik, musika abiapuntu baino, azken emaitza litzateke. Eraikuntzaren pilaketan azken emaitza gisa ulertu beharko genuke, aktoreek ezarritako eta unean uneko egonkortasun saiakerak egiten dituzten harremanetan arreta jarritz. Era honetan, musikaren markoa alde batera utziko bagenu, berehala konturatuko ginatke aktoreen existentziaz (Hennion, 1988: 162-165). Gainera, etnografoaren ikuspegitik, musika, solfeoa edota armonia ez dira existituko (Hennion, 1988: 164), eta hau oso aproposa litzateke Lisabören musika aztertzeko. Elkarrizketetan adierazitakoa kontuan edukita, haiek ohiko musika hizkuntzaren markotik aldentzen direla esan genezake, solfeoaren erabilera ez ezik, marko hau hautsi eta sentazioen arabera egindako musika egiten dutela aitortu digu Karlos Osinagak. Bere esanetan, askotan pena ematen dio musikariek konposatzerako

garaian musikak dakarren markoaren baitan konposaketak mugatzea, honek alde zuzenaren egin beharrekoa mugatuko bailuke, eta haiek berriz, musikaren arauen gainetik, sentitzen duten horren arabera musika egingo dute. Ohiko musika garaikidean topatuko ez ditugun disonantzia, zarata eta akopleak aurkituko ditugun lan honetan, marko hau gainditu eta Hennionek aipatutako etnografoaren eginberraz baliatzea egokia litzateke hortaz, soinuaren gertatzen den hori, musikaz harago doa eta.

Musika prozesua ahalbidetzen duten elementuak analisi sozial batera ekarriz, eragiteko ahalmena duten eta artikulazioak sortzen dituzten prozesu horiek artekari bezala ulertuko ditugu aurrerantzean. Lisabören kasuan, musikariekin batera, instrumentu eta aplikatzaileek rol garrantzitsu bat jokatuko lukete maila honetan, gainontzeko elementuekin harreman estrategikoak sortu eta batak bestearekiko eragiteko ahalmena duten honetan, sare bat osatuko litzateke, artekari sare bat sortuz.

Gure analisisian, musikariak, instrumentuak eta honen aplikatzailea erabilerarik gabe dauden unean independenteak diren elementutzat hartu daitezkeen bezala, musika eragiteko garaian, batak bestearen beharra izango du. Musikariak bere instrumentua eragin ezean, instrumentuak ez du soinua eragiteko gaitasunik izango, eta era berean, aplikatzailearen tresnari gabe, ezinezkoa litzateke musikariak eragiteko instrumentuaren erabilerari esker sortutako hori erreproduzitzea. Batak bestearen beharra du soinua eragiteko garaian, eta era berean, elementu batek bestearengan eragiteko gaitasuna amaitzen denean, beste elementu bati bideratzen zaio hau. Hennionek esaldi honen bitartez ondo azaltzen digu hau: “En el extremo de una mediación no aparece un mundo autónomo, sino otra mediación” (Hennion, 1988: 172).

Hala ere, norantza hau ez da bide bakarrekoa, musika iraun bitarteko artikulazioak zirkularrak izango baitira. Musikariak instrumentua eragin duen bezala, eragin hau bueltan uhin bitartez jasoko da, uhinek musikariaren jotzeko era bideratuz. Hau honela, uhinak aktore gisa hartu beharreko elementuak lirateke, musikariak instrumentuaren bitartez lortutako soinua berriz ere jaso eta aldi berean lehen uhinaren iturri den aktorearen jokaera baldintzatzeko gaitasuna izanik.

Orobat, talde honen kasuan badira musikarien beharrik ez duten soinuak, gailu teknologikoek haien kabuz soinua eragiteko duten gaitasuna probesten baita zenbaitetan. Aurrez aipatutako sare horri musikariaren artekaria kenduko bagenio, taldeak egiten dituen zenbait praktikan soinuak hor jarraitzen duela ikus genezake. Horren adierazgarri izango genituzke akople edo feedback akustikoak. Taldea ezaugarritzen duen praktiken artean, hau izango genuke, eta honen bitartez musikariaren artekariak bestelako plano apalago batera pasatzen da, oholtza gainean diren tresnei haien soinua eragiteko gaitasuna utziaz.

Akople bat aplikatzaile batek bolumen eta gantzia edo distorsio maila altuak dituen gertatu daitezkeen prozesu bat dela esan daiteke. Bozgorailu aurrean instrumentua kokatzen den unean, ohiko musika jardunean oso desatsegina izan daitezkeen soinu bat ematen da. Zarata hau soinu-katean igorleak eta hartzaileak bat egiten dutenean gertatuko litzateke. Honela, instrumentua aplikatzaile aurrean dela, honen kokapenak edo musikariaren nahiak baldintzatuta, bozgorailutik irteten diren uhinek instrumentuko soken bibrazioa eragingo lukete. Bibrazio hauek, gitarra zein baxu elektrikoek haien gorputzetan eta soka azpian dituzten pastilla elektromagnetiko batzuen bitartez jasoko lirateke eta hauek aplikatzaileak jasoko lituzke. Bozgorailuak bozgorailuetatik bertatik

igorri den soinu bat jasotzen du eta bukle edo prozesu zirkular hau errepikatuz akople deitzen zaion zarata osatuko litzateke.

- K: “Baina, bitartean ikusten dugula ezetz, prozesua...zarata eta ambienteak...eta hori, dimentsioak, esan nahi det espazioak, aurrean daudenak edo atzean daudenak...Horrekin jolastea neri gustatzen zait pila bat, está guay. Hori somatzea nik, disko bat entzuten dudanean, hori somatzen dala, está guay.”

Sentsazioetatik, molde finkorik gabe, unean uneko emozioei erantzuten eta arauetatik urrun egindako musika, beste behin Joseba Zulaikak (1985) landutako jolasaren ekarpenekin lotu dezakegu. Musikariak berak dio horrekin jolastea gustuko duela, inongo metodo zehatzik gabe eta aurrez prestatutakoa errepikatzen ez den aldi berean. Era berean, jolastearen esanahiaren bidez benetan gertatzen ez den, gezurretan edo txantxetan ari den hori islatzen da. Ez dago araurik eta espermentazioa, inprobisazioa bezala, jolasetik oso gertu dago. Gainera, aipatzekoa da prozesu hitzak elkarrizketan zehar izandako presentzia, bai sormenean, grabaketan edo zuzenekoetaz ari ginela. Esparru ezberdin hauetan aurrez zehaztuta ez dauden pautak jarraitzen ditu taldeak, momentuaren arabera arauak behin eta berriz desegin eta berriak osatuz. Jolasak eta gezurrak badute harreman estu bat, eta gezurraren adiera negatiboaz harago, gezurretik hurbil dagoen espermentazioak identifikaziotik gertu dagoen lotura berriak ahalbidetuko ditu. Ondorengo aipu honek espermentazioak dakarren jolasaren gezurra probesteko aukera ematen duela adierazten digu.

- K: “Baina, grabatzea berez da gezur bat. Bi mikro baino gehiago ya jartzen dezunean, ya da gezur bat.”

Hau honela, talde honen kasuan, soinua ez da beti musikariak eragiten duen zerbait, musika egiten den espazioan diren bestelako elementuek ere badute soinua eragiteko gaitasuna. Era honetako praktiketan, musikaria artekari baino, bitarteko litzateke, bere eginbeharra finkoagoa izanik. Bai, anplifikagailu aurrean instrumentuarekin posizio finko bat duela, bai anplifikagailu aurrean instrumentua utzi eta oholtzatik alde egin duela. Kasu hauetan, musikariaren posizio eta eginbeharra finkoa bada, hau da, funtzioa bozgorailutik irtendako uhin hori instrumentuak jaso dezan ahalbidetzea bada, musikaria bitartekari taktiko den aldi berean, bozgorailu eta instrumentuak artekari estrategikoak lirateke. Musika egiteko gaitasuna gailu teknologikoei utzi zaie une honetan, eta instrumentistaren eginbeharra bere gitarra edo baxua astintzea baino, bozgorailutik irtendako uhinek instrumentua bera astintzeko posizioa ahalbidetzea litzateke, artekari protagonistak ez gizatiarrak direlarik. Beste une askotan, akoplerik ez dela, eta gitarra jotzeko era “arruntago” bati erreferentzia eginez, bozgorailuak funtzio egonkor eta eroale bat duela esan daiteke, kasu honetan musikaria artekari den bitartean, bozgorailua plano apalago batean geratu eta bitartekari izanik.

Hala ere, zenbait unetan aipatzen ari garen musikaren hiru elementu hauek artekari izatera iritsiko dira, giza ekintza eta teknologia baliatuz, beste era batean ezinezkoak liratekeen soinu berezi hauek sortuaz. Kasu honetan, musikariak posizio finko batetik urrun, bere agentzia baliatuko du instrumentu zein bozgorailuak eskainitako aldaketa ahalmena

probestuz. Guzti honen ideia bat izateko, Fugazirekin batera Lisabören erreferente garrantzitsuenetako bat den Shellac talderen irudiek (Michael Z, 2011) aipatutako hau ulertzen lagunduko digute. ([On-line bideo fitxategia], eskuragarri hemen: <https://www.youtube.com/watch?v=i79f87C0M1c> lehen minutuan ondo ikusten da gitarrajoleak egiten duen erabilera)

Deigarria egin daitekeen beste ezaugarrietako bat taldeak oholtza gainean haien artean duen harremana da, baterien inguruan borobil bat osatuz eta batak bestearekin duen konplizitate horretan sortzen den taldea. Bruno Latourren ikuspegitik (2008), taldeak ez dira berezkoak eta etengabeko eraketan diren prozesuak lirateke, hau da, ez dago talderik ez badira berau eusten duten praktikak ematen.

Taldeak etengabearen definitzen dira, beti dago izatea definitzen duen hori adierazteko beharra, baina hau ez dago era finkoan emana, etengabearen indartzen baita talde batekiko pertenezia aldarrikatzean. Musika talde baten zalegoa osatzen duen komunitatea ez litzateke existituko, egunerokotasunean taldearen jarraitzaileek kamisetak janzten ez badituzte, diskoak jarri, gustua haien ingurukoekin partekatu... etengabeko aldarri bat da taldearen existentzia. Norbera nor den adierazten den unean ari da taldea osatzen. Beraz, ezin da taldeen existentzia berezkotzat hartu.

Lisabö taldeak ondo islatuko luke taldea unean sortzen denaren printzipioa, oholtza gainean diren interakzio anitzek bat egiten dute, eta haien artean borobilean sor daitezkeen begiradek, zein norberak bere instrumentuarekin duen konexio ezberdinek osatzen dute artekari ezberdinen sarea.

- K: “simplemente estábamos con el concepto de, estamos haciendo música entre todos, no?” (Sortzen duten borobilari buruz hizketan)

Hala ere, elkarrizketan egin ondoren jakin badakigu hau ez dela berdin ematen zuzeneko emanaldi eta estudioan. Taldea ahalbidetzen duen eta harremana posible egiten dutenak instrumentuak dira, harreman horren maila gorena musika izanik. Ohiko analisi batean ezberdinduko genituzkeen giza faktore eta teknologikoek bat egiten dute, artekari heterogeneoek harremana eta musika bera ahalbidetuz. Eta Lisabören musikan gizatiarra ez den erabilera hori probestu egiten da azken emaitza eskuratzeko.

Musikariak instrumentua gainean duela Cyborg (Haraway, 2018) bat dela esan daiteke, gorputzean zintzilik, edo bateriaren kasuan, bertan eserita, gorputzaren osagarri gisa uler daitezke. Musikari batek gailu baten beharra du musika egiteko, gailu teknologiko bat gorputzari itsatsita doana, nolabait. Salbuespen gisa, aplikazioerik gabeko ahotsa izango genuke. Taldearen kasuan, baliteke askotan entzulea obraren baitan sartu edota oihu hauek idazleak idatzitakoa pop-rock abesti batera moldatu baino, spoken word formatura aproposago moldatzen direlako izatea. Hein batean, musikariek abesteko era jasotako poesien arabera moldatzen baitute.

Honela, musikan ematen den agentzia partekatua agerian geratuko litzateke. Musikariak instrumentua eragin eta gailu honek soinu sortzen duen bezala, sortutako soinu hau jaso eta musikariak entzundako horren arabera jokatu du, gorputz, instrumentu eta uhinen bitartez jasotzen den soinuaren agentzia beste artekari esanguratsu bat izanik. Momentu honetan soinuak bere jatorria galdu eta musikaren ezlekuan aurkituko da, bere abiapuntutik alde egin eta beste artekariarekin bat eginez.

Zerbait adierazi eta sentsazioak bilatzeko objektu materialaren erabilpen bat egin eta hauek probestuz lortzen da adierazi nahi dena, Lisabök askotan bere sormenerako irizpide aipatzen dituen sentsazio hori eskuratzeko gizatiarrak ez diren gailuak erabiliko ditu. Kasu honetan sentsazioak adierazteko bidean, gailuak bitarteko gisa hartu ditugu, teknologia afektiboak bailiran (Lasén eta Casado, 2014).

ONDORIOAK

Analisia burututa, espazioak musika egiterako garaian hartzen duen garrantzia ezinbestean azpimarratu beharreko auzia litzateke. Musika eta disko honetako soinua espazioaren erabileraren ondorio den bezala, espazioaren ekoizpen honetan grabaketa egiten den leku horren gaineko interes eta ezagutzak prozesu hau baldintzatu du. Izan ere, aurrez ezagutzen den dimentsio espazial batek eskainiko duen emaitza baten ondorio da espazioaren ekoizpena, hau musika den azken emaitza eta estetika sonoro bat lortu ahal izateko beharrezko izanik. Espazioaren gaineko ulerkera musikaren bidez adierazten da, dimentsio fisikoa probestu eta praktika espazial baten ondotik, espazioaren irudi bat sortuaz. Hor izango genituzke soinua ikusi edo espazio entzutearen irudi edo sinbolo horiek, ekoizpenean berebiziko garrantzia hartu dutenak.

Hau honela, espazioaren ekoizpenean, indar handia du soinua bitartez iradokitzen den iruditeriaren bitartez ekoiztiko espazioak. Espazioa soinua bidez ere ekoizten da beraz, eta aldi berean prozesu honetan erabilitako zenbait teknika, grabaketetan urrutitik egindako ahotsak edota zuzenekoetan argi zuri eta finkoen erabilera adibidez, obra barruan sartzeko erabilitako distantziamendu teknikak izango dira.

Sonoro eta bisualki musika industrian nagusi diren espazioaren errepresentazio hegemonikoei, Lisabören musikan garrantzia hartzen duten praktika espazialekin aurre egingo zaie. Eta aldi berean, espazioa irudikatzen diguten soinu horien bitartez, errepresentaziozko espazio batzuk irudikatzen dira, espazioaren irudia era sonoro batean dela eta honek entzulea lanaren barruan sartzeko ematen duen aukera probestuz.

Hala ere, diskoaren ekoizpen prozesuan errepresentaziozko espazioetatik gertuko egongo liratekeen musika ikustearen irudi hauek ez dute zertan ezlekuetaz ari diren hitz horien isla izan beharrik. Are gehiago, askotan ezlekuaren potentzialitatea modu pragmatikoan baliatzen dute.

Espazio erakuslean, ikuskizunak dakarren molde finko eta aurrez prestatutakoaren eredu zurrunen aurrean, unean uneko sentsazioak izango dira, berriz ere praktika espazialak garrantzia hartuaz, espazio abstraktu batean hegemonikoa eta homogoneoa litzatekeen espazioaren erabilera bati erresistentzia eginez. Unean unekoak diren praktika espazial hauek, gertaera heterogeneoak biltzen dituen espazio diferentzialari ateak ireki diezazkiola pentsa daiteke, ikuskizun ereduari aurre egin eta musikari eta entzule edo ikuslearen arteko harreman horizontalago bat osatzen baita egiten dena agerian denean.

Hori da taldeak esaterako oholza gainean argiekin eskuratu nahi duena, gardentasuna eta egindakoa agerian geratu dadila.

Honela, praktikak garrantzia hartuko luke. Praktika horrek garrantzia hartu izana bada Sare Aktoreen Teoria erabili izanaren arrazoietako bat. Eta noski, ez soilik musikaren inguruan ari garelako, baita ere musika honek elementu jakinak erabiltzen dituen modurengatik. Egindakoak garrantzia hartzen du, musika esperimentalak hala eskatzen duelako, eta era berean, musikariak abiatutako praktika baten ondorio da espazioaren bizitasuna, espazioak soinu itzultze hori.

Lan honek ikusarazi nahi izan duen beste kezketako bat hori izan da, musikariak ez diren elementuek Lisabören musikan duten eginbehar eta honen garrantzia. Ohikoak ez diren praktiken bitartez, espazio nagusiari aurre egin eta jendaurrean biluzik agertzearen hautuak ezinezkoak lirateke musika eta hau ematen den espazioa ekoizten duten elementu guzti horiengatik ez balitz. Espazioa, praktikarik ezean, eta hortaz, musikarik ezean, ez da ekoizten, eta aldi berean, bertan kokatzen diren elementuek ahalbidetzen dute bai musika, eta bai espazioa. Musika eta ekoizpena eskuragarri egiten duten sare-aktoreak agerian dira, eta hauek ezkatzea ekidin nahi den zerbaite izango da taldearen jardunean, horra hor distantziamendu tekniken garrantzia.

Era berean, ezlekuek izan ohi duten adiera ezkor eta klasikoaz harago, honen erabilera baikorrak izan ditugu lanean zehar. Hitzetan adierazitako ikuskera dekadentearen atzean, lan honen protagonistek bestelako irakurketak egin dituzte terminoaren inguruan. Tartean, hauek hizkuntzaren erabileran esanahien ez ohiko lekua probestu edota grabaketa egindako eremuak ezleku bezala izan ditzakeen ezaugarriak ez ezik, espazio horren identitatea aldarrikatuz. Honek, bi muturrek osatzen duten kontzeptuaren adiera baztertzailerik batetatik aldentzen gaituzte, bai musika eta bai hitzetan leku antropologikoa eta ezlekutasuna presente izan baitira.

Bestetik, leku-ezleku binomioz gain, lan osoan zehar talkan diren hitzaren erabilera denotatibo eta konnotatiboa, izatetik abiatzen den egitearen atzean dagoen identitatea eta egitetik abiatuta izatea eskuratzeko diren identifikazio aukerak, hitz eta musikak sortzen diren abiapuntuak edota jolas, interpretazio eta esperimentaziorako tarreak diren bezala, jokotik gertu legoken komunitatearen aldarria ere hor dugu. Askotan gainera, oso gertu aurkitu ditugu ezlekua, hitzaren konnotazio, jolas eta identifikazioa. Beste batzuetan berriz, lekua, denotazio, eta jokoak dakarren identitatearen aldeko diskurtso sendoa elkarrekin dira. Biek ere, eta etengabeko talkan egonda, lan oso eta bakar egiten dute.

Horrenbestez, esan dezakegu musikaren bitartez iradokitzen den estetika sonoroa eta hitzen bitartez adierazten zaigun ezlekuen irudia ez datozela bat. Baina era berean, antagonikoak diren eta batak bestearen beharra duen elementuek egiten dutela lan bateratua. Ezlekuak lekuaren beharra du, eta horretan datza haien arteko harreman dialektikoak.

Sare-aktoreen teoria ez ote da ohiko teoria soziologikoaren ezlekua?

Azkenik, aipatzekoa da, 2019-2020 ikasturtean irakas eta ikaskuntzan aritu garen guztioi bezala, pandemiaren testuinguruak bultzatuta ezohiko jardun bat izan eta honek lan

egiteko garaian mugak ekarri dituela. Hasiera batean aurrez aurrekoak izan behar ziren behaketa, elkarrizketa eta bestelako hartu-eman asko etxetik egin beharrekoak izan dira, aurreikusiak ez ziren gorabeherak kudeatuz. Halaber, disko bat gustuko izanaren oinarritik abiatzen den irakurketa bat beti egongo da nolabait bideratua. Eta baliteke lanean zehar kontzeptu teorikoak era nahiko zurrunean erabili izana.

Baina era berean, zaletasunetik abiatzen den lan batek badakar motibazio eta inplikazio berezi bat. Hortaz, esan daiteke ezaugarri positiboak badituela garai batean asko entzundako disko bat hartu eta hau aztertzeak. Plazerra da gustuko duzun obra baten sortzaileekin solasteko aukera izan eta diskoa beraren inguruan aritzea.

BIBLIOGRAFIA

- Augé, Marc (2017). *Los no lugares*. Barcelona: Gedisa.
- Blanco, Elena (2008). “Lisabö”, *Lafonoteca [On-Line]*, eskuragarri hemen: <https://lafonoteca.net/grupos/lisabo> [Kontsulta eguna: 2020/04/22].
- Barringo, David (2013). “La tesis de la producción del espacio en Henri Lefebvre y sus críticos: un enfoque a tomar en consideración”, *Quid 16: Revista del Área de Estudios Urbanos*, 3, 119-135.
- Bidehuts, (2020). “Taldeak, Lisabö”, *Bidehuts [On-line]*, eskuragarri hemen: <http://www.bidehuts.net/wordpress/?p=272> [Kontsulta eguna: 2020/04/22].
- Brecht, Bertolt (2004). *Escritos sobre teatro*. Barcelona: Alba editorial.
- Delgado, Manuel (2015) . “Diferencia entre espacio vivido, espacio percibido y espacio concebido”, *El cor de les aparences. Bloc de Manuel Delgado [On-line]*, eskuragarri hemen: <http://manueldelgadoruiz.blogspot.com/2015/02/diferencia-entre-espacio-vivido-espacio.html> [Kontsulta eguna: 2020/3/5]
- Doncel, Xabier (2015). “Euskal musika, Lisabö”, *Badok [On-line]* , eskuragarri hemen: <https://www.badok.eus/euskal-musika/lisabo/> [Kontsulta eguna: 2020/04/22].
- Fraser, Benjamin (2009). “The bergsonian link between emotion, music and place: from the “motion of emotion” to the sonic immediacy of the basque band Lisabö”. *Journal of Spanish Cultural Studies*, lib.10, 241-262
- Fraser, Benjamin (2011). “Re-scaling emotinola approaches to music: Basque band Lisabö and the soundscapes of urban alienation”. *Emotion, space and society*,4, 8-16.
- Goffman, Erving (1997). *La presentación de la persona en la vida cotidiana*. Buenos Aires: Amorrortu Editores.
- Hall, Stuart (2003). “¿Quién necesita «identidad»?”, Stuart Hall eta Paul Du Gay (Zuz.). *Cuestiones de identidad cultural*. Madrid: Amorrortu Editores. (13-39).
- Haraway, Donna (2018). *Manifiesto para Cyborgs. Ciencia, tecnología y feminismo socialista a finales del siglo XX*. Mar del Plata: Letra Sudaca ediciones.
- Hennion, Antoine (1988). “De una etnografía de la enseñanza musical a una sociología de la mediación”. *Papers: revista de sociología*, 29, 153-177.

- Hennion, Antoine (2010). “Gustos musicales: de una sociología de la mediación a una pragmática del gusto”. *Comunicar*, lib. XVII, 34, 25-33.
- Lasén, Amparo eta Casado, Elena (2014). *Mediaciones tecnológicas: cuerpos, afectos y subjetividades*. Madril: Centro de Investigaciones Sociológicas y Editorial Complutense.
- Latour, Bruno (2008). *Reensamblar lo social. Una introducción a la teoría del actor red*. Buenos Aires: Ediciones Manantial
- Lefebvre, Henri (2013). *La producción del espacio*. Madril: Capitán Swing.
- Lisabö (2007). *Ezlekuak*, Irun: Bidehuts:.
- Lussault, Michel (2015). *El hombre espacial: la construcción social del espacio humano*. Amorrortu.
- Michael Z (2011/11/9). *Shellac: Crow - Oakland, 10/22/11*. [On-Line bideo fitxategia], eskuragarri hemen: <https://www.youtube.com/watch?v=i79f87C0M1c> (Kontsulta eguna: 2020/04/22)
- Ramos, Ramón (2009). “Metáforas del tiempo en la vida cotidiana: una aproximación sociológica”, *Acta sociológica*, 49, 51-69.
- Ruiz, Jorge (2009). “Análisis sociológico del discurso: métodos y lógicas”, *Forum: Qualitative Social Research*, Vol. 10, 2.
- Voloshinov, Valentin N. (1976). *El signo ideológico y la filosofía del lenguaje*. Buenos Aires: Ediciones nueva visión.
- Zulaika, Joseba (1985). *Bertsolariaren joko eta jolasa*. Donostia: Baroja.

ERANSKINAK

Lisabö taldearen biografia

Lisabö taldea 1998. urtean sortu zen Irunen, hasiera batean lagunak elkartu eta dibertitzeko helburuarekin.

Taldea post-hardcore, noise eta emocore etiketen inguruan kokatu izan dute askok, baina musika estiloez haratago, intentsitate, tentsio eta sentazioen arabera eginiko musika lantzen dutela esan daiteke. Soinu astuna, distortsioz betea, geruza askok osaturiko burrunbaren atzean melodia ezkutua dituen, oihukatutako ahotsak edota bi baterien erabilera izan daitezke taldearen ezaugarrietako batzuk. Edonola ere, musika alorraz haratago, Lisabören zuzeneko performatibitatearekin batera, haien lanaren ekoizpen eta banaketa prozesua autogestionatzeko hautua dira taldearen bestelako ezaupideak.

Egitasmoaren sorrera ulertzeko 90. hamarkadan Bidasoaldean zen musika eszenari aipamen bat egitea komenigarria litzateke. Hondarribiako Dut, Beti Mugan, The Illusions bezalako taldeek herrian bertan batu zituzten indarrek *underribi* bildumaren kaleratzea ekarri zuen, eskualdeko euskarazko rock alternatiboaren erreferente bilakatu. Hondarribiako musikari hauek Lisabö taldearen gertu izan ziren beti. Izan ere, The Illusions taldeko Imanol taldearen hasierako partaide izango da, Dut taldeak haien hastapenetan laguntza eskainiko die irundarrei, eta gerora Beti Mugan taldeko Martxel Mariskal taldearen ibilbidean zehar hitzen arduradun bezala ezagutu dugu. Hau dela eta, taldearen sorrera testuingurua ulertzeko hamarkada berean ziren musika taldeek eragina izan zutela esan daiteke.

Lan diskografikoa taldea sortu eta urte batera abiatuko, 1999. urtean autoekoiztutako maketarekin. Hasierako formazioa eta *Berak ekoztua* izeneko maketa hura Ivan Zabalegi (bateria), Karlos Osinaga (baxua eta ahotsa), Imanol Oiarzabal (gitarra eta ahotsa) eta Javi Manterolak (gitarra eta ahotsa) osatu zuten. Denbora gutxira, Imanolek taldea utzi eta hirukote moduan jarraitu zuten zuzenekoak eskaintzen, Aida Torres bateria-jolea taldera batu zen arte. Urte bereko amaieran eta hirukote gisa zuzenekoak eskaintzen ziharduten bitartean, Fugazi talde estatubatuarrekin Bergarako Jam aretoan jotzeko aukera izan zuten, post-hardcorearen eta DIY edo *zuk zeuk egizu* filosofiaren aintzindarietako bat den erreferentziatzeko taldearekin.

Aida Torres musikariaren sarrerarekin batera, taldea ezaugarritzen duen sendotasun eta intentsitatearen euskarria bi bateria-jolerekin osatuko da. Entsegu lokala beste talde batekin batera partekatu eta bertan bi bateria zirenez, aukera probestu eta instrumentua bikoiztearen esperimendazio hau era naturalean etorriko da. Kide berri honekin, 2000. urtean Esan Ozenki diskoetxearen bitartez *Ezarian* lana kaleratu zuen taldeak. Laukotearekin batera, Maite Arroitauregi, egun *Mursego* proiektuko biolontxelo-joleak parte hartuko du lan honetan, eta hau ez da puntualki eginiko kolaborazio soil bat izango, lan ezberdinetan musikari ezberdinen partaidetza taldearen beste ohiko ezaugarri bat baita.

Musikari hauei, idazle lanetan Martxel Mariskal batuko zaie 2001. urtean, elkarlanean ikuskizun bat martxan jarriaz. Emanaldi hau prestatzeren ondorio izango da 2002. urtean

Acuarela diskoetxearen babesarekin kaleratutako eta hiru abestik osatzen duten *Egun bat nonbait* EPa.

Handik gutxira eta *Amodio* proiektua tarteko, Javik denbora batez taldea utziko du. Hau honela, Ion Yugueros eta Eneko Aranzasti musikariak bandara batu eta hainbat kolaboraziorekin batera *Izkiriaturik aurkituko ditudan gurak* kaleratuko dute 2005. urtean, Metak diskoetxearen Pil-Pil Sessions bildumaren baitan.

Lan hartan parte hartu zuten musikari guztiak biltzeak zuzenean lana aurkezteko zailtasunak zekartzan, eta kontzertuak eskaini gabeko tarte luza zuten zihonan. Bestetik, osasun kontuak tarteko, Aida taldea uztera behartuta ikusi zen eta aldi berean, Javi Manterola taldera bueltan itzuli zen, 2006. urte amaieran. Taldearen zaleek lau urte itxaron beharko zituzten Lisabö berriz ere zuzenean ikusi ahal izateko. Baina hilabete gutxi batzuen baitan, 2007. urtean, aztergai dugun *Ezlekuak* diskoa kaleratuko dute.

Metak diskoetxearen desagerpenarekin eta Inoren Ero Ni, Anari eta Hotel taldeekin zuten harremana tarteko, Bidehuts proiektua loratu zen, lanak haien kabuz editatzeko asmoz. Hasiera batean Lisabök Inoren Ero Nirekin batera zazpi hatz beteko binilo bat argitaratzea proiektuaren sorrerarako aitzakia bazuten ere, Ezlekuak izan zen Bidehutsen lehen erreferentzia.

Proiektua osatzen duten kideek ez dute ohiko diskoetxe baten gisa lan egiten eta auto-ekoizpenerako apustu argi batean kokatzen dute haien burua. Bidehutsen webgunean honela definitzen dute haien burua:

“Egun, aipatu izenez gain beste batzuk gehitu zaizkigu gurera, ez dugu baina ohiko diskoetxea izateko asmorik, neurri batean, gehitzen zaigun taldea gehitu eta gutariko bat da eta ez du gurekin sinatzen. Egia esan inork ez du inorekin sinatzen. Norberari bere lanak egitea egokituko zaio, ez du izango, akaso aurreko esperientzietatik ezagutuko duen egitura atzean berarentzat lan egiten.

Azken finean, gu geu gara geure diskoak kudeatzen, egiten, grabatzen eta banatzen” (Bidehuts, 2020)

Ezlekuak (Lisabö, 2007) lanaren fitxa teknikoa:

- Oraingoan **Lisabö** izan gara: Maite, Eneko, Ivan, Martxel, Ionyu, Karlos eta Javi
- **Grabazioa, nahasketa eta masterizazioa:** Karlos Osinagaren gidaritzapean, Tolosako Bonberenea eta Irunen, 2006ko abuztu eta azaro bitartean.
- **Hitzak:** Martxel Mariskal
- **Itzulpenak:** Martxel Mariskal eta Rafa Rodrigo
- **Diseinua:** Ciegeba eta Pelluccetti.
- **Imprimategia/Packaging:** Luis Tolosa
- **Formatua:** bH001CD/LP+CD
- **Lizentzia:** Creative Commons BY-NC-SA

Taldea zuzenekoetara bueltatzearekin batera, harrera oso ona izan zuen lan honek, espainiar estatuko rock aldizkarietan aipamenak eta kritika atseginak jaso baitzituzten, bestak beste. Aurkezpen bira amaitzearekin, 2008an, aurrez aipatutako eta Bidehuts proiektuaren abiapuntu izan behar zuen zazpi hatz beteko singlea kaleratu zuten, Inoren Ero Ni taldearekin, kanta bana partekatuz.

Beste denbora tarte bat isilpean igaro, Ion Yugeros baxujoleak proiektua utzi eta Xabier Zabalak honen lekua hartzean, 2011. Urtean. *Animalia lotsatuen putzua* diskoa argitaratu zuten. Formazio berri honetan, beste behin ere Martxel Mariskalen hitzen babes izango dute eta lan honek ere kritika onak izanik, estatuko rock aldizkari esanguratsuek urteko diskorik onenen zerrendetan jasoko dute. Lan hau aurkezteko bira 2013. urtean amaitu eta urte batzuk lozorroan egon ostean, 2018 urte amaieran *Eta edertasunaren lorratzetan biluztu ginen* album berria kaleratu zuten.

Azkenik, aipatzekoak dira ibilbide luze honetan zehar, hainbat bildumetan izandako parte hartzeak: *Mirailak, Txinaurriak. Mikel Laboari ikasitako kantuak, Irun Lion Zion in Dub Vol. 1, Oztopo guztien gainetik Bonberenea, Gaztetxeak martxan...*

Diskoko hitzak

Hazi eskukada I

Batere eztut ta gutxiago eskatzen. Garaiak saihestuz, denbora bakarrik pairatzen, gure beldurrak ulertzen. Eztago iruzurrik, goroldioa haziko da nire poltsikotan ta nire buruan sorginen hitzek ezagutzera emango dute nire hezurdura. Agian horrela has gaitezke gure beldurrak ulertzen, zure eskuetan heltzen duzun agurearen gorputzaren sekretuak bezala. Autopista gaineko zubian, non kotxeak berdinak diren ta berdinak istripuak. Hala dira kontuak. Bueltatu nintzenean ez zelako besarkadarik izan. Nire zapatak utziko dizkizut ta ez dut zu baino ozenago hitz egingo.

Aukerak, Ankerrak

Hegaztien tunela zeharkatu genuenean bezala, lumez betetako denbora atzean utziaz, eta aukerak, ankerrak, marmolaren gainean labain egiten. Jainkotasunak ardotan blai. Zu ere aldagelen barnean jaio zinen, edozein goiz zela, belarriak ta azala ohituaz. Esan, zer dela ta jarraitzen duzu hor, ez bada hori zure lekua? Dataren beharrik ez edonor zinela, dataren beharrik ez edonor zarela. Esan, zer dela ta jarraitzen duzu hor, eskalearen moduan eskua zabaltzen, argi horixken begi minetan? Erreguka azkenik.

Bi minutu

Leku galduak. Garai bateko une bat, nahiz eta jendetza arrotzari begira, gogora ekarri nahi. Abiaduraren menpe bi minutu dira, bi minutu baino ez dira, nigandik mundu ertzera, goiz huts bati aurrea hartzen. Hiri zeharrargia, itxuka hiri zeharrargia. Pasaporte argazkiak, pasaguneak, memorian, haragian, bi minutu baino ez dira. Hizkuntza berririk ezin asmatu, egonean gaudela. Ezin asmatu.

Alderantzizko magia

Ezlekuak, eskuko marren bitartean. Gaixo bati bisita lez, erditzeko leku bat iragaten duzu. Ezpainak josi ondoren, kartetan aritu ginen butano-kamioi hartan, marra laburren artean, suge lotiak esku-azpietan. Ezlekuak, adituen ondo zehazten dituzten kristalezko kobazuloak. Jainkoak sasikumeak omen dira. Dagoeneko betiereko sonanbuluak. Nork lapurtu dizkizu hatz-markak? Ezlekuak, eskuko marren bitartean. Denbora ezean, beti berriak diren izara zuriak, ta ospitalez jositako igogailuan, denbora ezean, alderantzizko magia, zurbiltasuna ta basamortua eskuko marren bitartean. Azkar sendatu, azkarregi. Sokasaltoan, izerditan jarraian, munduan zehar galtzeko, gure bizi-arnasa bezala auzoko gasolindegian Ezlekua, enigma, obsesio eta argazkia. Itsaso-kaian labain egin du nortasunak.

Sekulan etxean izan ez

Orori tiro egiten bidai birtualean. Ortzia gurutzatzen ta billeteak hamarnaka irensten. Denbora gure jabe dela garrasika, ta hala espazioa, edozein urte-sasoiatan. Etengabeko bertigoa ta edertasuna bortxatzeko joera, mundu pasakorrean. Inon ez gustura, nahiz ta lurra egiten duen argi gure begien aurrean. Apur bat baino ez, ohitura soilik, mekanikoa, denbora gure jabe dela onartuz. Intziri guztiek gorroto gordin sakratua gordetzen dute,

bakardadea, arrain-hezurra. Hitz aproposa ahoskatzen, ondoren isiltzeko. Ahanztura da limurtasuna. Azkarregi agian. Bai zuk bai nik, barne irrika garbitu dugu, bai zuk bai nik.

Hazi eskukada II

Gizaki bakoitza egoera bat da, asmakuntza bakarra. Agian horrexegatik gaude urrun hurbil egon behar genukeen guztiarengandik. Nahiz ta meazuloan, museoan, harreralekuan, lantegian, putetxean, bulebarrean, haitzuloan, ispilu-gelan, aldarean, espaloi distiratsuetan, gure begiek etengabe hazi-eskukada eskatuz. Ta hori dena, ta ezer gehiago. Zugandik ezer espero ez denean zara kasik askea.

1215. katean

1215. katean bada gizon bat, espazio herdoilduari agurtzen, begiak pantailan erretzen. Orbainez betetako gizona, orbainez zeharkatutako bizkarra. Bizirik darraien distantzia heriotza da. Bizkarra orbainez josita duen gizona 1215. Katean irrifarretan galtzen da. Esku ustelak belaki zuriko mundu batean. Begiak pantailan erretzen, hiriko komun zikinenaren zuloan. Orabainez zeharkatutako bizkarra bere begiak erretzen. Inork idazten ez dituen gutunetatik hasita, ito gintezkeen goizeroko kafesneraino. Ohean gaixorik ginen distantzia bizitzan heriotza zela genionean, betiereko bihotz-oinazearen distantzia bizitzan heriotza dela diodanean. 1215. Katean irrifarretan galtzen da, esku ustelak, aipaezin gatazka ezkuatuak zelai berdea gorritzatzen. Makurtu aurrerik farretan galduta.

Nekearen Teoria

Zure denbora ez da zure adatsa bezain luzea. Zure aurpegiak beste izaki batena dirudi, adia egiten duzunean. Bihotzetik ezin ihes egin, ezin deus ere oratu. Ezlekuak, oraindik, orain. Haur biluziak herriak eraikitzen. Distantziak infinituak dira, ta uneoro euren begiakur lodiez betetzen dira. Zubi labainkorra, oheratu nahi ez duten giltza-peratutako pertsonak, gaua berrasmatzen. Beldurra da, besterik ez, sexua, gosea, iluntasunari eusten, tinko oratzen hutsuneari. Euren hortz-haginak salgai, ta euren korbata, koloretsu aberrigabeak. Mundu estralurtarrak sabai zurietan bildu eta pikutara bidali ditut gaueko hiruretan. Istripu bat izan delarik gure leihopean. Nik jakin badakit hau ez dela hotelik aproposena. Jakin badakit, nik, zirkulazioak ez duela sekulan atsedena hartzen eta pintura paretetatik erortzen dela. Beldurra da, besterik ez. Ez-lekuak.

Gidoiak

Martxel Mariskali egin beharreko elkarrizketa diskoko hitzetan oinarrituko da. Hortaz, ezlekuen inguruan esaten dena izango da hizpide. Bertan, idazle eta musika taldearen artean den harremana, etxe eta estudioko bitarteko konexioa, etxetik kanpo den espazioaren inguruan etxetik idaztean sortu daitekeen talka edota diskurtso soziologikoak dakarren zurruntasun eta hizkera poetikoren interpretazio zabalean sortzen den talkaren inguruan galdetzea da asmoa.

1. Aurkezpena

- Elkarrizketatzailearen aurkezpena
- Lanaren nondik norakoa, honen arrazoia eta elkarrizketaren zergatiaren aurkezpena.

2. Idazle eta taldearen arteko harremana

- Nondik dator
- Nolakoa da
- Hitzak idazten diren espazioaren eta estudioaren arteko bereizketa/lotura
- Ezlekuak lanaren norantza: hitzetatik musika egitera?

3. Nondik sortzen dira hitzak?

Etxetik

- Etxeko espaziotik, etxetik kanpo dauden espazioen inguruan aritzeko
- Etxetik sortu eta etxearen (leku antropologikoa, identitatea, jatorria...) aldarria.
- Etxe eta estudioaren arteko lotura

Soziologo bezala

- Ezlekuen ulerkera soziologikoa
- Teoria eta ezagutza soziologikoaren erabilera

Idazle bezala

- Ezlekuen ulerkera poetikoa
- Metaforak lengoailaren ezleku gisa

Poesia eta soziologiaren arteko tentsioa

- Poesiaren bitartez, soziologia publikora eramatea
- Testuinguru neoliberal baten aurrean, diskoan hitz hauek argitaratzeak zer suposatzen du
- Poesiaren irakurketa zabal eta diskurtso soziologiko zurrunaren arteko tentsioa
- Hitzaren izaera dialektikoa: Diskurtsiboki identitatearen aldarria eta poetikoki identifikazioa?

Karlos Osinagari egin beharreko elkarrizketa berriz, diskoko musika eta ekoizpenean oinarrituko da, espazioaren erabilera ardatza izanik. Taldeak duen ekoizteko eran diren teknikak, estudioko gelaren erabilera, soinuaren eta hitzen arteko tentsioa, instrumentuekin duten harremana eta oholtza gaineko jarrera edota era autogestionatuan duten funtzionamenduaz galdetuko da.

1. Aurkezpena

- Elkarrizketatzailearen aurkezpena
- Lanaren nondik norakoa, honen arrazoia eta elkarrizketaren zergatiaren aurkezpena.

Idazle eta musikari arteko harremana

- Disko kontzeptual soziologiko bat zergatik?
- Nola musikatzen dira Martxelen hitzak? Nolakoa da elkarlana?
- Martxelek etxean sortzearen eta estudioko/lokaleko ekoizpenaren arteko tentsioa

2. Ekoizpena

Estudioa

- Nola grabatzen du Lisabök?
- Mikrofonaren kokapena, distantziak eta erreberberazio naturalak
- Soinuaren espazialitatean eta hitzetan den espazioaren definizioaren arteko tentsioa. Soinuaren distantzia fisikoa eta ezlekuek dakarten distantzia bat datoz?
(Disko amaieran, ezlekuak dioen oihua adibidez. Zuzenean berriz, mikrofonotik aldenduz oihukatzea.)
- Nola ulertzen da estudioko espazioa? Lekua ala ezlekua?
- Ekoizpen espazioa (estudioa) eta espazio erakuslea (zuzenekoa) bereizita?

Instrumentuarekiko kokapen eta harremana

- Anplifikagailu aurrean kokatzea
- Akople (soinuaren retroalimentazio edo feedbacka) bat nola ulertzen den
- Publikoari bizkarra eman eta taldekideen artean borobila osatu

Distantziamendu teknikak

- Argi zuriarekin jotzea
- Publikoarekiko distantzia sinbolikoa apurtu eta espazio distanteei buruz abestu?
- Hautu politikoa: izatetik egitera edo egitetik izatera. Identitate ala identifikazio artean

Neoliberalismoaren aurrean, zer?

- Diskoaren bidez ezlekuei aurre? Publikoa eta mezuaren irismena
- Bidehuts zigilua, autoekoizpena eta beste musika proiektuekin harremana
- Fugazi, Shellac, The Ex bezalako influentziak, ez soilik musikalki, politikoki ere bai? Do It Yourself filosofia

Transkribapenak

Martxel Mariskal

Lehen kontaktua eta aurkezpena
(..)

Jon: Iruditzen zaizu grabatzen badet audio bidez elkarrizketa, gero transkribatzeko?

Martxel: Gero zuk lan egiteko lagungarria bada, grabatu zazu.

Jon: Bai? Arazorik gabe.

Martxel: Bai, gero Jon, edozein momentutan, inongo beldurrik gabe esaidazu, tendentzia dut eta nahiko ohituta nago baxu hitz egitera, monokorde. Saiatuko naiz mantentzen. Ikusten baduzu jeisten ari naizela edo, esaidazu. Martxel, igo pixka bat. Gero zuk lan egiterakoan ez ibiltzeko...

Jon: Bale, bale. Ederki. Ba daukat gidoitxo bat prestatuta, eta nahi badezu has gaitzke, edo zuk esan.

Martxel: Bai, bai. Hasi.

Jon: Ba lehehengo gauza zan, ez dakit...ziurrenik Iñakik komentatuko zizun zertaz dijoan lana eta hori, baino ari naizela iten da, hartu det ba...bueno, eta telefonoz ere esan nizun aurrekoan, pixkatxo bat. Hartu detela Lisabören ezlekuak diskoa, eta asmoa zala batetik aztertzea hitzak, eta zer esaten dezun bertan. Orduan, bai aintzat hartuta espazioaren inguruko teoria eta bai, Marc Augérena edo ba ezlekuen inguruan. Baina, baita ere hartu det...bueno, esaten dizut hau ze pentsatzen det soziologo bezala ezagunagoak egingo zaizkizula igual Karlosi baino eta...Eta Henru Lefevbreren la producción del espacio, eta bueno teoria batzuk hartu ditut eta asmoa zan... lana bereizi det bitan. Batetik, hitzak eta bestetik, musika eta ekoizpena. Orduan, egin det hitzen gaineko diskurtso analisi bat eta orain nahi nizun hitz horien inguruan galdetu. Eta pixkat bat da kontrastatzea diskoan zehar ezlekuei buruz esaten dena, hau da, espazioaren inguruko ulerkera edo ze simbolismo dauden espazioaren inguruan eta gero, nola erabiltzen dan espazioa musika egiteko garaian, edo estudioko ambientea lortzeko garaian...Pixka bat...ze tentsio dauden bi espazio horien artean. Eta bueno, hau esanda, ez dakit...pixkat abstraktua da, neretzako ere bai, baina...Hasiera batean galdetu nahi nizun ea nondik datorren zuen arteko harremana, zurea eta Lisabörena, nola hasten da?

Martxel: Bai, bueno. Harremana dator esango nuke...bueno, nik lehen talde bat banuen, talde batean jotzen nuen, Beti Mugan izenekoa, eta beraiek...Bueno, gu Hondarribikoak gera, beraiek Irungoak, bueno, azken finean asteburuetan eta, Irun eta Hondarribiko jendea toki berdintsuetara joaten ginen. Bai tabernak, bai kontzertuak, bai gaztetxeak...eta, ba Karlos eta hauek Beti Mугanen kontzertuetara etortzen ziren, ba Beti Mугanen jarraitzaileak ziren. Eta gustukoa zuten egiten genuen musika eta abar, eta

bueno, horrela hasi ginen elkar ezagutzen, gau giroan. Eta bueno, hasi ziren haien musika bidea egiten, haien aldetikan, eta halako batean, gogoratzen naiz 2001eko udaberrian, oso ondo gogoratzen naiz 2001 zela. Datekin eta oso txarra naiz, baino honekin ondo akordatzeko naiz, ze urte hartan banindoa ni lanera Estatu Batuetara, zan nire bigarren periploa Estatu Batutan. Eta justu udaberri hartan, Donostiko Kursoa baten... bueno, emanaldi batzuk baziren, arte emanaldi ezberdinak, eta beraiei proposatu zieten, zan talde osotu berria...ba, emanaldi berezi bat. Eta orduan nerekin hitz egin zuten. Kontua da Egun Bat Nonahi sortu genula. Nik idatzi nuen testu bat, zirela hogeitatu folio, zan testu bat...titatataa. Eta izan zan emanaldi bat ordu...idea zan ordu oso bat, gutxi gorabehera, musika etengabe. Hau da, ez da ohiko pop-rockean bezela, hiru-lau minutu gelditu, hiru-lau... Zan...Ta bitartean, beste artista batzuk pintatzen, dantzatzen...Hori izan zen gure lehen, elkarrekin egin genuen lana. Eta hor ia lana egiteaz gain, gure sentsibiltate artistikoak, musikalak eta...guztiz batu ziren, eta elkar ulertzea izan zan erabatekoa eta...asko disfrutatu genuen ere eta hortik aurrera, gure laguntasuna finkatu zen, eta hortik aurrera ba, benetako lagunak gea eta bidea egin dugu elkarrekin, sormen munduan, bai.

Jon: Eta harreman hori, gaur egun nolakoa da? Edo nola egiten dezue lan normalean?

Martxel: Bueno, lan egiten dugu normalean, nire egoera dela eta, nik ezin dut zarata asko dagoen tokitan ezin dut egon...nire oinazeak direla eta. Orduan, gure lan eiteko era da...hitz egiten dugu, asko. Aldez aurretik badago...askotan hilabetean dira, batzuetan ere urteak hizketan...Hau egin genezake, beste hau egingo nuke, hau daukagu buruan...pin pan. Batez ere, Karlos eta biok asko hitz egiten dugu, Enekin ere. Eta gero ia lokalean hasten direnean musika artxiboak egiten, musikari forma ematen...Eta ia zerbait ikusten danean aurrera dijoala, eta hor ikusten dutenean ya hitzak sartu daitezkeela edo hitzen laguntza behar dela, orduan ni etxean hasten naiz entzuten. Eta nik beti etxean entzuten dut, ba pentsa daitekeenaren kontra, Lisabö oso baxu entzuten dut. Eta beti berdin jokatzeko dut, argi guztiak itzaltzen ditut, etzanda jartzen naiz bakarrik nagoenean. Normalean hartzen det arratsalde bat edo, jartzen naiz etzanda eta entzuten dut, besterik gabe. Eta askotan ez dut ezer idazten, eta maiz daukat note book bat, bueno...bakarrik idazten ditut hitzak, kanta bat idazteko asmorik gabe. Lisabökin hori da, denbora ematen diot beraien giroari, musikari...nigan sartzeko. Eta gero, bigarren pausu bat izaten da, eta hau ez da inoiz mediatu dudana zerbait, ez aurretik pentsatu izan dudana zerbait. Hau da, ez da metodologia bat nik nahita landu dudana, baizik eta ahala egin dut, ahala sentitu dudalako. Badago bigarren fase bat, esan daiteke, musika hori hartzen dut nirekin eta juten naiz hemen Jaizkibel ingurura, eramaten dut nirekin, eta gauza bera, entzuten dut musika, besterik gabe. Oraindik hitzik gabe. Eta ia hasten dira irudiak sortzen nire buruan. Hau da, entzute horiekin ia zenbait irudi, eta zenbait sentsazio forma hartzen hasten dira eta ia zirikatzen. Zirika hori ia nahiko garbi ikusten dut, nondik norako hori hasten naiz nabaritzen eta bueno, ia urduri eta dena jartzen naiz (barrez), ia ikusten dut...buff, ia hasten naiz...badakizu, sentsazio hori? Eta gero dator, esan daiteke, hirugarren urratsa, dala testuak lantzen hastea, ez? Eta horren bueno, entzutearen poderioz, eta bueno...ia gehio da idazlearen lana, zirika hori, giro hori, sentitze horri forma ematea ahalik eta modu txukunean, txukunenean. Bai nik dudana idazte modu hortan, eta ahalik eta fidelena izanik, ba...Lisabö mundu hori errespetatuz, ez? Bai, egia esan, horrela izaten da. Bai.

Jon: Gero, aipatu dezu etxean sortzen dituzula hitzak

Martxel: Bai.

Jon: Eta galdetuko nahiko nizuke, ea ze talka egon daitekeen edo ze lotura edo bereizketa...zuk etxean sortu eta beraiek beste aparteko lokal batean ensaiatuko dutela pentsatzen det, orduan bereizketa hori nola ulertzen dezu?

Martxel: Gero dator laugarren pausua, ez? Jarraituz. Dala, bueno peña, nik zirriborro hau egin dut kanta honentzat. Adibidez, track honentzako, a ver zer iruditzen. Eta beti esaten diet beti ere irekita nahi baduzue mozteko, jolasteko, a ver ahotsarekin nola dijoan...eh eta abar, eta abar. Zuek orain lokalean...gauza bat da nire buruan, zuek orain lokalean zuk diozuna, ez? A toda pastilla, bolumena igota, garrasi eginaz...Zuek orain guzti ori oholtza gainean zaudenean bezala, hori botatzerakoan, agian ez du funtzionatzen, ez? Ez da gauza bera bere registro hortan. Eta bueno, orain arte, feedbacka, bueltan beti izan da: jode, orain arte eta kuriooa da. Zure galdera zilegizko galdera da eta kuriooa ere, ezta? Nik egiten dut dena registro batean, edo mundu isil batean eta gero, transpolazio hori, beste mundu...ze klaro, Lisabön lokalean sartzen zeranean, pentsa zer den hori...pin, pan...jaitsi hori, pin, pan... Eta, ez dakit indulgenteak direlako nirekin edo zer, beti kontent geratu dira. Noski, gero beti lantzen dugu...Martxel, esaldi hau, hau...Ez dakit, beti zorrotzu beharra dago, lana egin beharra, elkarrekin lan egin behar den bezela edo ahotsarekin edo beste instrumentu guztiakin bezela, ez? Baino uztartze hori, lokalean printzipioz funtzionatzen du, ez? Eta zuk diozuna, horrek ematen du zer pentsa-esana, ezta? Funtzionatzeko modu bat da, eta gure kasuan funtzionatzen du. Bai, nahiko modu naturalean esan nahi dut.

Jon: Eta espazio bezela, nola...zure etxea eta beraien lokala. Zuk nola bizi dituzu bi espazio horiek? Pentsatzen det zure etxea oso gertuko dela, eta beste berriz, musika egiteko soilik den gela bat edo.

Martxel: Bai. Eh, neretzat beraien lokala da toki bat non, noski, denbora gehiago pasa nahiko nukeen, baino nire muga fisikoa dela eta, ezin dut. Hau da...oso frustrantea da neretzat. Hau da, nik gaur egun, oraindik ere ezin dut adibidez, tabernetara joan, ezin dut lagunekin elkarte batera joan afaltzera...ze hamar minutu ondoren...edo analgesikoz honaino beteta nago, edo egin dudanean zerbait berezia...Azken aldian, ba Iñigoren kontzerturako ba spoken word horiek, edo udan ere zerbait egin genun. Eta egin dudanean zerbait puntuala, ba nago guztiz anestesiaturua, nolabait esatearren, ez? Eta gero gainera, badakit hurrengo bi egunak egon behar dudala ohe gainean etzanda, horrela da. Faktura handia pasatzen dit. Orduan, neretzat beraien lokala da...ez dakit nola definitu. Eh, kasi sakristia bat bezala, ez? Non atea jo eta begiratu eta hor zerbait magikoa gertatzen ari da, edo zerbait sakroa, baino itxi behar dut ze neri ez dagokit oraingoz hor egotea, ez? Baino, era berean hor nago.

Jon: Gero, beste kontrasteetako bat edo, ez dakit. Komentatu nahi nizun ezlekuak lanean hitz egiten dezu etxetik kanpo dauden espazioen inguruan, ez? Nahiko espazio urbanoak eta hiritarrak, baino aldi berean, etxetik idazten dezu. Orduan, ze talka dago etxetik idatzi eta kanpoko mundu urbano hori deskribatzearen artean?

Martxel: Bai. Baino bueno, talka dago, baina ez dago. Zergatik? Lehenengo, ezlekuak idatzi aurretik, banituen...mundu kosmopolita, nolabait ezagutu izan dudalako, ez? Esan nahi dut, sei urtez bizi izandu nintzen ordurako Estatu Batuetan, adibidez. Boston bezlako hiri batean bi urtez lan egin eta bizi izandutakoa. New York hiria ondo ezagutzen nuen, Inghaterran izandutakoa, Amsterdamen...Bueno, hiri askotan, ez? Esan nahi dut, gauza bat dela, bestea dela...bai ikasketak, lana, bidaiak eta bestelakoak, eta lagunak munduan zehar, nolabait ere. Ordurako banuen rekorrido bat, ez? Eta nolabait, pertsona bezala ezagupen bat in situ, ez? Mundua nondik nora zihoan eta ze gertatzen ari zen. Bostonen zan nere...kajoi batean geratu zen ere nire bigarren nobela izatekoa zena, Bostonen aritu nintzen idazten, eta han...ea noizbaiten gai naizen horrerri eusteko. Hor ere hiriaren taupadak eta hirian ikusten nitunak, ba saiatzen nintzen hiriari traza hartzen, eta hiriaren mugimenduak. Eta baita ere anonimotasun hori, hirian sentitzen dana, ez? Saiatu nintzen Bostonen bizitzen ba...Hemen denok dugu elkar ezagutzen, ez? Eta hara joan nintzenean, bizi nahi izan nuen, ba hiriak eskaintzen dizun, ez? Anonimotasun horrekin, ez? Bizi nahi izan nuen...beti irudikatzen nuen helikoptero bat pasa zela han utzi ninduela, Bostonen erdian eta nire nortasuna asmatzerik banuela imajinatzen nuen, ez? Hemen ez dena gertatuko, hemen hori etxean egiterik ez daukagu. Eta nire eguneroko bizitzan joko moduan hartzen nuen askotan hori, ez? Ez fantasia bezala, baizik eta, bueno pixkat nire buruan jokatzeko nortasuna, identitatea, pertsona...nola irekitzen den gure izaera eta gure loturak, eta zer den benetako izatea eta folklorismoa non geratzen den, eta gure erroak benetan zeintzuk diren eta...nola egiten den norberaren bidea eta...Orduan, nire...Bostonen izan nuen esperientzia, alde horretatik asko erabili nuen, ez? Orduan, ezlekuak idazterakoan nik ez nuen tratado bat egin. Oso modu irekian eta metaforikoan dago, baino ulertu nahi duenarentzat, badire esaldiak non ikusten da...ba bueno, gauzak oratu nahi baina labainkorrak direla, eh...sentsazio hori, bueno, Marc Augé aipatzen dituen guzti horiek ere, ez? Hortik dator, ez? Izena, ba bueno, batez ere globalizazioarekin, joan-etorri hauek, eta gero azken finean, neri burura etortzen zait beti, eta barkatu eh, ze asko...beti joaten naiz, abarkatzen zait pentsamendua gehiegi askotan. Beti pentsatzen dut pertsonarentza oso garrantzitsua dela bakarrik egoten jakitea, baina era berean, pertsona bezala garatzen garela besteekin harremana izanez. Hau da, hori Senecak oso garbi esaten zuen, ez? Bueno, giza animaliak garenez, jakin behar dugu...berak esaten zuen, beste hitzetan baino...: El hombre una su soledad con el contacto con el resto de los seres humanos, ez? Y se cura de la relación de los demás en la soledad. Holako zerbait, ez?

Gertatzen dana, gaur egungo ezlekuen zabaltzearekin arrisku handia dago bakardadearen hedatze eta zabaltze honekin, ez? Eta hori gertatzen ari da...bueno, joaten ari naiz beste...galderatik urruntzen ari naiz, uste dut. Pixkat galdu egin naiz, barkatu.

Jon: Ez, ondo ondo. Segi.

Martxel: Pixkat galdu egin naiz. Eske egun hauetan pentsatzen ari nintzen zein garrantzitsua den...zenbateraino hurruntzen garen gure esentziarengandik, ez? Adibidez, globalizazioarekin, eta ezlekuak eta zenbat eta gehio...tokiek galtzen ari diren nortasuna, ez? Joaten zera Amsterdameko gunera, edo Londoneko gunera eta toki guztiak dira berdinak. Ba denda berdinak, iragarki berdinak, janzkera berdinak...etab. Pantailarekin gauza bera eta abar. Gero, gizakiak behar du besteekin harremana. Horrek alden du egiten baitu, berdintze horretan, homogeneización esaten dan horretan. Gauza

bera gertatzen ari da sare sozialekin, ez? Sare sozialek hartu duten bidearekin behintzat, eta mundu birtualak hartu duen bidearekin. Eta orain, itxiera honekin, Covid-19a dela eta, itxiera honekin ere, barne erreflexio... eta badirudi jendea konturatzen ari dela ze garrantzitsua den auzokidearekin ondo moldatzea eta abar. Eta horrelako pentsamendu goxoak...eta jo, nik pentsatzen dut: Ze inuxenteak garen. Zer uste duzu, bi hilabete horrela egoteagatik sistema aldatuko dela, gure bizitzeko era aldatuko dela, gure pentsamoldea aldatuko dela? Berdin jarraituko dugu, gure ekonomia moduak berdin jarraituko du. Hori pentsatzen det dala, ez? Hau da, aldendu gera hainbeste gure giza naturagandik, ez gerala erreparatu eta iruditzen zait, jada urrundu gerala gehiegi, eta oso zaila izango dala bueltatzea, oso oso zaila. Zeren makro interes oso handiak daude, ez? Naturarekin gauza bera egin dugu, hainbeste urrundu izan gara naturarengandik, hainbeste ustiatu eta jipoitu dugu natura, horren ondorioz gertatzen ari den guztia pixka bat makillatuko dugu, baina jakin nahiko nuke zer gertatzen den datozen urteetan eta. Bueno, urrundu egin naiz, baino bueno...zerbait aterako duzu.

Jon: Ondo. Bai, ziur. Gero baita komentatu nahi nizun ea etxetik sortzen dituzun ezlekuetako hitz horiek etxearen aldarri bat edo etxea baino igual Marc Augé deskribatzen duen leku antropologikoaren aldarria egiten duten.

Martxel: Bueno, funtsean egongo da. Baino, ez bereziki. Pentsatzen dut aipatu gabe ere denok behar dugula, eta bueno euskaldunok, euskaldunak garenez, euskaldunok badugu alderdi hori nahiko garatua, ez? Beste zenbait...adibidez, munduan zehar zaudenean, beste alderdi batzutako pertsonak ez dute...oso modan egon da beti esatea: soy ciudadano del mundo, ez? Eta badirudi hori esatea dala modernogo izatea, ez? Zuk pixkat aldarrikatzen baduzu zure sustraiak eta zure historia eta zure familia eta...bueno, gustora bizi zarela jaio zaren tokian eta...badirudi ez dala oso moderno jaio eta hiltzea...bueno, hiltzea jaio zeran toki berean badirudi nahiko anakronikoa dela, eta abar, ez? Orduan, pixka bat begirada kritikoarekin ikusten badugu, ze arrisku dauden iragankortasun hortan, sortzen den bakardade hortan hiri eta bakardadea elikatzen duten toki erraldoi guztietan, inpersonal guzti horietan, ba inplizituki nolabait bai ari gera...ez zait hitza etortzen, bai ari gera nolabait defendatzen gauzak, beste modelo bat badagola, ez? Gauzak...beste ikuspegi bat badagola, non gizakiaren neurria errespetatzen den non etxea ez du zertan izan behar toki itxi bat, non askatasuna ere bizi daitekeen giza talde txiki batean eta...Segurtasuna sentitzea ez duela zertan askatasunaren kontra joan behar. Pertsona oro garatzeko segurtasun puntu bat behar du, bestela datoz urduritasunak eta hortik tiraka...gehiegizko abiadurak, gehiegizko urduritasunak...gehikeriak azken finean. Eta zaila da hortik jota pausatzea, pausatu gabe ez dira erabaki egokiak hartzen. Hori da gure gaitzetako bat, ez? Orduan, bai. Badago aldarrikatze bat, hor doana, derrigorrean, derrigorrez, ez? Hau da, beste era batean egin daitezke, hau da, aldarrikatzea ez etxearena bereziki, lau paretadunak, baizik eta beste gizaki...komunitatearen tamainan pentsatzea gehiago. Ez familia eta ohiko familia eta nik uste dut, eta hau da ikasi beharko genukeen lekzioetako bat gaur egun, jada ez badugu ikasi, ba hiriak eta ez hiriak, hiriak bitratekoak eta transitoak egin behar dirala gero eta gehiago tamaino hortan pentsatu behar dugula, komunitatearen tamainan. Errespetatuz ba gizakia eta gizakiaren benetako beharra eta benetako, lehen esan dudana, izatea eta natura, ez? Ez hainbeste etekina, bestela da dena etekina, etekinaren baitan.

Jon: Earki, ba baita ere komentatu nahi nizun ea...bueno, eta ziurrenik, igual aurrez ia erantzun dezu, baina...hein batean behitzat, baina ea nola ulertzen dituzun soziologo bezala ezlekuak.

Martxel: Ba, nik ezlekuak lotzen dut...diska edo...kontzeptua?

Jon: Kontzeptua, soziologikoki.

Martxel: Bale. Bueno, ulertzen dut...Badakizu zer gertatzen zait? Nire ibilbideagatik berehala lotzen dut Estatu Batuarekin, baino klaro, oso gauza pertsonala da. Zeren oso bizipen intentsoak izan nituen han bai ikasle bezela eta bai lan munduan eta sei urte oso potenteak. Orduan, hemen Euskal Herrian...begira, hemen Euskal Herrian bakarrik daukagu metropoli bat, dala Bilbo. Orduan, euskaldun gehientzat zenbait kontzeptu zailak dira ulertzea. Baina maila guztietan eh, ez bakarrik kontu honetan. Zeren denok bizi gera herri txikitan edo ertainetan, auzoaren kontzeptua oso argi daukagu, herri gehientan ditugu hamabost lehengusu edo hogeit hamar lehengusu (barrez) edo...Aldiz, Estatu Batuetan kotxerik ez baduzu, autorik ez baduzu, ez zoaz inora. Han distantziak ikaragarriak dira. Bakardadea sentitzea askoz errazagoa da. Orduan, neri irudiak asko etortzen zaizkit ezlekuak aipatzean edo ezlekuak inguruan aritzean...adibidez, nik lehenengo Mall-ak edo komertzio gune erraldoiak han ezagutu nitun oraindik hemen etzeudenean. Ta jendea juten zan asteburua pasatzera, hara. Eta ezaugutu nitun Mall edo zentro komertzial hauek hotelak, eta hotelak itsatsiak zituztela eta guztia. Ta zan jendea juten zala ostiralean eta asteburua han pasatzen zun. Hotelean sartu eta asteburu guztia erosten. Hau da, zer izan daiteke hori baino inpersonaleagoa, ez? Eta etxetik horra juteko noski, kotxez. Autobusez edo garraio publikoan...nik hartzen nitun, hainbat garraio erabiltzen nitunak bakarrik ikusten zenitun, hemen orain gertatzen hasi dena, kanpotarrak bakarrik Orduan, adibidez, asko lotzen dut ezlekuak...begiratzen ari naiz hara, ze badituz hainbat liburu (kamara liburu apal batera zuzenduz)...Jean Baudrillard, ezagutzen duzu?

Jon: Bai.

Martxel: Badauka liburu bat, el crimen perfecto. Ezlekuak lotzen dut asko liburu horrekin, el crimen perfectorekin. Ze hor egiten du oso metafora ona...bueno, hor gehiago hitz egiten du irudiarekin, ez? Saltzen diguten irudia, la pantalla azken finean es el crimen perfecto, ez? Hor aipatzen du..The Velvet Undergrounden kanta...ez dakit akordatuko zaren, I'll be your mirror, se ve tu espejo, reflejaré lo que eres...Eta, ba isla, irudiaren isla hori lotzen dut ezleku fisikoarekin. Zaila egiten zait hau orain hitzekin esatea, baino pantallarekin gertatzen ari da, hau da, la pantallización del mundo, lotzen dut asko ezlekuetaz hitz egiten degunean, hitz egiten dugu edo burua joaten zaigu arkitektura fisikora. Baina niretzat dijoa haratago, iruditzen zait dala fisikoa eraikuntza eta distantzia eta kontu fisiko honetaz gain, edo honekin batera, da plano birtualean eta pantallaren planoan eta tartean dagoen Walt Disneyen tarteko mundo cartonizado honen tarteko...ez? Resort handi hauek, hor badago korrelazio bat fisikoa, kartoia eta pantallaren arteko hortan, niretzat ezlekuak hori da. Eta azken finean da, benetako munduaren...zaila da benetako zer den esatea, baino transpolarizazio bat egon da hor eta gertatzen ari da gure begien aurrean eta sustituzio hortan gaituzten ari da ezleku hori, poliki-poliki eramaten ari gaituzte ezleku hortara, eta klaro, eramate hortan, moldatzen ari dira harreman motak,

moldatzen ari dira, noski pentsamenduak, pentsatze motak, gure interesak ere zenbat eta gehiago hara eramaten eta bueno, oso sutila da dena, ez?

El crimen perfecto, jo horrekin ari zerala, botako nioke begirada bat. Agian ikusten duzu hor lotura, beste plano batean.

Jon: Bai. Ez det irakurri liburu hori, ezin dizut erantzun.

Martxel: Bai. Eta erantzuten bukatzeko, esan dizut eh, ni oso difusoa naiz. Erantzuten bukatzeko, esango nuke behintzat ezlekuak sortzen duen edo sortuko lukeen mundua dela, nik behintzat gizaki bezela nahiko ez nuke mundua. Zeren pertsona bezela sentitzen dut, bai ni, bai nik maite ditudan pertsonak aldentuko gintuzketela, nindukeela...Nire esentziatik aldentuko gintuzkeela zeharo, eta hori ez nuke nahi. Ba, adibidez nire alaba txikiarentzat ez nuke halako munduko bat nahi, ildo horretatik doana. Orduan, ze holako munduak puskatuko luke gizakiok elkarrekin dugun indarrarekin, ez? Lehen esan dudana, komunitate hitza neretzako gakoa da. Eta hori mantentzea uste dut dela, beste hainbat konturekin batera, oso kontutan eduki behar dugun erronka, gaur egun. Bai.

Jon: Eta nola hartu zenun beste taldekideek, musikariek, proposatu zizutenean kontzeptu honen inguruan disko bat egiteko?

(45:00) Martxel: Ba ondo. Ze pentsatu genun...bueno, nik beti esaten diet, eskubide osoa dutela...noski, eskubidea ez da hitza, aukera osoa dutela atzera botatzeko hitzak edo aldatzeko. Alde hortatik, askatasun osoz lan egiten dugu, bai? Gustura hartu nuen nerekin akordatzen direlako beti, hori lehenengo gauza, ez? Ta bestalde, iruditzen zaidalako nahiko...nahiko magia puntua baduela egiten duguna, ez? Behintzat niretzako beti poz iturria da. Erronka da, baina erronka polita. Esan nahi dut...bada puntu bat, badut puntu bat, askotan nekatuta edo saturatuta geratzen naiz edo sentitzen naiz. Ikusten ditut hainbat formula arte munduan bai literaturan, bai musikan...errepikatzen direnak, ezta? Eh, eta kontua ez da errepikatu, baizik eta...zaila da gauza berriak eskeintzea. Has gaitzen hortikan, ez? Oso zaila da. Baina baita ere, neketsua da jasotzea gehiegi errepikatu diren formulak eta beti...zenbait esaldi, amorru handia ematen dit zerbait entzun eta ia bukaera entzun baino lehen zu ia aurreratzen zeranean eta holako sentsazioak, ez? Eta, hori esanda, badira gauza zoragarriak egiten direnak eh, dudik gabe, zorionez, eta jende gaztea bada, chapo eta eskerrak. Baina neri Lisabökin gertatzen zait, badela berrindartze bat elkar lan egiten dugun bakoitzean neretzako, nire espiritu, nire barrenean bada erronka puntu hori, baina baita berpizte bat, ez? Astinaldi bat neretzako, astinaldi bat. Orduan, konkretuki lan honekin, ez genuen esan, bueno, guztiz kontzeptuala izan behar du eta Martxel, irakurri zazu Marc Augéren liburua, hau eta bestea...ez. Esan genun, bueno, hau da kontzeptua, traza orokorra izan zen baino ez genun helburu bezala...zan gehiago, nire bizipenetaz baliatuz, eta horrela. Orduan, gustura hartu nun, ze lotuta zijoan ideia nire pentsamenduekin, ez? Eta lehen esan dizudana, ideiak edo planteamenuak iritsi aurretik edo mahai gainean jarri aurretik, normalean hitz asko egiten dugu. Eta elkarrizketa arrunt, eguneroko elkarrizketa arrunt batetik sor daiteke ideia bat, baina konturatzen gero...joe, hontaz lehen ere hitz egin degu eta abar, ez? Orduan, bazen zerbait, bueno biraka hor zegona, bai.

Bai jasotzen det beti ardura bezela. Pentsatzen: gai izango naiz beraien asmoa betetzko? Hori da beti nire ardura, nire kezka, ez? Baina bueno, beraiek beti...bueno (barrez), beraiek beti oso baikorrak dira eta...Egia esan...baina oso exigenteak dira eh. Esan nahi

dut, gero lan egiteko orduan, nik ikusi ditut lanean, lokalean eta bueno, dira oso-oso zorrotzak. Gero oso zorrotzak dira lanean, oso exigenteak, azken minuturaino, azken grabaketa bukatu, azken segunduraino, bueno...dena dago bueltaka eta bueltaka eta hau...bai, dira oso exigenteak eta buruarekin oso exigenteak, bai, bai. Eta bueno, horrela. Jon: Hortaz, esango zenuke teoria eta ezagutza soziologiko baino, gehiago probestu zenuela zure esperientzia, hitz hauek idazteko garaian?

Martxel: Bai, bai. Bai. Nire asmoaz ez zan izan bueno, nire...bueno, soziologoa naiz prestakuntza aldetik eta...baino, nik pentsatzen dut...a ver nola esaten dudan hau. Tratado bat idazteko adibidez, edo teorizazio bat egiteko, badaudela bideak, ez? Estudio, ikerketa zientifiko bat egiteko, hizkuntza guztiz denotatiboa, dena zehatza ta mehatza izan behar duna eta abar. Sormen munduan, niri sormen munduan ez zait gustatzen papistak izateko nolabait. Hau da, ez zait gustatzen, asmotan amorrua ematen dit, bueno ez amorrua, ez dakit nola esan. Niri behintzat, nire kasuan ez zait gustatzen hainbat hitz lapidario erabiltzea eta gutxigo hainbat mezu dogmatiko erabiltzea. Ez naiz eroso sentitzen eta gainera, horiek esateko, erabiliko dut elkarrizketa bat edo artikulua bat edo tesina bat, bai? Nik uste dut gizakiok haratago joan behar dugula, eta gizakiok garatzeko dugun tresnarik aberatsena hizkuntza da. Hortan sinisten dut erabat. Horregatik hainbeste sinisten dut artean, sormenean...eta zirikatatu behar dugula elkar, bai eguneroko harremanean. Zeren, oso...bizi gara oso zurrunduta. Egin behar dugu zirikatzen jarraitu eta askatzen, gure buruataz farre egin eta ikasi behar dugu elkarri besarkatu baino, baita ostikadak jo eta behatza sartu belarrian, eta sudur puntan...Zergaitik? Askatu behar gara, askatu behar gara zenbat eta gehiago, zeren galtzen ari gara gure izatearen alderi oso-oso garrantzitsuak eta hori nabari da eguneroko bizitzan. Eta artea hor kokatzen dut, alde batetik. Eta hizkuntza izan behar du tresna pentsatzeko haratago...Medioak eta sesudo guztiak eh...Silvio Rodriguezek esaten zuen bezela kanta batean: Que se acerquen los niños, los amantes del ritmo, qu ese queden sentados los intelectuales, ez? Esaldi hori beti daukatu buruan. Ba, ildo hortatikan, hizkuntza erabili behar dugu ehh, haratago joateko eta umeak bezela jokatu. Eta hizkuntza tresna bezela erabiltzerakoan, gai izango gera beste mundu batzuk sortzeko. Nik metaforak eta sortzen saiatzen banaiz, da neretzat indartsuago direlako. Neretzako behintzat indartsuago dira. Norbaitek zerbait zuzenean esaten badit, pareta hori txuria da, bai, hori badakit. Txuria dela ikusten dut. Baina esaten badizut pareta hori ez dela grisa, ia beste zerbait gehiago esaten ari naiz. Nik deskubritu behar dut zerbait. Ba, hortik tira egiten badugu, ba poesiarekin bezela, poesia den ez den...Bueno, poesia ez da defendatu beharrik edo artea ez da defendatu...Artea baliagarria bada, berak izango du nahiko indar bere baitan defendatzeko. Inork ez du defendatu behar sortutako zerbait. Badago poesia liburu txarrak, badaude nobela liburu txarrak...Badira fikziozko lanak ez dutela ezer balio, badire...eta badire artelan zoragarriak, betirako hor egongo direnak. Eta, kantekin gauza bera, hizkuntzak lagundu behar gaitu, ba pixka bat, nire ustetan izan behar dena, ba artisauak, ez? Behin eta berriro, behin eta berriro molde berriak egin, molde berriak ez, pieza berriak egin. Ez esateko, jo, que virtuoso es esto o no, ez ez, baizik eta...ze neri, egiterakoan burua eramaten badit beste nunbait, ez nahiz hor egon orain arte. Hori egitearen poderioz eta ni hara bultzatzearen poderioz, agian beste pertsona bat hara joatea ere lortzen dut, eta hizkuntzak badu indar hori. Eta nik ahala ulertzen dut. Orduan, ni ez naiz saiatu egiten ezlekuaren tratatu bat, ez? Gaur egungo bakardadea, lotuta gaur egungo bakardadearekin, edo gasolindegia hau sortzen dute, edo aireportuak edo Estatu Batuko sei lerrotako

autopistak, ez dakit zenbat kilometrotakoak eta hau ta beste, beauty free ez dakit ze, agertzen dira tarteka, ez? Baina dira, argazki, polaroidko argazkiak, ez? Eta bueno, pixkat serio jartze naiz agian, baina niretzat garrantzitsua da esaten ari naizena. Ulertzen? Zeren ez dugu hori galdu behar eta idazteko era hori nire egiteko xumean edo ahalmen xumean, lortzen dut Lisabörekin. Hori da nire sentsazioa.

Jon: Aipatu dezunez lengoailaren erabilera eta metaforak. Ulertu daitezke adibidez, metaforak lengoailaren ezleku gisa? Esan nahi det, bere esanahi originala desplazatzen den momentuan...ez dakit nola ulertzen dituzun metaforak eta lengoailaren, ez dakit, ba hori ezlekutasun hori. Ez dakit nola esan, baina...

Martxel: Bai, baino ezleku besteen kontra, ez ezleku alienanteak, baizik eta ezleku elikagarriak. Nik uste dut ezleku...behin eta berriro ulertu daitezkeenak, behin eta berriro bisita daitezkeenak, eta segun eta zu nola zauden edo ze momentutan entzun eta irakurtzen duzun, zerbait berria esango dizutenak ziur aski, ez? O segun nola ahoskatzen dituzun edo dantzatezen dituzun, ez? Orduan dira ezlekuak hemen fisikoki, eta eguneroko hizkuntzan ez dauden heinean, ez? Hau da, seguraski metafora horiek normalean ez ditugu aurkituko eguneroko elkarrizketetan edo eguneroko mediotan edo eguneroko prentsan, ez? Dira beste nunbait dauden esaldiak, ez? Baino entzun edo irakurri baditugu, gure izatearen parte bihurtu direnak, ez? Orduan ezleku horiek gure leku bihurtzen dira. Eta pentsatu nahi nuke leku txikitxo horiek pena merezi dutela, ezta?

Jon: Hitzei...bueno, buelta batzuk eta irakurtaldi batzuk eman ostean, nire sentsazioa da nahiko diskurtso zurruna dela, ez? Hitzetan zehar kontatzen dena, baino gero, aldi berean, oso irekia dela dauzkan metafora guztiegatik. Eta orduan, zuk nola ulertuko zenuke kontraste hori? Diskurtso zurrun bat, baina aldi berean irakurketa oso zabala eduki dezakeena.

Martxel: Bai. Pixkat lotuta lehen aipatu dudanarekin. Alde batetikan, bueno noski, pertsona bezala, ba nire pentsatzeak eta ideiak eta baditut. Denok bezala, nire zalantzak ere...baino batzuk nahiko finkoak, ez? Baino era berean, idazterakoan ez naiz modu panfletarioan idatzi...idatzi nahi, ez? Orduan, horrek ez du esan nahi, zuk ondo diozun bezala, oinarri bat badela gauzak nahiko garbi esaten ditudala. Hau da, ulertu nahi dituenarentzako, ez? Hau daukagu, baina horren gainetikan badago beste hizkuntza hori, bueno, non metaforak edo alegoriak daude edo hizkuntza, hizkuntz bat josatagarriagoa, ez? Gehiago jolasten da adjektiboekin, irudiekin, sentsazioekin, ez? Ez da bakarrik esatea, begira, mundua horrela da, hau da daukaguna, zer egingo dugu honekin...Baizik eta, bueno hau daukagu, orain horren gainetikan gustatzen zait ba hitzekin...esan duguna, ez? Ateak ireki zabaldu leiho batzuk, batez ere sentsazioak sortu, zuzenean esan beharrean hau horrela da, hau horrela da, hau horrela da...Ez? Sentsazioak sortu edo saiatu sentsazioak sortzen, imaginarioa bultzatu, ez? Irudikatze hori. Eta iruditzen zait egite hori aberatsa dela zeren bakoitzak zerbait ezberdina jasoko du seguraski. Beste moduan, oso denotatiboa baldin bada, panfletario puntu hori baldin badu, argi dago esaten dena ez? Oinarri denotatibo hori hor dago, baino bestea oso konnotazio zabala da, ez? Eta baita ere hizkuntzak hor ere hartzen duela, bueno nire ustetan, edertasun bat, ez? Eguneroko hizkuntzan edo hainbeste ez daukana eta iruditzen zait hori musikarekin doanean, ba gauza ederra dela.

Jon: Earki. Aipatu dezu behin baino gehiagotan komunitateak zuretzako daukan garrantzia. Eta nola ulertuko zenuke, bueno, diskoa argitaratzea testuinguru neoliberal baten aurrean? Nola egin diezaioke aurre, edo bueno, ez dakit aurre egiteko tresna den edo...

Martxel: Bai. Hor sartzen gera...neri beti...beste egunean lagun batek, bueno...Galdera oso potoloa da, zilegia da galdera, baina oso potoloa da, Jon. Aurrekoan lagun batek bidali zidan bideo bat eta pixkat moskeatu nintzen, zeren kontraesanak ikusten ditudanean...Gauza bat da, bueno aldarrikatu...gaur egungo egoeran, bereziki kontrolatzen ari gaituztela eta alarma egoeran eta telefonokin...eta aldarrikatu behar degula norbanakotasuna eta abar. Eta nik esan nion, begira, zergaitik ez dugu aldarrikatzen koherentzia behingoz? (Barrez) Eta ez dakit moskeatu zen edo beste gauza batengatik esan nion, orduan hitz hori askotan datorkit burura. Oso zaila da koherenteak izatea gaur egun eta janzten dugun arropa hasten bagera aztertzen, hasten bagera aztertzen zer jaten dugun, zer kontsumitzen dugun bisualki...Dena aztertzen badugu eta horren atzetik dagon mekanismo guztia, ba txundigarria da ez? Eta neketsua oso. Ariketa hori guztiok egingo bagenu, lehenengo gauza ez dugu egin nahi, eta gainera seguraski guri ez dagokigu, erabakiak beste batzuei dagokie. Baina batzutan hitz potoloekin betetzen zaigu ahoa, baina koherentzia minimo bat mantentzen saiatuko bagina guztiok, neoliberalismoa, eta gaur egungo ekonomia, zer etorriko den eta ez den eta laguntzekin bezela, ez? Ez dakit nongo jendea lagundu eta, primeran dagoela guzti hori, ez? Ta askotan ez gera erreparatzen ondoko etxeoak laguntza behar duela eta gauza guzti hauek, ez?

Orduan, zerbait argitaratzea gaur egun, argitaratzen dugu oro...zerbait produktu bihurtzen danean ia merkatu batean sartzen da. Orduan, kontrola galtzen dugu. Nik idatzi nuen nobela bat, Me llamo Ezequiel y así será siempre, argitaratu zen ni kanpoan negola, Eva Forestek irakurri zuen, gustatu zitzaion, baina nik kontrola galdu nuen berehala. Niri ezer esan gabe atera zuten bigarren edizioa, neri baimena eskatu gabe eta gauza itsusi batzuk egon zian. Eta ni kabreatu nintzen, joan nintzen almazenera eta erretiratu nitun ale guztiak. Eta hor konturatu nintzen zerbait, maitasun guztiz egin duzu, baina produktu bihurtzen da eta kontrola galtzen duzula. Nahiz eta izan gure mailan, hain maila xumean. Eta kontu handia eduki behar dala, ez? Orduan, alde batetik koherenziarena. Ez bakarrik zerbait publikatzen denean edo produktu bihurtzen denean, guztiok eguneroko bizitzan. Uneoro hartzen ari gera erabakiak. Zer kontsumitu bisualki, zer garraio hartzen dugun, uneoro hartzen ditugun erabakiak ondorioak dituzte, hala da. Neketsua da. Hori ere hala da. Eta sistema aldatzea are neketsuago. Pentsamendu kritikoaren inguruan aritu naiz Tabakaleran azken urteetan hilabeteetan behin saio batzuk egiten eta hor asko hitz egin dugu ba beste ekonomia sistemak, aurrera begira. Acelerazionismo...adibidez, la economía del bien común. Eta sistema batzuk funtzionatzen ari direnak, ta badakigu funtzionatzen ari direla ze munduan zehar, hainbat tokitan eta hainbat enpresetan praktikak jarriak daude eta funtzionatzen dute. Noski, goikoen eta behekoen arteko soldata tarreak txikiagoak dira, eta abar, eta abar eta abar. Baina denontzat bada lana nahi izanez gero, eta denontzat onura badago. Eta natura hainbeste kaltetu gabe eta...eta hori badakigu hala dela. Baina oso zaila da, oso zaila da guzti hori martxan jartzea. Baina ez dago beste erremediorik, baino ez dakit zer gertatuko den.

Bueno, diskari buruz. Lisabök gauza bat baldin badu, da koherentzia hitza nik bai beraiei aplikatuko niekela. Lisabö izan da talde bat oso koherentea, oso. Bidehutsekin, zuk ikusi beharko zenituzke...adibidez, Durangora juteko. Azken gauera arte, gauez, tolesten diskak, hitzak...bueno gestio propioa...Hitz egiten danean autogestión? Bueno, llevado a la máxima expresión. Jende gehienak ez daki hori, baino ahalik eta merkeen saltzearen, ahalik eta hurbilen...bueno, hortan izan dira oso garbiak, bete izan dira horrela. Eta Lisabö izan da talde bat...arrakasta izan ahal zuten, arrakasta askoz ere handiagoa, hemen eta atzerrian. Funtzionatuko balute ohiko (eskuekin kakotxak eginez), ba manager batekin edo beste moduan. Aukeraz hartu zuten horrela funtzionatzea, eta pasada bat da. Jendeak hori ez horrela ikusten, baino ikusiko bazenu, Jon, egia esan, pasada bat. Eta erotzen eh, lortu behar dugu kartulina bat horrelakoa eta nire osabak badauka fabrika selladora bat markatzen dula kartulina ez dakit nola eta lortu behar dugu, ekarriko dugu, goazen hara...Dena horrela, eta horrela egin dute bidea orain arte. Eta saiatu diren diskak saltzen ahalik eta merkeen. Kontzertu handietara joan direnean, eta kontzertu handi askori ezezkoa esan diete, zeren mamoneo handia egondu da. Gogoratze naiz behin azkena rocken, bueno, hau gure artean, Rayban eh...

Jon: Betaurrekoak

Martxel: Betaurrekoak (barrez). Argazkia, ba kontzertu ondoren argazkia atera behar zutela Raybanekoekin ta ez dakit zer. Badakizu, dirua jartzen dutenak. Juten zera holako nunbaitera eta dirua jartzen dutenak dira musikarekin zerikusirik ez dute enpresak. Eta kriston mobida, que no, que no, ez dugu argazkirik aterako honekin, que cojones es esto, no se que...Ta beste mundu guztia...Horrelako anekdotak pila bat, asko. Hortan oso...Karlosek eta Enekok...Javik oso kontzientzia handia dute. Gainera ez dira isiltzen, gauzak oso garbi dituzte.

Baino bueno, hasieran esaten nuna. Ze zaila den funtzionatzea libreki...zaila da funtzionatzea. Bai, zaila da.

Jon: Bukatzen juteko, esango zenuke poesiaren bitartez, soziologia publikora eramateko tresna bat dela?

Martxel: Barkatu, esan berriro.

Jon: Bai. Ea poesiaren bitartez, soziologia publikora eramateko aukera bat sortzen den.

Martxel: Bai. Dudik gabe. Begiratzen badugu...berrogeita hamargarren hamarkadara juten bagera, edo Afrikara juten bagera...Ze beti dugu pentsamendu, western culture, ez? Beti daukagu, beti hitz egiten dugu eta beti ari gera ikuspegi...mendebaldeko kultura horrekin, ez? Baino juten bagera Afrikara, juten bagera poeta potente hauek Hego Ameriketara eta gero berrogeita hamargarren hamarkadara, hirurogeigarren hamarkadara...Gero, hirurogeita hamargarren hamarkadak nik identifikazio handia daukat Jack Kerouac eta Ginsberg eta Beat Generation guzti honekin, ez? Bob Dylanen tarantula poema liburua idatzi zuen harekin, halako idazte modu irekia. Baino, berrogeita hamargarren hamarkadara eta hauek zian nahiko eroak, Beat Generation hau, baina Jazzarekin lotuta eta...Baina, horren azpian bazegoen aldarrikapen handia aldiz, beltzen eskubideak, ez? Eskubide sozialak, giza eskubideak, ez? Estatu Batuetan.

Dudik gabe. Eta gero adibidez poeta oso onak egon direnak Europa ekialdean, emakume bat...ez naiz oroitzen bere izenez. Eta gero balkanetako gerra ostean ere egon dira poeta oso onak, aldarrikatu dutenak...Bueno, poesiaren bitartez oso argi zabaldu dutenak munduan zehar han gertatutakoa. Eta orduan, alde batetik testimonio gisa, beste erregistro batekin, lehen esan dugun bezala, baina testimonio gisa dudarik gabe. Eta beste aldetikan, bai esperantza moduan, inklusio gordintasunaren barrenean maitasun puntuarekin...Baino poesiak beti izan du eta izango du indar soziala eta mezu soziala dudarik gabe, bai bai. Bai, kontutan eduki behar da beti, bueno, Euskal Herrian zian dugun bezala, edo izan dezakeen bezala. Kontuan eduki behar da beti ere, ez bakarrik egilea, baita ere une historikoa, oso garrantzitsua, testuingurua, une historikoa eta baita ere publiko hipotetikoa. Baina zure galderari erantzunez, dudarik gabe. Niri adibidez, orain...Nik gaur modu batean idazten dut hainbat kontu, agian biharko egunean beste modu batean idatz ditzaket edo baditut idatziak segun nire momentua, segun inguruko momentua, segun Euskal Herriko momentua edo munduaren aurrean dudak ikuspegiak, ez? Baino dudarik gabe, eta zorionez.

Jon: Bueno, bukatzeko eta bueltatuz pixkat hitzaren izaera dialektiko horretara edo, galdetu nahi nizun ea, diskurtsiboki identitatearen aldarri bat egiten dezun, baina poetikoki aldi berean, norberak bere identifikatzeko ahalmena lor dezakeen zure hitzen bitartez, edo. Pixkat tentsio hori, ez? Ea zure diskurtsioa bai zurruna dan edo identitatearen aldekoa, baina gero berriz, identifikazio agertzen den metaforen bitartez edo norberak interpretatzeko gaitasun horren bitartez.

Martxel: Ez dakit ondo ulertu dizudan, eh.

Jon: Errepikatuko dizut? Ez dakit nik ere oso ondo nola galdetu, ze...

Martxel: Bai. Uste dut ulertu dudala, baina esan berriro. Gainera ni nago ia...nire pilak ia...Esan berriro.

Jon: Bai. Ezlekuak diskoko hitzetan ea diskurtsiboki esango zenukeen identitatearen aldeko aldarri bat egiten dezula, baino aldi berean, identifikazioak ere badaukala bere lekua metaforen bitartez irakurleak interpretatu dezan, edo identifikatu dadin metafora ezberdinekin edo irakurketa zabalago horiekin.

Martxel: Bai, bi planoak esan dituzu baino galdera...

Jon: Galdera, esango nizuke, ea bien artean nola ulertzen dituzun. Alde batetik identitatearen alde, baino bestetik identifikaziorako aukera emanez. Eta bi horiek nola uztartzen diren edo zer tentsio dagon beraien artean.

Martxel: Bai. Erantzungo dizut honela, Jon. Nik garrantzi handia ematen diot entzuleak, kasu hontan entzule-irakurlea edo irakurle-entzulea, entzuleak edo irakurleak, nahi duzun bezala jarri, edo duen rolari garrantzi handia ematen diot komunikazioa ixterakoan. Eta nik egin dudak lan xume honek azken zentzua hartzerakoan edo hartzekotan, entzuleak edo irakurleak, edo biek, beraien aldetik jartzen duten horri garrantzia handia ematen diot. Hori ni ez naiz jarriko aztertzen, baina esan nahi dut, honekin esan nahi dut...Lotuta dago

pixkat lehen esaten nizunarekin. Nire asmoak nahiko garbiak ditut idazterakoan, bai? Baina ezin det...oso iluso izango nintzateke...Gauza bat da nire asmoak, eta nire intentzioak, egin nahiak edo saiakerak. Horrek ez du esan nahi jasotzen duenak hau ulertuko duenik edo hala jasoko duenik. Orduan, nik ahal dudana egin dut, nire maitasun guztiarekin eta gaitasun guztiarekin, egunean ahal izan dudanarekin, eta badakit borobilduko dala jasoko duen pertsona horren sentsibilitatearekin, gaitasunarekin, bere momentu bitalarekin, ez? Orduan, hor uzten dut nire irakurketa, eta badakit horrek gauza eder bat baduela, lehen esan dugun hizkuntzaren bigarren alderdi, alderdi mardul hori, dala hizkuntza sujerentea, nahiko sugestiboa dela ere aldi berean, horrek arrantza egingo dula modu ezberdinean, ez? Arrain ezberdinak harrapatuko ditula seguraski eta hori oso polita iruditzen zait. Iruditzen zait, metaforak, hitza ez errepikatzeko...edo irudiak, metaforak edo alegoriak irudi horiek, ba filtro ezberdinetatik iritsiko direla pertsona ezberdinetara, ez? Eta orduan, agian nik uste dut oso argi hala iritsiko dela, baina seguraski, beste modu batean iritsiko da pertsonengana, edo besteengana edo askotan niri gertatzen zaidan bezala, edo zuri seguraski ere...Igual pelikula bat asko gustatzen zaiguna, urteetara ikusi eta aiba, honetaz ez nintzen erreparatu, ez? Orduan, zu pertsona bera zera, baina beste momentu batean, ez? Eta orduan jasotzen dituzu beste ñabardura batzuk, ez? Orduan bai sinisten dut hizkuntza mota honek, poesia puntu honek ñabardura dexente baditula eta ñabardura horiek ematen diotela halako irekiera bat, eta irekiera hortan badagoela gozatzerik momentu ezberdinetan eta hartzaile ezberdinek badutela jokatzetik. Ez dakit erantzun dudana.

Jon: Bai, bai. Oso ondo.

Ba nire partetik, hauek ziren galdera. Ez dakit, nahi badezu zerbait gehiago gehitu edo...Nahiko luze jun gera igual, baina...

Martxel: Ez, ez. Egia esan, bueno. Lehenengo eskerrak Jon. Bigarrenik, asko kostatzen zait jarraian hitz egitea, nago...oso nekatuta, baina plazerra izan da. Eta honekin batera, ez dizut lana erraztu, ze oso dispertsoa naiz. Eta seguraski galdera askotan urrundu naiz galderaren funtsetik edo erdigunetik, baina bueno poliki poliki pentsatuko dugu aterako diozula erantzun bakoitzari mamia eta espero dut baliagarria gertatzea zure lanerako.

(...)

Karlos Osinaga

Sarrera

Jon: Ba ez dakit komentatu zizun Iñakik edo Martxelek aurrez...bueno ba, igual komentatuko dizut nere lanaren asmoa edo lehenengo?

Karlos: Primeran.

Jon: Bai. Ba bueno ari naiz egiten soziologia graduoko gradu amaierako lana, eta asmoa bada aitzaki bezala hartuta zuen ezlekuak diska ari dela, bueno, termino soziologiko edo antropologiko baten bueltan, ba horren inguruan hitz egiten ba pixkat egitea analisi bat diska honen inguruan kontrasterik dagoen, edo batez ere esaten den horren inguruan, hitzen eta horren inguruan eta egiten denaren inguruan. Orduan ba, espazioaren ze erabilera egiten dituzuen, nola ulertzen dezuen espazioa eta bai sortzen dezuen lokalean edo estudioan eta pixka bat kontrastatzea hori, ba esaten den hitzekin edo ezlekuen deskripzio horrekin, Martxelek egiten duen horrekin.

Karlos: Bale. Interesantea

Jon: Bueno...Ba, nahi badezu hasteko komentatuko bazenidake nola sortzen dan idazle eta musikarien arteko harremana, zuek Martxelekin daukazuen harremana...

Karlos: Bai. Lehenengo egin genun...lehenengo esperimientua edo. Bueno, alde z aurretik nabaritutako duzu edo ya nabaritu duzu, nere euskara ez dela oso...(barreak).

Jon: Ah, lasai!

Karlos: Orduan, batzuetan ez dakit zer esango dudana...tu córtame edo bestela, askoz hobeto erderaz...

Jon: Bai, bai. Lasai, eroso zauden bezala.

Karlos: Hau esanda, goazen aurrera. Egin genuen lehenengo esperimientua izan zen 2001ean. Bazegoen garai horretan, Donostian festibal bat, plaza festibala zala eta beraien asmoa zan ba biltzea, gaur egun igual maizago da, baina garai horretan ba zen ba, un poco más cool (barreak). Eta zen ba hori, betikoa biltzea diziplina ezberdinak eta guri proposatu zigun ba hori, gure musikarekin zeozer multidiziplinarra edo egitea. Ba orduan egin genun mobida bat musikari ezberdinekin. Garai horretan egin genun ere Maiterekin, Maite mursegorekin, baita Santi, beste lagun bat, eta Martxeli ere komentatu genion, dantza ere, margolari batek ere egiten zuen mural bat...Eta Martxeli komentatu genion ideia, eta sortu zan ba hori, elkarlan hori. Izan zela ba...gero egin zan horrekin EP txiki bat. Hor egondu zan, horretarako konposatu zan musikarekin, ehh... ba hiru zatitxo grabatu genitun eta izan zan Egun Bat Nonahi. Eta bai EP hori edo espektakulu hura izan zirela lehenengo abenturak, eta asmoa zan horretan ere kontzeptu baten inguruan, ba bueno egun horretan zan espektakulua ba diskoa izan zen Egun Bat Nonahi. Baita ere oso

kontzeptu irekia eta horren inguruan badira uniberso multipleak, orduan hor Martxelek...bueno berak hor badaki nola egin...sortu zun lehenengo kolaborazioa. Gero iritsi zan Lisabörekin bigarren...hurrengo disko bat, ba kolaborazio ezberdinekin, musikari ezberdinekin eta horretan ere Martxelek hartu zuen parte. Testu gehienak berak idatzi zituen, baina baita ere...bueno, nola zan porrusalda bat, orduan hitz batzuk guk egiten genitun, gero beste abeslari batzuk igual ere beriak, bueno. Eta ordun, hau izan zen 2005ean, abuelo cebolleta (barreak), eta ordun hurrengo diskarako pentsatu genun egin behar genuela zeozer berriz kontzeptualagoa, eta nahi gabe, ba dena bezala, bizitza bezala, topatu genun ezlekua terminoarekin. Eta hori izan zen kasualitatez...ni gogoratzen naiz Bartzelonatik bueltan, Anarirekin geneukala kontzertu bat, eta ni garai horretan nindoan teknikari bezala eta orduan justu ba Drake, bajulariarekin ari ginen bazkaltzen eta...joe, aurreko egunean entzun nuen Sautrelan, ba hori hitz egin zuten, ba gero imaginatu nuen izan zela liburu hura, ezlekua...ez naiz gogoratzen izenaz, baina bueno horren inguruan izango zan mobida, Baina, kontzeptua esan zidan, ezlekuak eta joe ba honekin isladatu nahi zuen... Neretzat izan zen como, bua oso kontzeptu super... Baita ere aurrekoan bezala, esaten dizudan Egun Bat Nonahi bezala, baina igual irekiago eta islatzen zuela ere ehheh, gizarte horretan edo honetan, ez dakit hau ya ezberdina den (barreak). Zuk soziologo bezala... garai berri honetan ez dakit nola kokatu, eh, txorrada gabe, bueno horrek isladatzen zitun eszenario ezberdinak baina aldi berean que acompañaba mucho a parte de nuestra vida...eh, invisible, ez dakit nola esan. Eta bueno, guk eh, komentatu genun taldean eta partekatu genun Martxelekin eta berak hartu zuen super entusiasmado. Ze karo, horrek ematen dizun jolasa...gainera, irakurri ditzakezu testu guztiak eta izenburua ez izan ezlekuak, eta balio dute. Baina, izen hori izatea, ez dakit, egin du alteratu edo kontestualizatu, ez dakit. Eta bai aurreko...aurrekoetan egin zituela gauza super guapoak, baina honetan bai hasi zela, izan zen beste klak bat Lisabö eta gure arteko harremanean. Beti esan degu beste taldekide bat dela, ez da alde bat eta beste alde bat. Baina egia da badagola nolabait, muga bezalako bat. Baina, gaur egun uste dut hori gaintitu dugula eta nik uste dut hori izan zela puntu inflexio bat.

(10:40) Jon: Eta orduan, zuk eraman zenioten termino soziologia berari, ezta? Eta berak idatzi zuen horren inguruan?

Karlos: Bai, bai. Hori, ba Drakerekin hitz egin ondoren, ba komentatu nion...ba Enekorekin, Ionyurekin...eta bueno, komentatu genun eta, guazen esatera ba Martxeli. Gustatzen zaigu batzuetan, disko bat egiterakoan portada bozeto bat edukitzea edo izenburu bat ematen duela serio ari garela, ostras hau ya serio dijoa. Ulertzen didazu?

Jon: Bai:

Karlos: Es como, a ver, esto va de verdad. Orduan, bagenbiltzan izenburu baten atzean eta bat-batean atera zan. Eta nik uste dut dala ba hori, kontzeptu polit bat, berak, Martxelek jaso zuen encantado. Ez zen oso momentu ona berarentzako osasun aldetik, izan zen prozesu latza, baina ere berean askatzailea, liberador.

Jon: Eta zer egin zenuten, behin hitzak izanda hauei musika egin edo lehenago musika egin eta gero hitzak jarri zizkien berak?

Karlos: Ba beti nahi degu gauzak oso ondo antolatu (barreak), ari gera ikasten oraindik. Bakoitzak metodo, ba hobetze... Garai horretan, karo bera ensaio batera juteko, vamos impensable, kasi kasi ezta musika entzuteko ere, batzuetan bere mina zan oso handia eta prozesua nahiko latza izan zen berarentzako. Guk egin genuena izan zen alde batetik bozeto batzuk bidali, estruktura batzuekin, parte batzuk, igual baziren hutsuneak abesteko, batzuetan esaten genion, begira, hemen abestuko dugu, igual egiten zenun guatsueguatsue bat. Eta horrekin, eta gero...normalean, disko horretarako prestatu zituen testuak izan ziren nahiko luzeak eta orduan hor hasi zen harremana ba, karo gure kantuek ez dira ba, ez dituzte rimak edo...baditugu testuak, eta alde horretatik nahiko malguak. Baina guk, beno, ba alde batetik hartzen genitun hitzak, gehien gustatzen zitzaiguna hartu, gero gauza batzuk kendu, igual luzeegiak zirelako edo nahiago genuena. Eta batzuetan, prozesu horretan, karo zuk hartzen zenun igual testua osoa eta gero geratzen zana eta batzuetan igual ba aldatzen zan pixkat, baina lan hori izan zen, bueno nahiko elkarlana eta guk jasotzen genitun hitzak, gero puskatzen genitun (barrez), berak esaten zun bueno, ondo dago, ondo dago, aurrera. Batzuetan uste dut, que le jodimos las letras baina bueno (barreak), nadie lo sabe, no?

Jon: Eta ba adibidez, berak pentsatzen det etxean idatziko ditula hitzak, bakarrik. Eta zuek aldiz egingo dezue lan lokalean edo estudioan elkarrekin. Ze ezberdintasun edo ze talka egon daiteke hor? Zuek alde batetik eta bestetik, baina gero batzen zerate gauzak partekatzeke eta...? Baina, oso espazio ezberdinak dira sortzen dezuen lekuak 15:14

Karlos: Bai. Bai, eta hori da la ostia zeren horrelako prozesu batean beti badira, zea ezberdinak. Esan nahi det, momentu batzuk super azkar eta super argi ikusten dituzula gauzak eta orduan buruan abstraktoki zeneuzkan gauzak...Ui, hau ondo dioa. Eta batzuetan ateratzen dira gauzak super erraz, eta beste batzuk...ez dira enkajutzen. Gainera, gero ez dakit beste...nik uste talde askotan gertatzen dela orain esango dudana. Batzuetan, lokalean zaudenean eta hitzak bukaerarako uzten dituzunean, nahiz eta zeuk egin, normalean lokalean egiten duzuna batez ere, zu abeslaria bakarrik bazera eta ez badezu gitarra, egiten dituzu, askoz jota: guatsueiguatsu... (abesten) eta normalean ingeleseko era erabiltzen dezu egiteko gauzak. Hartzen dezu gitarra bat edo eta (abesten). Zergaitik esaten dudan hau? Ze batzuetan egiten dituzu bozetoak edozein moduan eta ematen du ingelesez ari zarela kantatzen eta gero, euskaraz abesten duzunean ez dakizu...evidentemente, nik uste dut irabazi egiten dutela baina momentu justu horretan, esto es una mierda...baina ya fonetikoki edo musikalki, ez? Ez edukiarengatik. Ordun, honek ere pisua dauka prozesu horretan, ze egin behar dezu metrika pixka bat hartu, baino karo, badituzu...testu hau, eta hartzen dezu hau, abestu behar zenun igual hau baina guzti hau igual dago de puta madre. Nola? Baina ezin dut kendu, eta horrek ere behartzen ditu abesteko beste era batera, denbora gehiago...Baina nik uste dut hori hasiera batean ikusten zunula, ba putada bat bezala, ez dala horrela, baizik eta beste interakzio bat. Igual zuk daramazu linea bat gitarrarena edo bajuarena, eta bateri-joleak jotzen du zuk espero ez zenuen era batean eta horrek ere eramaten zaitu bestea zea batetara. Beraz, nik uste dut bidean aurkitzen dituzun arazo guzti horiek onerako direla, bestela egingo zenituzke gauza berdinak. Eta, ordun, y resumiendo si soy capaz jejeje, ba hori, bidean aurkitzen dituzun oztopo guzti horiek, ehh ba hitzak nola kuadratu, nola zentzua orokorrean ez galdu, bidaliko diot ea nola ikusten duen berak... Eta orduan, jolas horretan nik uste dut irabazten dela. Egia da, eta horregatik aipatu dizut lehen ba bozetoena eta guatsugue, egia

da behar duzula denbora pixka bat distantzia eta intimitate pixkat irabazteko, bestela galtzen zera eta uste dezu beti zeozer berria egiten duzunean... baina hori imaginatzen det arlo guztietan izango dala berdin... aurrekoa bai, aurrekoa ondo zegoen, baina hau ez. Eta aurrekoan gauza bera zen. Eta adibidez guri gertatu zaigu hori disko guztietan. Azkeneko disko honekin, bueno orain arte funtzionatu du, baina ya ez. Ya hau ez dijoa, eta beste berri bat eginez gero, izango zen gauza berdina. Eske aurrekoa ondo zegoen, eta beste berri hau ez. Beti badago sormen prozesu horretan, badela nahiko abstraktua eta guk ez dugula metodorik, sentsazioa ona bada, ba aurrera, bestela ez. Ba orduan, karo...

Jon: Ba earki. Nahi badezu, pasako gera beste ataltxo batera. Eta baita ere, bueno, komentatu nahi nizun ea nola egiten dezuen lan estudioan. Zuk grabatzen dituzu, ez, diskoak? Eta nola grabatzen dezue taldean? (20:22)

